

Rh - ODOLESTUAK

FELIX
ZUBIAGA



Rh - ODOLESTUAK

FELIX ZUBIAGA

Rh - ODOLESTUAK

Colección Ibaizábal
1982

A. Pasiotarrak
EUBA (Zornotza)

Dep. Leg.: BI - 71-82

I

—Bat gitxiago gure komunitatean -asperen dagi Sornek, irugarren maillako andereñoak, ostatuko jarleku utsa begirutzen dau, lau jarleku bete zenbatzen eta uts bat arek damotson urduriaz amorrutaz tiratzen dautso zigarroari, asperenak ketan dariozala-. Bat ala bi... Bueno, ori Adela beraren zera dozue. Baiña nik monjen komunitatetik alde egin nendunean, «bat gitxiago gure komunitatean» esango euan erderaz, orixe bai, Ama Abadesiak. Je! Monja-kume abortagarri eritsi nindun eta «ale» komentutik kanpora. Baiña ez izorratu nengoe-lako, ez orixe... Ama Abadesia bera izorratzen zonan, neu ikusteaz bakarrik.

—Euskeraz egiten endulako? -Begoñatxo, leen maillako andereñoari ez dautso ondo tiratzen zigarroak-. Eta nogaz, an beste euskaldunik ez baegon? Beste zerbaitegaitik izango zonan...

—Ba! Ama Abadesiak be komentuaren, edo komunitatearen izen ona gorde gurako yonagan, geuk geurearena legez -Lutxi, laugarren maillako andereñoak atzamarraz uztai egiñik, maai gaiñeko ogi apurra jaurtiten diardu, Sorneri begia jaso dautso-. Baiña eu ez induen komentutik bialdu. Ez euskunan ba esan, oraindiño gitxi dala, komentutik urten egin endula? Guk bai, guk bialdu egin yonagu Adela...

—Guk ez! Ori beste nonbaiteko erabakia izan don, jakin gura badon...

—Geure lankide eta laguna dana, ostatutik bialdu, erretiratu...

—Geure izen ona zaintzearren, jakiña. Mutillekaz lo egiten dogula-edo, baten batek susmo ez dagian.

—Bueno, bueno! Gauzak astiro, emen danok gara errudunak-ta. -Miren, Ikastolako zuzendari-ustekoa, ama-arduraz jagi da maaitik, auziari ezbai-burua mozteko aitzoak eta koillarak bereizten eta platerak pillatzen asi da-. Lenengo Adela bera, orrela deskuidatu dalako, urren Ikastolatik eta gure ostatutik Adela urrintzea erabagi dauena, edo dauenak, eta azkenik geu, protestarik egin ez dogulako.

—Nire ustez, Xabier ori da errudun guztia. -Begoñatxok zotin antzeko zera iruntzi dau itzen aokatzean, ezpain ederrak luzatu, igez doan mosuaren billa oi legez-. Zertan idegi dautsegu danei atea?

—Ez ardura, Begoñatxu. «Klausura ipiñiko dogu gaurtik aurrera ate-buruan eta ez da geiago mutillik sartuko.

—Eta komentu bat egingo yonagu eta eu aukeratu Ama Abadesia...

—«Jauna dot artzain, ez dot izango nik goserik, ark emoten daust larre ederrik...» -Aita Jose Luis, Ikastolako Musika-arduradunak diapasoa jo eta ogetamabigarren salmoa asi dau Jaunaren gorespenetan, euskal doinuari gregoriano kutsua emoten dautso-. «Ur bazterreko abarotara naroa eta an azkortzen daust gooa...».

—«Aren atzean bide zuzenetik banoa; aren izena bai gozoa!» -Aita Markel, Ikastolako Leendakari berezia, Aita Jose Luisen koru-lagun, Dabiden salmoak latiniatik euskerara irabasi dauena gozatzen dago, latini mundu zaar guztira egina eta euskera geure gaurko mundurako bailitz, gogotik aoskatzen dauz eta ozenki jotena-. «Bardin illunez troka-bidetik banoatzu, ez dot bildurrik, or zaitut zu...».

—Zeu nor zara ba...? Bai, bai. Itxaron egizu apur bat, notea artu daidan. Bai? Zubeldiaren emaztea, Ikastolakoa, Iñakitxoren ama, irugarren maillakoa... Ez, ez naz ni; beste andereño bat... Arritzekoa da! Erlegiñoan

diñozu, atan be? Ezertxo be ez dakit. Aita Markel bera dalako mailla orretan umeen erlegiño-ardurea daukana. Mirenek, Ikastolako zuzendari-ustekoak, urrutizkiñari josirik dauka belarria, bere idazkolako maai-gaiñetik zamar txikerrenak eskuaz garbitzen dauz, boligrafoaz marrazki puntatsuak dagiz noten ondoan, erdiko utsak unadaka tintaz betetzen dauz mekanikoki, fitxeroa idegi, fitxak iduli, «Iñaki Zubeldia Barandika» idoro, begitu, ariaren unada luzeak pazientziz eta begiak itxita entzun, begiak erne eta boligrafoa tenk, erantzun-. Ba, esaten dautzudan lez, tutik be ez dakit. Jesus olakorik! Bai, kurso onetan... Zortzi urte egiteko, ez dala? Eta aurtan -kurso onetan, esan gura dot- jaunartzea egiteko izena emonda dago...

—Aurtan ez dago Jaiotzarik, ez Errege Magorik, ez Jesustxorik, ez sorgintxorik. Olentzaroren eskutik artuko dozuz sariak eta kito. Entzun dozu? -Ibon Gorria, Ikastolako gurasoetarikoak, izparringiaren gaiñetik begiak jaso eta Maitane, irugarren maillako neskattoari agirikaz begiratzen dautso, Maite amagana doa babes-billa, aitzak begiradaz jarraitzen dautso-. Beste zeure laguntxoak bestelaz egiten dauela? Or konpon! Guk geuretara ospatuko doguz Gabonak eta kito. Eta aurtan lan bat gitxiago: ez dautsozu iñori kartarik egin bearrik. Ez Garparri eta Meltxorri. Esan ementxe zer gurako zenduken, eta ondo eristen badogu, ekarriko yatsu eta kito.

—Bai, gizona, bai! Geure erara, baiña bake santuan. Orretarako ez dago umea ikaratu bearrik. -Alazne, Ibon Gorriaren emazteak, Maitane altoan gordeten dau, aren matrailleko malkoa txukatzen, «bai, laztana, eskatu gura dozuna, emongo yatzu eta» mosua belarrira idultzen, begirada jaso eta zizpuruz begiratzen dautso senarrari-. Zer gura dozu, gizona, beste umeekin katekesira doan umeak eskatzea? Jesus, ba...!

—Ze Jesus eta ze oremus! Geu, gurasook, eta bardin alaba, zentzatzeko ordua da! Edo beti ibilli bear ete

dogu itxurak egiten, zer esango dauenaren edo egingo dauskuenaren bildurrez?

—Batzuk itxurak egiten eta besteak benetan...

—Esanak esan; zure sariak Olentzarok eta kito!

—Nik ez dot gura Olentzarorik! Nik buztinëzko Jaiotza gura dot!

—Abortoa aipatu badot, ez da izan batzarre onetako iñongo neska edo mutillen belarririk sumintzeko, geure arteko lankide bat, neska bat, geure bearrizanean dagolako baiño -Xabier, Baillarako Ikastolen Bateratzaille-Ordezkarik-Pekoak, ostaz jasotzen dauz begiak batzarrean, naigabe andi baten mende bailego, burua bular gaiñera idulita dauka, bere inguruan txutxu-putxua edatu dela, oartzen dau, eskari-begiak jasotzen-. Berandutu baiño leen, bearko dau gure laguntza...

—Oleagan ba dago deskuidatu diren neskei laguntzeko erakunde bat. Sekreto andiz egiten ei daue lana, amaz eta umeaz arduratzen direla -Lutxi, laugarren maillako andereñoak, eperdia jarlektik galdu bearrez, aurreratu dau arpegia, jarleku-ertzak min dagitso ipurmamiñetan bere esan bearraren akulari-. Zergaitik ez dogu bertara bialtzen?

—Ezin daikegu bialdu, burgeseriak busges-kumeen pekatuak ezkutatzeko daukan tokira, bada ango kutsaduraz eurerariko egingo litzake- Debora, bigarren maillako andereñoak, su-kolorezko zapak gangarretara nabarmendu dauz begiakin axut dagitso Lutxiri eta itzaz aren eritxiari-. Neska orren askatasunak eta guk geuk daroagun zeregiñak beste soluzio-bidea eskatzen dau; ain zuzen be, neska ori ez delako deskuidatu diren orretariko, geutariko lankide eta lagun baiño...

—Orretan nago ni -Sorne, irugarren maillako andereñoak, tenk jaso dau eskua batzarrean-. Ez daukagula Aita Paskualen-edo bitartekotasun bearririk arazo onetan. Legea da emen batzuei pekatu-konplejoa dakar tsena, ukatu daigun legea. Ez dot justifikabide oberik aurkitzen.

—Aiba, laporra! Mekaguen la puñeta! -Jontxu bigarren maillako mutikoari eskulanetako dorrea lurrera jausi yako, eskuak gurutzatu, burua mogidu eta ortzak estutzen dauz-. Orain kaka!

—Zenbat bidar esan bear dautzut, ume, ez dala olakorik esaten? -Errose, Ikastolako amaetarikoak, eskuak gora, ez dautso begi-izpirik kentzen Josetxori-. Konfesau egin bearko dozu...

—Konfesau...? -Josetxoak, amorrak apal, begiak argiz beterik jaso dautsoz amari-. Aitatxo be pekatuak konfesetan joaten da abadeagana?

—Gu errepresioan edukatuak izan gauzan eta eleizpe au eta kanpandorre ori errepresioaren erakunde eta sinbolo dozan -Sorne, irugarren maillako andereñoak, neguko eguzkia artzen dau eleizpetik plazara eskola-arteetan, Debora lankideak lagun dagitso, inguruminguru ardura-peko neska-mutikoak ikuka edo gomatar jolas dagie, Sornek pautadea kendu dautso zigarroari-. Agaitik nik neuk ezin dodaz umeok, neuk jasaneko edukaziñora beartu. Edo ze aldrebezkeri don, umeak, Paristik barik, amaren sabeletik datozela argi adieraztea? Ba or asaldatu dozan ama batzuk. Noiz arte seksoa tabu edo errepresio-ekintzaille?

—Ori esain. Zelan ez gendunan ba azkenik nonbaitetik eztanda bear? Geure sikologia eta fisiologia guttia alako plastikozko soiñekoetan sartu bayauskuenan! -Deborak baserri inguruko euskera darabil, ezkonduaren erastuna ezkerreko atzamar aulean, urre-diztira adatzean, kaletar elduaren eta aurreratuaren soiñera soiñean, irripar izekaria ezpamiñetan-. Kontu egin, abadeen baimena bear gendunala ezkongaietan asteko eta bardin ezkontzeko. Bua! Abadeen bedeinkaziñoak bear bailira umeak egiteko edo seksu-gaitzak osatzeko.

—Hun! Eleiza ez don tontoa. Bere isopoa edo zeozer sartu bear gizakien indarretaz jabetzeko, gizartea manipulatzeko. Ara, geuk uztiatu bear gendunan uea: seksoa askatasunerako. Ezikuntzan umearen eta geure arteko arremonak indartzeko.

—Obeto egingo yonan majadero orrek, Ikastolaren oorea aipatzen ibilli barik, Adelagaz eskonduko baltz, aren umeari bide emoteko -Lutxi, laugarren maillako andereñoak, ustea damotso Miren zuzendari-ustekoari, eztabaidetako sokatiran ustez bere alderdikoari. Ik zer usten don? Xabier alako mutil bateri konfiantzarik emon leikeola? Orixe don ba, maite-arremonak olgetatzat artzea: umeak datozenean, aitarik ez agertzea...

—Erantzukisunik ez...

—Eta aulenaren eskubideak non?

—Basa-gizakiaren bilakaeraz edo eboluzioaz, esan nizuenez, haseran tximua egin zan gizon eta basoko errege zena, lurraren jabe egitera heldu zen. Beraz, hizkirimiriz esana, «basoan jaio, basoan azi, herrira etorri eta bera nausi», alkartearen aginte-makilaz baiño, gizakiaz beraz obeki esana dago -patxara andiz begitzen, itza aozkatzen, eskukatzen dau Batxi, Baillarako Ikastolen Bateratzaille Ordezkarriak, eta noizbeinka bizarrak aztatuz, Aaronen bizar lurrintsuak baizen naro, nesken lilura larritzen-. Eta ain zuzen ere, alkatearen makilaz hori esan bada, benetako autoritateta, basotik irtena delako, esan da. Orduan zen gizakia libre, aztien mende erori baiño lehen, jatorrizko pekatuaren konplexuan jautsi baiño lehenago. Gero, sugearen ipui pozoitsu hori inbentatu zutenek, emakumearen kontsetu ezkorra edukitzez, gizakiaren ekilibrioa ere nahastu egin zuten, jainko-mamu bildurgarriak bere aurka altxatuz, errugabea errudun egotsiz, erru-sendimenduaren gateak gizonen lepoan ezarriz, giza-gogoa ere aizago menderatzearen. Eta kontu egin (eta andereñoen nagokizue batez ere) gaur Ikastolara datozen zenbait aurrek ez dutela oraindio (eta zorionez, esan behar) erru-kontzientziaren sendimendurik, ez eta (gure kasoan bezala) guraso-semealaben arteko erroko ezbairik. Ain zuzen ere, hagatik askatasun orokorrerako gu baino geiago direla, esaten dizuet; askatasun-eziduraz ezteko aproposak alegia. Ez al dugu nahi Euskadi askatua? Aurretiz gizakia aska-

tzen ez badugu, ze askatasun-arrario eman dezakeiogu herriari?

—Gora Euskadi askatuta!

—Gora Euskadi sozialista!

—Gora Euskadi gorria!

—Batasuna! Batasuna! -deiadarrak otsak ezbardindu ziran, mutillena, neskenak orapildu ziran, ondo ezi gabeko abesbatzean bezala, kantua nainora yonan, nesken begirada geienak Batxi Baillarako Ikastolen Ordezkarigana.

—Beraz, oraintxe edo iñoiz ez! Ikastolako une egoiki hau uztiatu behar dugu; estrategia ertzi bat sortarazi behar dugu Ikastolako demokratismoaren inguru eta konta guretzat orduan herriaren askatasuna.

—Ezkontzean, askatasuna galtzen yuenan mutillak eta iraultzarako adorea. Ba dakin, emazteek euren maite-txeraz eta mizkinkeriaz baketara erakarri nai yuenan senarra, mesedez eta Jainkoarren, umeen etorkizunari begira deioela, otoika. -Sorneri, irugarren maillako andereñoak, atzamar artean biraka darabil gas-txiskeroa, noizbeinka txispa-urtika, su emoten dautso, su-garra txikitik andira astintzen dau, anditik txikira laburtzen, suaz jolasten, betazaltxao Lutxigana jasotzen-. Eta orrela, ze iraultza gura don? Igarri ere egin barik, burgesiarren arlora igesten direla.

—Ja-jai! Eta ori dela eta, Xabierrek ezin dauela Adelagaz ezkondu, esan gura daustan? -Lutxi, irugarren maillako andereñoak, liburutik burua jaso, orrialdean atzamarra sartu, liburua itzi eta Sorneri begi txikiak ipinten dautsoz-. Adela neska aberatza izan bazonan, laster ezkonduko zonan beragaz, bai orixe. Jakiña, ez gero iraultzari orpoak erakustearren. Bai zera! Emazte burgesxoaren diruz iraultza andiagoa egitearren baiño.

—Gure klase-kontzientziak esijitzen dasku une onetan Olabeko andereñoekin solidarizatzeke. Euren auzia geure auzia da; euren burruka, geure burruka. Kontu egin une onetan euren lan-postua galtzeko zorian

dagozela. Zergaitik? Ezikuntza askatzaillea burgeseriarren aurka, aurrera eroatearren -Xabier, Baillarako Ikastolen Bateratzaille Ordezkarri-Pekoak, ule baltzak ixurduraz orrastu daroaz, kiribillo bat bekokitik dindilizka, andereñoen gogaldia aztatzen dau, gozo-giroa sortarazten, itzaren eta esku bien artean magia saiaturen.- Bata-sunaren konpromisoak klase-maillako defenza onetan ere bat etor gaitzela, eskatzen dausku. Ideologi-diferentzi guztien gaitetik, batasunean dago indarra, lenbailen gure eskubideak lortzeko. Zer deritxazue?

—Bai, klase-kontzientzia eta guzti ori ondo dago, baiña or gelditzen dira gero Ikastolako klaseak umez beterik. Norik artuko dau euren ardurea? Norik urten-go erantzule gurasoen aurrean? -Miren Ikastolako zuzendari-ustekoak, sorbaldak jaso eta eskuak sasi-tituloaren arantzetatik askatzeko sudurzuloak arrotzen dauz.

—Danok gara erantzule! Batasunean ez dago nirerik eta zurerik, ez eta zure ardurarik eta nire ardurarik, dana dalako danena. Beraz danok Olabera!

—Badakik, txo, Ikastolako umeen euskal meza gero eta indar geiago artzen doala? Esan daustienez, gudetetik ona eleizara joan ez diranetariko batzuek ez euskal mezatara etorten asi ei dozak -Aita Jose Luis, Ikastolako musika-arduradunak, Liturgi liburua idegi, umeen kantu-gaiak ikuskatu, doiñuak buruz durunditu eta arridura begiak zabaldu dautsoz Aita Markeli.- Ba dakik zer egin bear daustakan? Doiñu aunetara umeentzako bertso egokiak eratu, liturgizunetan parte geiago artu dagien. Bat sarrerako, beste bat siniskintza baies-teko eta beste bat edo bi jaunartzerako, e?

—Ori baiño ez badok... Ta gaitzera merezi yok. Euskal meza ori kontuan artzeko dok. Kontu egik, ez daukagula orixe baiño beste euskal batzarre idegirik. Eta egia dok, guraso batzuk ez yakiat zergaitik barriro eleizara etorten asi diren, sinismen berbiztuaren eragiñera, ala euskal eleikizunak aurreratzen edo aurretiz agintzen dauskun, euskal askatasuna somatzearren. -Aita Markel, Ikastolako leendakari bereziak, idazkortza maai

gaitzera itzi, garria atzera bota, sorbaldak jarleku-bizkarrean egokitu, eskuak gurutzatu eta betarte argia erakutsi dautso Aita Jose Luisi.- Zenbat bertso, esan daustazak? Bueno, eskuartearen daukadan lana amaitzen dodanean. Ba dakik, aurtengo Olentzerori be zerbait asmatzen nayabilk. Mikelek ez deuk ezer esan? Abestaldeari lagundu eikeok. Gaztedi talde andia prestau ei yok, Gabon bezperan urteteko.

—Jaiotza eta guzti?

—Ez yakiat. Igez zelan egin zenduen?

—Eleizak kulturagintzarako lokalak izten dauskuz, baiña kulturagintzan askatasuna ipotekatzen. Eta ipoteka ori kulturari berari estrepozoa ipintea da -bost minuto luze erretzen daroaz Sorne, irugarren maillako andereñoaren zigarroak, Baillarako Ikastolen Bateratzaille-Erakundeak antolatu itzaldia amaitu denetik eta osteko alkarrizketa sortu dela, autsa eta kea geien bat, baiña noizbeinka, Sornek tximini egiten dautsonean, zigarroak su-eraztun gorria erakusten eta orduan busti-go dizdiratzen daue Sorneren begiak, Batxiri begiratzean.- Nik, esate baterako, ezin daiket kontzientziz, neuri erakutsi eusten erlegiñoa erakutsi, absurdo bat dalako eta gurasoek geu zietan sartzeko erabilli oi dauen mimena...

—Mimena baiño txarrago, esango neunke nik. Mimenak txankak gorritzeko izaten ziran, baiña gero ere txankak aske gelditzen ziran euren dantzarako. Gure gogakera erratuaz euen prejuizioak oster, argi pentsatzen eragozten dausku, bizitza barri bat asteko -Zugatzu, batzarrean agertu barri den gaztea, talde andereñoetsuaren erdian mutil nabarmentzen da, anorak baltzak estudiante antza damotso, darabilen euskerak abade edo fraille zapustuarena.- Neuri esan bestela: berez eleiza lotgarri da eta kultura askegarri. Baiña zer nai dozue? Babes ori bearrezko dogu emen une onetan. Geroago, kulturak berak apurtuko dauz arritzar onek eta estruktura zaarrok, kultura barriak soiñeko barria eskatzen dauelako.

—Ori guzti ori teoria baiño ez da -Debora, bigarren maillako andereñoak erdeñua erakusten dautso baezpadako fraille motxari.- Emen besterik da untzea: zelan onartu gaituen teillatura arririk bota gabe, aren oiñarriak jan.

—Ama, ez da esaten «amaitu dozu»; «bukatu duzu» esaten da -Iñakitxo, irugarren maillako umeak, kaitillu epelari esku biakin eutsi, okotza goratu, ezpaintyoak luzatu, biribildu, milizkatu, mingaiña atera eta musturtxoak luzatzen dautsoz amari.- Zuk, ama, «euskera» esaten dozu, nik «euskara».

—Ze zoro-moro darabizu, ume? Nork nori erakutsi bear dautsola, gero? -Mari Zubeldia, Ikastolako amaetarikoak, esku-lana itzi eta Iñakitxori adi-adi, begiak eten bearrean jarki yako.- Gozaria amaitu ete dozun, esan dautzut. Eta itauntzen yatzunean, itauntzen yatzunetik erantzun, bear dan moduan eta ez or musturtxoak luzatzen jardun.

—Jakiña da, kontenidoak ere aldatu ezik, ez dagoela iraultzarako biderik, baiña bestalde, kontenidoak bakarrik aldatzeaz ere ez da berez iraultza egiten. Gaiñontzekoan, gu kontenido batzuek emateko behartuak gaude oindikoz (askok fitxa dobleekin egiten dute agirien formalizatzea, etabar) Baiña kontenidoez landa, zerikusi handia du eziketa berak. Andereñoak, irakasle ezezen, ezitzaile behar du izan. Irasleak jakintsuak aurreratzen ditu, baiña ezitzaileak, pertsonak -Batxi, Baillarako Ikastolen Bateratzaille Ordekariak, esku biekin irakur-betaurrekoak kendu, maai gaiñean konturaz ipiñi, urrunera begiratzeko begiak txikitu, andereño ezagunekin topo egin, poz-barrea loretu eta aburuari darraitso.- Kontenidoekin moldaturik dagoen jendea, jende objetibatua da berez. Erak eta ezikerak dira alda beharrekoak, kontenidoak baiña hareago; hau da: haurragazko harremanak. Harremanok ertziak behar dute izan. «Harremon» esaten da hemen, ez hala? «Hartu-emon», «har-eman», «har-emetik» beraz (barretxoak). Hor ikus genezake, euskerak ez dadukala berez tabu-

rik. Hori, zer esanik ez dago, harrak emeeekin edo emeek harrekin oi dituzten harremanetatik dator. (Txutxuputxuak) Gaitezen beraz euskaldun, tabu guztien gaiñetik, era beteko euskaldun. Harreman ertziak, esan dugu beraz. Ertzidura ikastolatik kanpo, askatasuna ikastola barruan. Hor igarriko du haurrak argi asko, gurasoek beak izan direla, bera, haurra, engaiñatzen saiatu direnak, eta zer esanik ere ez, hortik sortuko da andereño eta ikaslegoaren benetako kamaraderia.

IKASTOLAKO IRAKASLEEN MANIFESTAPENA

(Fotokopietan banatua eta erderatik euskeratua).

Olabiden, azillak 2, 1972an.

Egunotan Olabeko Ikastolaren inguru sortu den burruka benetako klase-burruka denez gero, ezin geinke bereiztu Olabeko gaiñerako langilleriak edo Baillara guztiko beste Ikastolek daroen burrukaz eta arazoaz. Ikustea baiño ez dago, Baillarako irakaslegoa, andereño-maisuak alkar arturik, zelako adorez aldeztu dauen Ikastolaren zeregin jatorra, txantaje utsez eta demokraziaren izenean, dena fiskalizatzen datozen inkisidore barrion aurka eta zelan esijitu dauen euren ogia, edozergaitik kale gorrira botatzeko prest legokezen jauntxo barrien aurka.

Beti uste izan dogu, zuzendaritza eta lan-erabatzea, testoen antolaketa bezela, irakaslegoaren eginkizuna zela, irakasleon nortasuna antzutu eta eziketa bera murduskatu baldin nai ez bada. Eta ez dator bestetara, jauntxo orreik irakaslegoari aurkeztu dautsoen zuzendaritza saldu eta kanpotiarra. Ezin daiteke onar faksismoaren txakurrak maniatu dauen Juntako kontrol ori. Kontrola barik, guk laguntza eskatzen dogu; datozela gure lana eta eziketa indartzen eta ez izorratzen. Eta zer lortu dogu? Txatarraren kontrabandizta aberastuok umeak engaiñatzeko ipuiñak asmatzen asi direla, eta egiaren billa datozeneri, Ikastolan sorgiñak ikusi dauezela, kontatzen. Eta oso bestelaz da emen jasoten dena:

langintza bereziko jauntxo barriok dena euren araura eta onurara antolatu gura dauela, Europako burges demokrateri itxura ona egitearren eta langilleak indar eta jabetasun-ames ustelez lilluratzearren.

Ez dago erakunderik jauntxo orrein begiradatik ezkuta daitekenik, ez aukerabiderik euren ideologi atzerazalea ereiteko gura ez leukeenik. Langilleria eta irakaslegoa gizarte beraren soin eta buru direnez, ezingo ete dogu askatu jauntxuon abarka-mantarretatik edo txapel andietatik? Dena jantzi gura leukee euretara, eta beingoan mutuerazo kritika txikerrena abertzaletasunaren izenean.

Ikastola be euren ezikuntza aurreratzeko nai daue eskuin muturreko jauntxook eta gure maisutza euren morrontza beartu. Onak dagoz! Asieratik andereñoak zietan sartu gurarik asi ziran, alogurak kentzeko zemaiez bildurtzen, gurasoak ikuskizun larriekin izutzen eta andereñoak kalera beartuz. Eziketa-lana gurasoen zeregiña delako alea iruntzi eragin dautsee. Noiztik olakorik? Zer dela eta gurasoak irakasleen aurka jartze ori? Zantzailleen lana benetan! Baiña geuk be, soin eta gogo libre garenez, ezin geinke onar olako kate laidogarririk. Ezin geinke itzi burgesiaren eskuetan Ikastolaren etorkizuna. Obe litzakezelako Estadu beraren eskolak, jauntxuon kontrolpean geldi leitekezan ikastolak baiño.

Ikastola, euskeraren serbitzarako ezezen, eziketa liberatzaillaren izenean, erriko iraultzaren sebitzan dago. Andereñoak beti aalegindu dira eziketa erriko, aske eta kritika-zalea emoten. Agaitik jauntxuon Junta barriak Eziketa-Ordezkaritzaatik urrindu egin ditu. Noren probetxurako? Zeren interesetan? Ez erriarenetan arean, euren ekonomia aldezteko eta langillegoagandik klase-ideak aienatzeko baiño. Eta orra zer gertatzen den funtzean: langilleria alde batetik eta burgeseria bestetik betiko burrukan. Argiago esan eta: erria alde batetik eta jauntxoak bestetik, betiko auzian.

Ori dela eta, guk, Olabeko maisu-andereñoak, faksismoaren atzaparretatik aske den Junta barri bat es-

katzen dogu, irakaslegoaren bardintasunean, Ikastolako arazoa libreki erabagi aal dagian. Puntu konkretu batzuk aurretik eskatzen doguz, demokrazi faltsoa salatu eta alkarrizketa garbira eltzeko.

Komunistok eta materiaren dialektikan sinisten dogunok, erriaren iraultzatik bakarrik sor daitekela, uste dogu, Euskadi askatua eta gaiñerako erri guztien izkuntza-askatasuna. Zaindu daiguzan Ikastolako lorpenak eskuin musturrekoen atzaparretatik. Guraso errizaleok, iraultzako erakunde guztiok, Baillarako Ikastoletako maisu-andereñook, alaber erriko komisiok, alkaturik jarki zaitezte faksismoaren aurka, erri-atzeratzaileen aurka eta emon egizue arpegia Ikastolako gure lankideen alde manifestapen aalik andienaz.

Kanpora zuzendaritza «ondraua»!
Beera Ikastolako Junta atzeratia!
Gora Ikastolako demokrazi-mogimendua!

Iraul eta auts aurrerapena eragozten ari diren erakunde zaarrak!

Denok langille eta ezetsien alde, biar amaiketan Erriko Etxearen aurrean!

ADELAREN LENENGO BAKARTADEA

1972, abenduak 24 gauean.

Olentzariak kale-erditik etozen, Olentzaro txapel-dun ekarren andetan, Aita Jose Luisek «Olentzero joan zaigu» auspoaz laguntzen euan, Beribillak arritu, bide-egaletan gelditzen ziran Olentzarori begira, kaletar jendea espaloietan «nor da ori? Zer dagie orreik» galdezka. Adelar leiotik ikusten euan Xabier poltsadunen aurrelari, aterik ate, gabon-kanten uzta batzen. Xabierrek Adelaren leiopetik igarotean, diru-poltsa jasotzen euan goraka, Adelar ikusi egian, bere bakardadean ez egoela bakarrik, ez bere zorian, laguntza barik. Aita Jose Luisek samurki laguntzen euazan billantxikoak eta ain polito loretzen abestien artekoak, soñuaren kilikiliaz garria mugitzeraño. «Ikusten dozue zelako aidea daroan Aita Jose Luisek» inoen aurretik begira itxaroenek. Adelar bere leio urrunetik «Birgifiña maite» doñuratzean, ezagutu euan Aita Jose Luisen ganorea: «seaskatxo bat ipiñi eiozu gure biotzen kutunai» arakoan ain zuzen be. Ezin eiteken besterik izan, eleiz abestiei alako gozoa emon leikeonik, Keltxeri, Sabin-txori, Iziartxori eta Aurre-Ikasketako beste umei, «Zure begitartea, Jesus ene maitea» erakusten eutsen fraille gaztea baiño. Oi ene! Noiz loretuko ete zan bere bakartadea! Noiz itzuliko barrero Ikastolara? Adelar bere amatasunaren ezordua eta itxaropena eztabaidatzen euan bere buruagaz, bere biotzagaz, Xabiarrekin,

gizarte osoarekin. Xabierto bere kuzkua edo Iziartxo, jaio eitenean, itzuliko zan agian umeen lorategira. «Jainkoak gura badau... Xabierrek laguntzen ba daust...» amatasuna aztatzen euan Adela eta Xabierrek esku biek gora jasotzen euan diru-botsea gero eta aziago. Xabierrek aterik ate, zurubietatik gora oлдartzten euazan diru-eskaleak, amabi-amalau urteko neska-mutillak; dirua txintxin jausten zan poltsatxoetan eta txinta-txinta Xabierren poltsa n̄asian. «Bai, Xabierto izena ipiñiko dautsugu, laztana...» alkarrizketa isilla erabillan miinpetik Adela eta olentzariek ziriak egiezan Oletzaroren ostetik eta Olentzaroren pitxerrera zein leenago elduko leiaketak. Pitxerra benetakozan, ardaoa benetakoa, Olentzaro bera trapuzkoa. Poza ugaritu zan Olentzaroren pitxar-inguru. Nork edaten euan Olentzaroren pitxarretik? Olentzarok matrail gorriak, sudur-punta gorria eroan, begiak mozkor zorian. Olentzaro mozkor-irudia, txapelpean egokitua zan, txapel andiak alako euskal itxuraz janzen euan aren arpegi orraza. «Adu duanian Jesus jaio dala» nork ulertu kantagaien testoa? Kantu bai kanta olentzariek, edan bai edan arteka kantariak, baiña nork artu ardaoari neurria? Nork edan dau emen bost arroako zagia? Zeren konplexoa gaindutzeko ustetan gero? Euskerarik ezarena apika? Euskal testoaren ezulertzarren? Itza alde batetik eta kantagaia bestetik ez ikus-tearren? Oletzaro mezulariaren eskandaloagaitik agian. Olentzaroren zatoa, Olentzaroren pitxarra, Olentzaroren zaragia aitu egin ziran, Olentzaroren diruak osteratu, Olentzaro txapuzkoa zan, diruak osteratu, benetakoa. Olentzarok beraz konbidatu euazan bere mutillak, bere neskak, ardao batera Zoko Barreneko trabenan. Olentzariek txapelak erantzi euzen Olentzaroren omenez, txapel baltzak, txapel gorriak, txapel folklorikoak. Aidean yoazen txapel arñiak. Burua galduz gero, ez da txapel bearrik eta gaua gainean zela, kalea abenturaz beterik egoan. Zenbat diru beariko zan Adelaren bakartadea laguntzeko? Aurrera olentzariak! Olentza-

rien kale-jira zaulitik lokara etoren, txistularia eta auspolaria ritmo galdura beartzen euzan eta «poliki-poliki eragiozu» markatzean, Aita Jose Luisek neska-mutillak besotik garririk eta iztarkilo ekusan argien arteko badaezpadan. Oi gaueko argien lillura! Oi nekearen lorra! Oi kale-jiraren zorabioa! Berebillak kale erditik etozen ordurako eta Olentzaro eta olentzariek erret-bidea galdurik, egalka erratzen euen. Estarri urratuek ez etozen txistuaren einera eta Aita Jose Luisek auspoa ez baitan erabillan goikoak eta beekoak bardindu eziñik. Abeslariak bitara edo irutara, bakoitza bere bidetik deslai, bere asmoen morroi, «lotsagarria» antzi egin euan Adela, farolaren argitasunean neska-mutillak zirrika ikustean, «Jesus eta Maria! Au ganorea» Aita Jose Luisek olentzarien zaindaria billatzen euan begiradaz, galderaz, amorruez eta auspoaren arnasa eten yakon, «guk mentsaje bat emoten urten dogu kalera eta ez ser esana emoten!...» Zigor bat merezi euen. Erruduna edo errudunak billatuko ziran, begirik mozkorrenak salatuko farolen argiak, txispa gaiztoa nondik sortu den jakiteko. Lau edo ze inkidore izendatu, «juizio sumarisimoa» egin ta sutara emongo gogoangarrien gogoangarrirako. Plaza erdianugarria metatu, «nor izan da errudun» lau aldetara ots egin euen inkisidorek, «Olentzaro! Olentzaro» salatu euen andariak, andariak gogait egifiek egozen Olentzaroren zama aztunaz, «Olentzaro buru andia, entendimentu pobria» irrintzi egin euen olentzariek, «sutara Olentzaro» agindu inkisidorek. Orduan andariak batera Olentzaro artu eta sutara jaurti euen. An izan zan negarra eta egin-karraskada! Olentzaroren karetea, txapela, pitxarra eta pipea bakarrik amnisiatu euazan norbaitek isilpetik. Olentzaro sutan aienatu zenean, plaza erdiko sugarrak ibitu zirenean, eta jendaldearen eiagorak beeratu, orduan eta andiagoa egiten zan Adelaren bakartadea kaleko ostate pobrean jaioterritik at, etxekeen gandik urrun eta Gabon-gaueko amabiak zerutik dindilik.

BERTSO BARRIAK, OLENTZERORI JARRIAK

Abenduak 26, 1972an. (*kopia-bidez edatuak*).

Arlote-burupean
barririk onenaz,
Olentzero ibil da
kaletik baimenaz.
Mezuz euskeraz eta
itxura bestelaz,
olentzariak dabiz
mamin bako azalaz.

Orra, orra, orra, orra, Olentzaro,
ardao-itxura baten gorrimiñez dago,
andariak zurrupa dautsoe azpitik
t'olentzariak edan bere pitxarretik.

Mesuak esaten dau
«Jesus jaio dala»,
euskera ori aientzat
auntzaren estula.
Ez bata t'ez bestea
ulertzen ezpada,
zeri egingo dautse
kale ontan jara?

Orra, orra...

Mezuak uts egiñik
erdal belarrian
Arloteren jantziak
arturik soñean
Olentzeron pitxarraz
Bakon omenian,
ganora galduz dabiz
gazteok kalean.

Orra, orra...

Aldrebeskeri onen
argi egiteko,
sua biztu da plazan
illuntzeraz gero.
Kontu artzean zorrotz
inkisidoreok,
sutara jaurti daue
gure Olentzero.

Orra, orra...

Olentzero erruen
aker egitea,
kontzientzi mozkortuen
lapiko tapea:
Pilatok uraz eiña,
suaz egitea,
garbiketa bera da
ta naiko tristea,

Orra, orra, orra, orra gure Olentzaro,
ardao-itxura baten gorrimiñez dago,
andariak zurrupa dautsoe azpitik
t'olentzariak edan bere pitxarretik.

Oleagatik, abenduak 29, 1972an.

Pilik Mertxeri, Olaben.

Kaixo aspaldiko: Onez gero, gure Pili non izkutu ote den galdezka egongo zera, Mertxe, eta «ona-esan zionat-urtea bukatu baiño leen eman dezaiodan nere lanaren berri.

Julenen igesa artatik, zati baterako alde egitea nuela onena, esan zidatenan Baillarakoek eta emen, Oleagako Ikastolan, lan-postu berria arkitu ere. Emen arkitzen naun geroztik, Lana, leenagokoa baiño neketsuagoa pizka bat, Aurre-Eskolako kaka-ume oiekin, erdiak baiño geiagok ia euskera tutik ere ez dakitela. Gero bizkaierak ditun itz eta aditz ezberdiñekin, nola ala moldatzen naun. Eta laister, euskera batuaren alderdikoek nausitzen baditun, ez zekiñat leengo eragozpenak txikitu ala aundituko ote diren.

Jakin bear den, beste andereño baten utzunea betetzen dedala. Gajoak, ezkongea eta nobedadea zuela, Ikastolaren ona eta andereño-ostatu onen garbitasuna salbatzearren, urrindu bearra izan omen unan. Ez diñat esan, Oleagako bost andereño komunitate batean bizi generala, abadesia eta guzti, eta aipatu dedan andereñoaren nobedadea sortu zenetik, klausura eta guzti, esateko. Monjetan egondako andereño bat zeukanagu abadesia eta isilpetik «abadesia gorria» deitzen diotena adizkidetariko batzuek. Kontauko diñat historia: ostatu-mutur au alkilatu zutenean, Oleagako parte zaarontan, bost andereño (emen jarraitzen duten laurak eta nobedadea-arren, iges egin bear zuanak) alkar-bizitza onen aserako beroaldian, jataldiak, loaldiak toki berean egiten zituztenez gero, lana eta lan-sariak ere berdintsu egiten eta jasotzen zituztenez gero, komunitate bat saiatu bear zutela, asmatzen asi zitunan, monjamotxa aurrelari zela. Jataldiakaitik, lotaldiakaitik, lan eta lan-sariakaitik ez omen zan eragozpenik sortu, baiña diruaren otsa aipatu zeneko, arraioa, abadesiaren aurka altxatu omen zituanan beste nobiziek, bakoitzak

bere diru-kontua zeukala, eta ondo ezarria bere Aurrezki Kutxan ondo gordea, eta bakoitza libre zela, ostatuko kastuak aparte, bere aurrezkiak neurtzeko. «Ze kristautasuna zuena» itxusitu omen zien abadesiak profesagabeko beste monja-kumeei, aintxiñako kristuek espiritu obez egin zutela, dena denena zen komunismo batean, eta Eliza, leengo bidera etortzen ez bazan, ez zegola benetako kristautasunik, ez Elizarik.

Irripar egin ezan, Mertxe, baiña ez larregi, mese dez. Erruki akit beste ainbeste, Eguberriotako oporraldietan sufritzen nagonagatik. Kontu egin ezan, neronek erositako turroia bakarrean jan bear izan dinadala. Bestelako gozoa zeukan amak emanak, Mertxe. Beste andereño-lagunak beren etxeetara, baserrietara, joanak zitunan eta ni emen, itsusienakin dantzatzen, abadesiaren mende. Abadesiak ez zeukan nunbait gurasoekin arreman aundirik. Ni, ba dakin, Julenekikoagatik zigortuta niagon ementxe, txakurren bildurrez, Eguberriak espetxean igaroten bezela. Ez diñat opa. Mertxe, esperimentzi auxe.

Komunitate tristea pixka bat alaitzeko, turroia eta txanpana bederen erosi bear genitula, aditzen eman nionan abadesiari eta purrustadaz erantzun zidanan berak, kristautasuna osorik artu bear zela, edo Kristoz aaztea obe zela. Ez zela zillegi eta Kristoren Jaiotza txanpanaz ospatzea. Murriz eta mutur igaro zetiñagu benetan egunik ospagarrienak.

Ala ere, Urte Zaarraren mutur luzea aaztutzeko, Gabon Zaarretan kotillon batera konbitea egin zidan, beste andereño batzuekin batera, eta bai nik onartu ere. Naiago diñat klausura eskerga au urratu, abadesia gorriaren iraultza-teoriak (izkuntzaren iraultza, politikaren iraultza eta moralaren iraultza, askotxo ez ala, Mertxe?) entzuten jarrai baiño. Gaiñera abadesia beraren moral-tasuna ezagutu na diñat Urte Zaarreko kotillon orretan. Kontatuko diñat.

Bueno, naiko den onetaz; ez diñat pelmada au luzatu nai, abadesia gorriaren nobizia itzulikatu naizela,

uste ez dezanan. Julenen berririk-edo jakiten baden, ez ni utzi, Mertxe, ain gaberik. Eskumiñak andereño-lagunei, Lupe eta Arantxari batez ere, eta zuri, Mertxe, besarkada aundi bat zure.

Pilik

II

—Odolustuten yagok Adela gaixoa eta eu emen-txe, medikuari oraindiño deitu barik! Mobidu adi, mobidu! -Idoia gaisozaiña sumindu egin da Xabier sukaldeko leiotik kalera begira ikustean, kotoin eta ur odol-duak dakaraz ontzian, ur odolduak erakutsi dautsoz Xabierri.- Sinisten dok orain? Odol geiago bear dok? Zer besterik egin bear dala, uste dok, medikuari deitu baiño? Eta i ortxe amesetan...

—Zer jasoten yako orain Adelari? Gauzak ondo yoazen orain arte, edo ze gaisozain-modu zara zeu? -Xabier, Baillarako Ikastolen Ordezkari-pekoak, uraren gorria ikusten dau, Idoiak aurrera dagi arri alderuntz, Xabier bitartetu yako bidean, besotik oratu dautso, ontziak dar-dar egin dau Idoiaren eskuetan, urak zipristindu dira, Xabierren eskuak ur-odolez odoldu.- Kendu eizu begien aurretik. Emen daukazuz medikuaren errezetak, ara osakaiak be. Zer besterik bear zendun?

—Bai, errezeta galantak orrexek! Urrengoan Paistik ekarri bearrez, Pekinetik-edo ekarri einkezan, Gaisozaiñok txinoz ere jakin bear dogula, uste dok ala? -Idoia ontzia arrian usttu, gotoin odolduak zatar-ontzira jaurti, eskuak garbitu eta Xabierri jarkiten yako.- Gaisozaiñok dakiguna auxe dok, jakin daiaan: osakai eta errezetekin aurreratzen ez dogunean, mendikuari deitu bear yakola. Edo neuk deitzea gura dok?

—Itxaron! Itxaron! Ez uste, gauzea orren samurra danik -Xabier sukaldeko atean tinkatu da, patxaraz pentsa eta berba isil egiteko, eskatzen dautso Idoiari.- Adela bere medikuakin dabil, neu bitarteko nazela. Eta zer esanik ez bearrizanetan berari deituko dautsogula, ez beste iñori. Bitartean errezetok euskeratuko doguz.

—Euskearen birikietan arnas berria eta haren zaiñetan odol berria sartu beharra dago, euskara salbo nahi badugu. Urteak eta gizaldiak dira «euskara jalki hadi plazara» esan zela, baina askotxok beren santuarioan gorderik eduki nahi dute herriarena den aberastasun hau. Hordua da bontzoen santuariotik su sagaratu hau jaregiteko -Batxi, Baillarako Ikastolen Bateratzaille-Ordezkariek, ezpain gaiñeko bizarrak bekoetatik banandu, ezpainak erakutsi, bizarrak tolestu, boligrafoaz beintan barriz karpeta-azalean jo eta mingaiñaz ezpainak bustitzen dauz.- Haseran arnasa zen eta birikietako arnas bizigarri honek gizakien estarratik zehar, mingaiñetatik, agin-artetik ots bereziak sortzen hasi zen eta arnasa hitz bihurtzen joan zen. Horrela, alimalien bizi-seiñua zena, arnasa, gizakien seiñale, idea, bihurtu zen: eta eusko arnasa eusko hitza egokitu zen. Euskera arnastua zen horduan, orain maisu iñosoen eskuetan, ia hitorik, hizkuntza denetan zorigaiztokoena eta baztertuen agertzen zaigu. Baina arnasa berriz berrizteko hordua heldu zaio euskerari ere, hizkuntza zaharra (eta zaharren hizkuntza) hizkuntza berri, gazteen hizkuntza erne dadin. Fonetika arnastuaz mintzatzen ahalegintzen natzaizue. Estarria ireki behar diogu euskararen bizi-iturriari, hitzak arnastuz, idea berrien gatza eduki dezaten. Ni ez naiz ikurrin zalea, baina euskarak hatxea beharrezkoa du. Zer egiten zaio uretatik hitotzear jaso den gizonari? Ahoz-ahozko arnasa eman. Eta zer egiten zaio sakristiko egurats lizunean ahuldurik dagoen euskerari? Ateak ireki eta «euskara, jalki hadi plazara» ots egin.

—Ez deunat esaten, euskera batuan ipiñi daginala, euskera ulerkor batean baiño. Dana, letra txikia eta guzti. Euk ulertzen don frantzesia iñork baiño obeto

-Xabier, Baillarako Ikastolen Bateratzaille-Ordezkariekoak, burua makurtu, errezeta-papelak erakutsi, zabaldu, burua jaso eta keiñu xedegarria egin deutso Sorneri.- Mesedez ipiñi egistan euskera errikoi baten, zenbat eta errikoiago obeto. Ez don au klase intelektual baten ulerpiderako, gaisozain baserritar batentzako baiño...

—Eta ze ardura yok? Euskara ez dok onez gero ez baserritarra, ez kaletarra. -Sorne, irugarren maillako andereñoak, oin-puntetan azkai medartxoa jasoago jarri, errezetei goitik beera eta Xabierri beetik gora begitzen dautso.- Emendik aurrera euskera bakarra eta desklasatua da, jakin daikan.

—Bai, bai, Sornetxu; arrazoa daukan. Baiña arazo au bizitzako edo eriotzako zera dala, esan gura deunat. Ba dakin, Adela...

—Ama, ez dala esaten «bentanie»; «leioa» esaten dala -Iñakitxo, irugarren maillako mutikoak, azkeneko aideplanoa egaz jaurti dau sukaldeko leiotik, beste bat tolestu eta gordeten dau eskuartean, betazpitik amari begitzen dautso, sorbaldak ezbaian mugitzen dautzela.- Noiz ikasi bear duzu euskera batua?

—Panplina gitxi neuri, ume. Bentanatik edo leio dalako ortik papelik botaten ikusten bazaitut, artu bear daustazuz eta -Mari Zubeldia, Ikastolako amaetarikoak, eskuaz zemaitzen dau Iñakitxo, patata-zuketari jarraitzen dautso eta abotsa gozatzen.- «Leioa» bai, kolo, Osabaneko baserrian, kortan dagoen argi-zirritua, axe dok leioa. Baiña zabalago oneri «bentana» ordez «leioa» deitu gura badautsozue, ondo dago.

—«Jauna dot argi, Jauna zaindari, nork ni izutu? Jauna dot lagun, nork bear nau ni ikaratu?» -Aita Markel, Ikastolako leendakari bereziak, estul eta zintz dagi eskuzapira, bere salmu-kanta koruaren einera bardintzekotan, goizeko lakarrak estarran biguntzen yoakoz, uju-uju gozoak dagiz.- Gauza bakar bat Jaunari dautsot nai eskatu; bizi nazaiño bere etxean naiala artu».

—«Aren gozoen gozoa beti gozatzea, Aren jauregi ederra noizbait ikustea». -Aita Jose Luis, Ikastolako musika-arduradunak, goiz-goizetik salmo bakoitza eta salmoetako nota bakoitza Jaunaren goramenetan ipinten dauz eta eguneko egite, asmo eta ames guztiak Jaunagana, maitasun-agiri, bialtzen.- «Egun baltzetan aterpean nau ni gordeko, bere etxean ondo gorderik nau eukito».

—Zuok failleok, lotan zagoze, zeuan komentuan sartuta, zeuen eleizpeko Ikastolean zer jasoten dan, ez dakizuela -Mari Zubeldia, Ikastolako amaetarikoak, jesarleku apatz nasaia barik, danetan gorenena artu dau Aita Markelen aurrean, esku-boltsa belaun-aurrean ezarriz, soñekoaren doitasuna orniduten dau eta begiradaz Aita Markelen begiradak zaintzen.- Leen «umeen zentzune, etxean entzune» esaten zan; orain «umeen zentzune, Ikastolan entzune» da, eta neure umeen zentzunetik dakit. Eta nor da Sorne ori, umeak Txixik ekarten dauzela, geure umeari esateko?

—Txixik ekarten dauzela?... A, Txixik... -zurtu gelditu da une batez Aita Markel, Ikastolako leendakari berezia, eskuak burura eroan dauz, odolak igon dautso nabarmen matrailletara, irribartxoaz ezkutatu dau gorri-miña.- Umekeria edo olakoren bat izango da, ez ala?

—Umekeria? Umekeria baiño txarrago nausien agotan. Ori eskandalo bat da! Edo gurasoon aitatasunak edo amatasunak ez ete dau errespeto andiagorik merezi?

—Amatasuna ederra izango dok, zoragarria ama euskara, atsegiñak neskak, baiña guzti orreik burges kontsetuak dozak -Xabier, Baillarako Ikastolen Batera-tzaille Ordezkariekoaren biotzak asperen egin dau, itza eten yako une batez Xabierri eta lotsatu egin da Zugatzuren aurrean eta trauskili-mauskili itz-andana estalgarrizat jaurti dau.- Ire amak i mundura erakartean, lan ona egin yoan, Euskera be bardin, lan ona dok, tresna ona iraultzarako danean. Alan ere ez adi larregi neska ederrengana aurreratu. Edertasuna burgesiaren morroilloa dok eta idea barrien keldogarri. Iraultzarako askoz

egokiagoak neska motsak, bekokerrak, sudur urtenak, estuak eta arpegi tximurrak. Onek metraila utsa dozak eta ekintzara yoazak beingoan, iraultzara. Alan entzun yoat eta alan dok. Zoriak maitasunean labur, baiña ekintzan lapur egin yozak.

—Ez yagok txarto esana. Moises desesperatuak legez, lege guztiak apurtuko enduzan, euk...

—Bai, baiña ez atxaren kontra, alajaiña!

—...maitasun librea proklamatzeko. -Zugatzu, Ikastola lankide barriak, betaurreko garden artetik begiratzan dautso Xabierri, eskuetan daukan poemen liburua idegi, orriak irauli eta «entzuidak auxe» irakurten dautso:

«Jan daiguzan madariak
eder, zintzilikariak,
uts daigun lotsea,
ase gosea,
lo dela eta ez dela,
baratz-jagolea,
buru aul, biotz eder,
euskal alabea...»

—Oraingo askatasun literaturari esker, emakumezkoen bizi-panorama egunero eta argiagotzen yoaku. Gauzak askatasun-giroan egiten direnean, ez dira orrela larritzen, ez direla orrelako situaziñora eltzen, esan gura dautzuet. -Debora, bigarren maillako andereñoa, nasai jesarrai da zuzendari-ustekoaren maaian, ikas-gelako atarteetan ume-iskibidua dabil, Debora barrako ganora artu dau, barrezka asi denean.- Txiste bat kontauko dautzuet: Ba doa neska bat konfesatzera eta badiñotso abadeari: «operaziñoa egin bearrean nago eta konfesatzera nator». «Operaziño grabea al da?» abadeak. «Ez, abortatzea bakarrik...»

—Ire txisteak ez yaustan grazirik bat be egin, Debora -Miren zuzendari-ustekoak begiak itzi dauz, aoa idegi dauenean.

—Ba, negar eginken orduan...

—Ez uste, gauza negargarria ezeze, amorrargarria don, izan be -Sorne, irugarren maillako andereñoak, ez dau egin barrerik, itzaz zigarro-keak jaurti dauz purrustadan idaskola maai erdira.- Abortoa bera be klase-problema egiten dalako: pobreek kontrolatzeko mediorik ez daukeenez, kontrol guztiak klase baten eskuetan dagoenez, azpikoak bere narrutik ordaindu bear.

—Entzun dozuena: «Supuesto miembro de la ETA muerto en un enfrentamiento con la policía...» -Pili, Aurre-Eskolako andereño barriak, izparringiari gogotik eusten dautso, eskuetatik kendu ez dagitsoen, biotzak dal-dal dagitse andereñoei, asperenak, aienak, begiradak eta galderak gurutzatzen dautseez alkarri.- Jon Bilbao ori ezagutzen zenduen?...

—Txakurrak alakoak!

—Ez dago eskubiderik!

—Jesus ba! Ausartak be badira e? Ezin ukatu -Lutxi, laugarren maillako andereñoak, begiak bustirik daukaz eta ezpainak alkarren kontra biurritzen dauz.- Eta euretariko asko kultur-iraultzan apuntatu direnak baiño zintzoagoak.

—Elizpea babes ona diagu gure lanerako. Elizan ez duk sartzen ez zakurrik, ez poliziarik -Batxi, Baillarako Ikastolen Bateratzaille-Ordezkarriak, banasean artu dau Zugatzu, lankide barria, Zugatzuk Xabierren utsa eta kezkek kontatu dautsoz maisuari eta Batxik espe-rientzien gainean itz egiten ikasleari.- Praileekin zenbat eta tratu gutxiago hobe; bakoitza bere bidetik eta elkar ikusi ez baigina. Aldamenetik txakurra pasa izan bailitz... Ez noski, praile guztiak ez dira txakur mutuak, baina ba dakizu, euskaldunok oi dugun seriotasunaz. Bakoitza bere hitzaren gordailu da, bakoitzak bere sailaz erantzun behar du. Beraz ez du inoren zokondoetan usnaka ibili beharrik. Ez keinu, ez seinu, ez zirri eta ez irri, etxeakoak baigina, edo eta beste planeta batekoak.

—Eta Txixzik zer egin euan orduan, ama? -Iñakitxo, irugarren maillako mutikoak, amaren belauetan ezarri dauz ukondoak, ipuñiak entzuteko oi eukan eratarata eta amaren begirada ez euan galtzen.

—Txixzik zer egingo yoa ba? Gauza onik ez arek. Antxe eure inbidiz, txakur amorratu baten antzera egon, eu jateko asmoz, eu jai einteneko. Baiña tati! Egundoko makillakada emon geuntsoan aitak eta biok eta alaurika baten joan zoa atxetatik gora -Mari Zubeldia, Ikastolako amaetarikoa, arriturik dago, ipuñiak asmatzea zein erreza den oartzean eta Iñakitxok zein gozoro irunsten dauzen aleak, ikustean.- Zeu lako ume eder barik sorgin-damaren kobara eldu zoanean, «non dakark, agindu dauadan ume ederra» sorgin-damak eta Txixzik murik be ez. Orduan sorgin guztiak Txixxiri erpeka asi zoazen eta ari begiak atera bearrean, Ordutik ez dok gurean Txixxirik agertu.

—Emendik aurrera umeari ez yako esan bear: «galde egiok amari» edo «eskatu eiozu amari». Emendik aurrera, «zoaz andereñoagana, galde egiozu andereñoari, andereñoak emongo dautzu» esan bear da, Ikastolako bere askatasuna lortu dagian. -Sorne, irugarren maillako andereñoak, zigarro-pakete barriari lokarri beilegia askatu eta, umeari oialak eranzten oi yakozan emetasunez, gaineko mintsa askatu dautso, idegi dau, Pilik eta Begoñatxok zigarro bana onartu dautsoe, iru andereñoek, belarrira isilleko bat esaten bailegoz, suaren billa musturrak luzatu dauez, une aretan Sornek «minorian» ikusten dauz bekarkara Lutxi eta Miren, beste lagunak, eta miin-puntako tabako-samarra tuatzen dautse.- Gurasoei umeak egitea dagokie, guri ume orreik ezitea, edo Batxik esango leukenez: «beai aziketa, guri eziketa dagokigu». Bada, batzuk aragiz eta odolez soiñak taxutzen daezen antzera, guk gogakerak asmoz eta jakitez. Eurak arraza, guk gizartea eta erria.

—Ori ere teori politen bat ezango don... -Lutxi, laugarren maillako andereñoak, ezbaikor mogitzen dau burua.

—Ez teoria polita bakarrik, neska. Or daukan ez-pabe, urrunera joan barik, Debora. Ez yoan berak argi esan leengoan, eziketa askatua gure Ikastolan sartzen ez dan bitartean, berak eta bere senarrak umerik mundura ez ekarteko promesa egin dauela?

—Bai, baiña Ikastolako gurasoek ostera, seme-alabak mundura ekarteko eta euren lineatik ezten jarraitzeko asmotan yagozan. Burgesak direla? Eskubideen kontzientzia yaukenan. Titulo gabeak direla? Baiña ez tentelak -Miren, Ikastolako zuzendari-ustekoa, lurrean oiñen gaiñean tinkatu da, zut, lerdin, beso biak gurutzatu, marfilezko dorrean sarturik bailego eta bakezko leiotik bake-ituna eskeinka.- Eurek euren gurasotasuna gure akademi edo eziketa-titulo guztien gaiñetik ipinten yuenan eta gaiñera guk daroagun zeraren susmotan dabizela, egingo neukenan. Ez dozan irakurri Aita Markel egin dauzan bertso barriak? Zuek be ez dozuez irakurri?

—Ori zeure arazoa dozu, andrea. Andereño orrek arinkeriz-edo olakorik esan badautso umeari, zeuk esaiozu ganoraz eta benetaz eta kito -Joxek, Mari Zubeldiaren senarrak, ur bedeinkatu barik egin dau aitearena eta oeko mantapean estaldu da, estalkietatik burua jaso dau.- Emakumeok orretarako esku ohea daukazue.

—Egia, gure Añestxok iru urte baiño ez daukaz, euki, baiña zelan orain adierazi Iñakitxori, Añestxo geure alaba dogula eta bera, Iñakitxo, geure semea, au da geure erraietan sortuak direla? -Mari Zubeldia Ikastolako amaetarikoa, atorra zuritan eta lotsa gorriaren zoritan dago oe-aurean, ur bedeinkatua artu dau ontzitik.- Ene Jainkoa! Andereño orrexek dana lorrindu ez baleusku!...

—Txo, Sorne orrek ba yabilk zeozer Ikastolan. Atera egik kontu: Joan nok bere klasera, musika-orduaren konponketa egitearren, eta umeak bakarrik topa yoazat, arbeleko esaldiak kopiatzen. Esaldiak hatxedunak zoazen. Baiña ori ez dok. Gerotxoago joan nok ostera bere eta Sorne topa yoat, baiña arbeleko hatxe-

arrasto guztiak berrata ikusi yoazat. Ori zer dok? -Aita Jose Luisek, Ikastolako musika-arduradunak sostenidoz kutsatzen dau aboskera, galdera egitean, bera ere Sherlock Holmesen ezusteko senaz arritzen dela Aita Markelen aurrean.- Ik hatxeakaitik ezer esan dautsok ala? Ba ez ta nik bere. Zer yaukok hatxe orrek, alakoetan ibilteko?

—Alde baterik aurrea eta besterik hatxea eta hatxearen atzea eukiko yok -Aita Markel, Ikastolako leendakari berezia, jesarlekutik jagi eta leiotik kalera begira gelditu da, buruari eragin eta Jose Luisegana itzulirik, keiñu egin dautso.- Ba leikek itzen aurrean hatxe ipinteko jokera ori aurpegia ezkutatzeko estalgarri izatea.

—Mozorro edo mozolo-arpegiak ipiñi eta aurrera. Ez uste, mozoloak ere zerbait bilatzen du elizako Santisimua argitasunean: ontziko olio noski. Eta gero, olioaren truke, bai eta goros-pila galantak utzi ere. Ez al dituzte iñoiz elizpeko abeetan edo lurrean halako arrasto zurizkarik oharitu? Hori justiziako lana da mozolo-kontzientziarentzat -Batxi, Baillarako Ikastolen Bateratzaille-Ordezkaririk, Zugatzuren korapilloei erantzuten darrai, komentutik iges egin eta gero eleizpean ezkutatu, taktikarik zuurrena emoten dautso, atzamarra begien pareraiño jasoten.- Harrizkutsua dela? Bai zera! Entzun al duk sekula santan elizak, hori dela eta, egundo mozolorik eskomikatu duenik?

—Merkea don eleizaren medikutza: emakumeen batek umea galtzen badau, eskomulgatu eta listo -Sorne, irugarren maillako andereñoa, zigarro-paketeen dagerren biribil urrezatuari begira dago, urrezko izkiak irakurten aalegindu da «qvos Deus conjunxit...» latiniak laban egin dauso, monjen koruan latiniak abestean legez, paketea esku-boltsatxoan gorde dau.- Antisorgailluak libre eta edozein neskaren aukeran balegoz, ez litzake abortatu bearrik egongo.

—Orixe guri jasoten yakuna, gure amaen moral-estruktura apurtu eta oraindiño askatasun-moral barria-

ren eskubideak lortu ez doguzanoi: batzuren eta besteren madarikaziñoak eta eskomuniñoak jasan bear -De-bora, bigarren maillako andereñoak, tximarro gorritzak sutan eta samea zut, katamots kaiolatuaren antzeko jirak dagiz idazkolako maai-inguru, irugarren biran Sorneren aurean jarki eta adorea erakusten dautso.- Baiña egunen baten guzti au amaituko da! Ez gara izango gei-ago ideetan askatuak eta zapetatik lotuak. Ez orixe!

Oleagan, azillak 16, 1972an.

Mikel Goitiak Aita Markel Zubeltzuri

(*gaztelertatik euskeratua*)

Agur jauna: Leenago ere berbaz esan neuntson legez, eta Erlegiñoaren askatasunari buruz, Eleizak Bati-kano II Batzarreko Agirietan agertzen dauskunez, Ikastolako ume eta gurasoek borondatezko eratzukizunez, erlegiño-aukerari jarrai dagioen, alkarrizketa zabal eta orokorra billatu bear dogu. Onela, bakoitzak erlegiñoaren askatasunaz daukan eritsia ezagutu eta aintzat arturik, aalik gozoen eroango dogu Ikastolako zeregiña.

Edozeiñek daki gaur egunez, gure Euskalerrian (eta zoritxarrez esan bear, katoliku praktikante nazen aldetik) sortu den eztabaida, bai ideologiaren aldetik eta bai erlegiñoaren aldetik. Bestalde, euskaldunok Oleagan orren gitxi garenez, eta ez, denok gurako genduken lez, katoliku zintzo, talde bakoitzak ez dauka bere gustoko ikastola bat sortzeko erarik: katolikua bata eta katoliku ez direnena bestea. Askoz ere erosoago eristen dogu, denontzako ikastola pluralista bat onartzea.

Gauzak orretan direla, andereño guztiak eziketa kontrol batez, erlegiño katolikua erakustera beartuko dozuezala, entzun dogu. Zer izango da orduan, katoliku sentitzen ez diren maisu-andereñoekin? Kontu egin daigun, andereño edo maisu bat, esate baterako, marxista edo ateo aitortzearren, profesional zuzena izan daitekela, Ikastolaren araudia ondo jarraitzen dauelako, bere ideologi partikularren ezelako propagandarik egin gabe. Uste dogu, bere kontzientzia errespetatzekoa dela, eta ontzat artu bear litzakela bere jokabidea.

Ori dela eta, guk, gurasoen talde zabal baten ordezkariok, zeuri, Eleizak Ikastolaren Leendakari Berezi aukeratu zaituan orri, oarron erabagia bialtzea erabagi dogu, alde batetik pertsonen askatasuna eta bestetik Eleizaren oorea salba daitezen.

Ikastola pluralista baterako proposamenak:

1) Eziketa Orokorren izenean eta Erlegiño beraren ooretan, sinisten ez dauen andereño-maisuak ez dira erlegiñoa erakustera beartuko. Onetaz, askoz ego-kiagoa litzakela, uste dogu, andereño onein dinamika aurreratuz eta erabat kristautuz, itzez eta egitez kristau dotriña erakusteko geigarri egin apurka-apuka.

2) Bitartean erlegiño-arazoa eleizgizonen arduetan ipiñten da, Ikastolako eta andereñoen arazo soilletatik berezi, fedearen eziketa espezializatuen eskuetan iz-
tearren.

3) Ikastolako gurasoen pluralismoari dagokionez eta umeari sor yakon askatasunaren izenean, puntu oneik emoten doguz bidezkoenak:

a) «Ikastola Parrokiala» deitura pluralismo orre-
tarako eragozpen bailitz, izena leenbaileen aldatu, legez
bardinkotzat jarraituarren.

b) Erlegiñoa emoten den eskola-orduetara guraso-
ek libreki bialdu leikeezela euren umeak edo ordu arei-
tatik jaregin.

c) Ikastolako umeak, Ikastolako legez eta forma-
ziñoan, ez direla meza entzutera edo beste eleizkizune-
tara beartuko (leen-jaunartzea egitera, esate baterako).

d) Umeen euskal jaietako programetan eleizkizunik
ez aipatzea eta ez sartzea, arik eta talde bakoitzak bere
aukerako kultoak edo eleiz-oikunak izan arte.

e) Ikastolak errestasun guztiak emongo gurasoei,
euren umeak, egokien uste dauen dotriñan, ikasiak izan
daitezzen.

Uste izan dogu ainbestez, erlegiñoak gogotasunean
eta Eleizak prestigioan asko irabasiko dauela, deneri
arrera ona egiñaz, dena denontzat aukeran eskaiñiz, de-
nok Kristogana erakarteko, iñor beartu barik.

Zeuk nai dozunerako, agindu. Zeure serbitzari

*Mikel Goitia Ordezkariek,
gurasoen talde zabal baten orde.*

POLIZIEKIN BURRUKAN ETA'TAR BAT TIROZ ILLA

(«El Norte»tik, azillak 30, 1972an -erderatik eus-
keratua).

Oleagan.—«Ofizialki jakin dogunez, atso arratsal-
deko zortzirak inguruan, polizi batzuk eta terrorista tal-
de batek su-armaz eraso eutsoen alkarri Dantxarinea al-
dean, Naparroko Pirenetan, mugatik gertu, terroristak
mugara eltzeko egozela. Polizien susmora eta euron
«gel» deira, suiskilluz erantzun euen besteak, alde bie-
tatik tiro-otsa zela. Ori dela eta, igezka yoazenetariko
mutil bat jausi zan illik eta beste bere lagunak mugaz
bestaldera aienatu ziran. Jausi dena Jon Bilbao (beste-
laz Tantaia) gertatu da, Oleagako semea bera eta, orain
urte bete dela, ETako terroristen taldean askatu legez
sartua; Firebid 9koa eroan aldean, jausi zanean, su-sei-
ñale ziurrakin. Bera zan, aztertu denez, Lezama jauna,
olagizona, oratu eta ezkutatu euenetarikoa, iñoren on-
dasun eta seguridadearen aurkako beste salakizun asko
eukazala. Iturburu ofizialek diñoenez, mugaz bestalde-
ra iges egin dauenetarikoetan Luis Bengoa (bestelaz
Txori) eta Julen Alkorta (bestelaz Miru) aipatzen dira,
denak polizi-auzian eta pertsonen eta ondasunen kon-
trako zarraparragaitik erantzun bearrekoak».

JON BILBAO ZANAREN ILLETAN EGIÑIKO ITZALDIA

1972an, abenduak 2, illuntzean

(Artean-arteon papeletik irakurria eta osorik polizien magnetofonoan artua).

Entzule maiteok: Ordurik samiñenean lurra jota, eta Jon Bilbao gure gazte maitearen illotza geure aurrean dogula, itxaropenak eta fedea alkartu gaitu eleizkizun onetan. Euskalerriko mendiak odolez gorritu yakuz barriro, Euskalerra osoa Kalbario nekegarri biurtu yakula, baiña oraingoan samingarriago, zorigaitzak urretik jo gaituelako.

Mundu zantar onetatik iges, mendian, bizitzaren muga-mugan jausi da Jon, gazte argi, Jainko-zale, erri-zale, lanean; askatasun, zuzentasun eta egiaren bideetan. Ain gaztetatik Kalbarioko bidea artu euan Jonek, Euskalerriko bidegabekerien lorratzak kendu nairik, ortarako iñor iltea baiña norbere bizia emotea obetzat emoten euala. Orain bakean zagoz, Jon gazte leiala. Iñoiz baiña obeto ulertzen dozu, Kristo Jesus, gure zarkerien erantzule egiñik, eriotzera apaldua izan zala, baiña bere asmoa eta geure zoria ez zala lurpean gelditu. Kristoren eriotza, izan be, geure kristautasun-egieren aztertzaile egiten danez, zure eriotza, Jon gure anai, gure euskaltasunaren aztergarri egiten yaku. Ba-

kean zagoz, bake-zale izan zarelako etxean, kalean, ikasketetan eta mendian. Bide onetik dakigu, zure eskuetan ez zela ezelako armarik aurkitu, lurrera jausi zintzazanean. Bakean zagoz, zorionaren billa, biderik nekegarriena eroan dozulako eta aitortzen zendunaren erantzule urten dozulako. Ez zendun beste usterik, norbere pentsakeraren ekintzan bakarrik zoriona billaru einkeala, baiña. Bear, bada zeuk uste izan zendun baiña ariñago etorri yatzu epea, zeure ogetalau urteen amesak idegi zireneko. Mundu zantar onek iñoiz be ezin izan dauz jasan zeu bezelako gazte leial, ideal-zale bikaiñak.

Zu bakean zagoz, Jon anai maite, baiña gu ez gagoz bakean. Ez dogu bakerik izango arik eta geure bizitza benetako kristautasun eta euskaltasun einera jaso arte. Mundu zantar onek ez dauka bakerik, ustelkeriak ez dauelako merezi zorionik. Jainko errukitsuak parkatu daijala gizarte galdu onen gaiztakeria eta gure pekatua. Gure kristau-fedea lagundurik eroan daikegula gure erria bake-bidetik etorkizun argiago batera. Berak, gure Kristo eta Salbatzaileak, gurutzean parkatzaile urten eualako, eta zuk, Jon, ez bizitzan eta ez eriotzan gorroto-izpirik zeure biotzean gode ez zendualako, parkamen-itzari eta parkamen-asmoari eusten dautso guk bere ordu larri onetan, zeure eriotza, illen artetik biztu zanaren itxaropen bizigarrian, ospatzen dogula. Eta ezelako gorroto barik, maitasuna ospatzen dogu, ez dagoelako bere bizia besteen alde emoten dakianaren besteko maitasunik (eta zuk, Jon, gazte leial, argi erakutsi dozu Euskalerrari dautsozun maitasuna) ez dagoelako gaiztakerien garbitzeko, maitasuna lako indar bikaiñik.

Munduaren aipamenak zitalak eta guzurtiak izango dira zuretzat, baiña ez zagoz bakarrik otoitz-ordu onetan eta zure gomutapena garbi eta maitakor iraungo dau ainbesteren biotzetan, munduaren guzurak lilluratzan ez dauzelako. Eta munduak oker epaitu bazaitu, aztertzaile zuzena idoroko zendun Kristo epailleen epailleagan, merezi dozun saria bere eskutik lortzeko. Itxa-

ropen onek poztuten gaitu, zeure alde otoitz egitean eta zeure gorputz zulatuari agur egitean, geure gogoan sakonkiro markatu gure geunkez Kristoren gorputzeko zauriak, zure odola, Arena legez, bakerako frutugarri izan daiten Euskalerra zorigabeko onetan. Bakea, egia, askatasuna, zuzentasuna, maitasuna. Ala bedi.

AMAREN LEZIÑOAK

(Klopa antzera egiñak eta «Aitoren izkuntza zar» doiñura Ikastolan abestuak).

— Nor naz ni ta zer ni?
Amatxu, esan garbi.

— I, semetto, euskaldun,
gaiñera fededun.

— Nor gara ta zer gara?
Burgesak ete, ama?

— Langillea dok aita,
lanik ez yok falta.

— Nor da, ama, andiago:
ETA ala KRISTO?

— Itauna ein dauana
ez dok oso listo.

— Umeak norentzako:
erriko ala etxeko?

— Etxeko ta erriko,
bata bestentzako.

— Ikastola gurea
ala erriarena da?

— Ez yagok Ikastolik,
ez gu bako erririk.

- Ama, besterik gaurkoz esateko ez daukot.
- Dudaz baago, seme, amatxuri galde.

ADELAREN LENENGO IKUSKIZUNA

1972an, abenduak 30 gauean.

Itsasgoraren erruz, edo illuntzeko gorrimiñaren lilluraz, Bidasoa itsastar irensugea dager mugako zubiari oiñarriak jaten, Adelaren irudimenetan. «¿Algo que declarar?» galdetu dautsoe mугan. Joan ala etorri dator? Atzerrira doa ala aberrira dator? «Endaian nago txoraturikan...» Trenak, jendea iruntziala, beste irensuge bat dirudi. «Kontrabandorik ez dakart, rien monsieur, no señor». Españian ala Frantzian nago? Euskerarik ez dantzut. Au lotsagarria!» Maletak idegitean, Adela dar-dar dago, dardarak salatzen dau. «Ez dakusue ia dana jantzi loiak direla?» «Bai, ala da, baiña orduan dardara orreik?» «Aruntzakoan bai, onuntzakoan ez, ezer be ez...» agin artean eta euskeraz aitortzen dau Adelak bere kolkorako, eta areago erraien arrenkuraz, fardeleko uskeritxoakaitik baiño. «Ez, ez dago emen ezer Frantzian dalako «perfume» gozo orrekin eta zer?» aurre dagitso mugazaiñari Adelak eta mugazaiñak «madame, s'il vous plait...» bibote-pean gorde dau susmo gaiztoa eta bekarkara begitzen dautso Adelari eta emakumeen azter-gelara bialtzen. «Okerreko txibatzen bat izan ete da» larritzen da Adela, atso lodi batek goitik beera begitu dautso, berokia kendu. Ai, abrigu beillegi malgua! Nork odoldu dau bere garbitasuna? Adela lotsari baten dago berokiaren atzeko aldean odolarrastotxoa ikustean. Ez daki frantzeraz zelan azaldu.

Izan be, frantzera laburtxo gelditu yakon ikasketetan, dirua ordaindu bear zelako eta ain goizetik Ikastolako ume txikerrenak bere premiñean egon zirelako. Adelak ez dakil, zelan burua garbitu, frantzeraz zelan esaten den «odol-jarioa, «illekoa» edo dena delako ostikadea. Zortzi ordutan trenean jesarrita egotearren, izango da. «Perdón, señorita; había sospecha de armas» aozabaldu dau azkenik atso lodiak, «ez, ez naz terrorista bat, ez naz iltzaillea» kontzientzia garbitzen dau Adelak, kontzientzia garbitu gura dau, erruak aizatu gura dauz, «zuek, zeuek, zaree terroristak, orrela iñor bildurtzen ibilteko» esan dau berokiaren azpitik, baiña aren odol-arrastotxoa zelan estaldu ez daki. «Euskeraz berbetan barruntauko ninduen eta, euskalduna nazela, eta, beste barik, susmo txarra... Bai, euskalduna naz eta euskalzale gaiñera. Eta ori uskeritzat badaukazue, entzuidazue auxe: zeuok zareela kultura gabekoak, atzeratuak eta terroristak, Euskalerrian egon eta emengo izkuntza ez dakizuelako. Zuen ustez, au Espiñia eta Frantziaren arteko muga da, baiña eusko-gogoarentzat ez dago mugarik. Au Euskalerria da...» kaletik, zubitik eta taxian, etxera-bidean, berokiaren petik, mundu guztia salatzen darrai Adelak, baiña berokiaren salapena ezin disimulaturik. Adelak indar guztiaz belauinak estutzen dauz, odol-jariotxoa eragoztearren. Jantzi errugabeak gura leukez, garbitasuna probatzeko. Mugazain aren jantziak bai orbanbageak! Aren armak bai bristatuak, egundo polboraz-edo kutsugabeak, iñortxoren odoletik garbiak... Bai zikiñak ostera Parisko Moloken jauparien eta jaupalemeen tresneria: artaziak, koi-larak, biorkak... «Nork zauritu zaitu, laztana? Mugatit ete zatoz? Tiro-otsa entzun dogu bart... Zeure kezak gengoan, bai...» Ai Poeta Samurrak onela ikusiko banindu! Zelako aapaldi negargarriak eratuko leukezan ostera bere:

«Begira nola datorren
erriko alaba kutana
atzerritik.

Begira nola dakarren
lutozko jantzi illuna
lokatzetik.
Begira bere negarren
malko busti ituna
masailletik.

Nor da, zer da bere pena?
Nork eri dautso biotza
ezpateaz?
Nork jaulki dautso edena,
gaiñezka ontzi mingotza
inbidiaz?
Ai gure alabarena!
Semearen eriotza
jasan bear!»

Adela zotinka dago, estarrrian apurtzen yakoz zotik eta begien legorte eskergak latzagoak egiten dautsoz ao-zapaian. Adela ia lotsa da bere euskaltasuna orren goitik aitortzeaz, pasaporteko bere abizenak orren arro erakusteaz. Ez dago, ez, orren garbi odol-jario aretatik. Zer esango leuke amak? «Ene Jesus!» Zer esango dautsoe andereño-lagunek? Zelan gainzurikatuko bere penak? «Paristik natorren artista bat naz ni...» adarra joko eutson Xabier zantzaillak, irribarre egingo azpitik Begoñatxok, Lutxik, Mirenek!

«Paristik atorren
artista bat az i?
Parisen ete don
umerik erosi?
Parisko errekan
eurea ito bai...»

III

—Emen «ebakuntza-osteko aulduran edo erdi barien odol-galtzean» esaten yok errezeta onek. Baiña onegaz zer aurreratzen yoagu? -Idoia gaisozaiñak begien pareraiño jasoten dau, makinaz jota dagoen, papela; une batez biotzean simikoa sentidu baileu, papela jatxi eta Xabier salatzen dau degiradaz.- Esaidak beingoz Adelaz zer jaso dan edo eta nor dan Adela operatu dauen medikua...

—Ez dago emen une onetan geure aukeran mediku ori, eta bere orde ezin geinkeo deitu edonori. Medikiak suminkorrek izaten dira, ez daue gura izaten beste iñori deitzerik -Xabier, Baillarako Ikastolen Batera-tzaille- Ordezkariekoak, burua goratu eta betazal-zirristuetatik begiratzen dautso Idoiari.- Gaiñera, edozein medikuri deitu ezker, Adela errudun joko leuke eta auzira eroan. Eta neuk dakit Adela arazo onetan errugabea dala...

—Ondo aitortu dok errua oraingoan, baiña garbi gelditzeko, ordaiña bete bearko dok -Idoia besoak gurutatu eta oiñak zabal jarkitzen yako Xabierri.- Odol-ekipoa, esan dauat!

—Euskaldun jatorriko geientxoanak, odolean ezezen hizkuntzan ere, rh+ baikorra gaituk, hizkuntza geure gogoaren odola baiduk. Ez dukala ulertzen? Nola ulertuko duk ba, Unamuno berak ere, esanaren esanaz, ez zian ulertzen eta! -Batxi, Baillarako Ikastolen Bate-

ratzaille Ordezkarriak, betaurrekoak kendu, leiarretako samartxaok eskuzapiaz garbitu, sudur gaiñean kokatu, bizar urtenak apaldu eta Xabierri begitu bearrez, leiotik begiratzeko dau.- Odolaren analisisa egiñik zegok. Ze analista bear diagu honez gero? Adela euskalduna baldin baduk, rh+ baikorra izan bear dik. Jatortasunaren esijentzia duk ori. Arrazista batzuk dituk gaiñerako rh— ezkorrak.

—Ba-ba... Jesukristoren Odola eta Jesukristoren Gorputza! Oraindiño andiangoak entzuteko be! Noiz arte jasan bear doguz sorginkeri oneik etxe onetan? -Ibon Gorria, Ikastolako gurasoetarikoa, tximist-urtika asi da, Maitane alabearen eskuetan «Kristau-Ikasbidea» testoa ikustean eta Jesusen izena aren aotik ain ezteki mingatzen entzutean, eskuetatik umeari liburua kendu, Alezne emaztearen aurrera joan eta salatzen dau.- Joan ziran, andretxo, fariseoen denporak. Orain barrutik garena agertzeko ordua da. Gurean ez da egingo jaunartze barririk. Besteei zor yaken errespeto guztiaz, baiña gurean originaltasun osoaz, esan dodanez.

—Ze kalte yagok orretan, gizona? Nik sinisten yoat gauza onetan, aspaldion meztara joan ez banauk bere -Alazne, Ibon Gorriaren emazteak «Kristau-Ikasbidea» liburua senarraren eskutik jaso, Maitane alaba altzoan babestu, eskuaz aren burua laztandu eta aurre dagitso senarrari.- Eta ze kalte yaukak ume batek gauza santuentan sinisteaz?

—Dana dala, itzi daigun gerorako azaro au. Gero, andi egin daitenean, orduan berak, alan uste badau, aukeratu dagiala. Baiña orain geure umea da eta edotariko siniskeritik zaindu bear dogu, askatasun-ordurako.

—Nik jaunartzea egin gura dot Ikastolako neure lagunekin -Maitane, irugarren maillako neskattoak, negar-anpoluen artetik, amaren eskuen artetik, eiagora jo dau etxeko sukaldean eta bere arrantzatan estaltzen dauz aitaren zaratak eta amaren oarrak.

—Orain umeak berak eskatzen dauskuna ukatzen badautsogu, ze askatasun gertatzen dautsogu gerorako? Gero berandu litzaken gaiñera.

—Eta ez nago kursoaren amaierari begira. Gauzok Urte Barria baiño leenago argitzen ez badira, ni Ikastolatik neure seme-alabak erretiratzeko noa -Mari Zubeldia, Ikastolako amaetarikoak, esku bat azalpenak egiten dautsoz Errose Zarateri.- Kontu egin, andereño orrek legez, beste batzuk (erlegiñoa erakustetik garbitzen badira, eta niretzako askoz loiago gelditzen dira) ordezko gure umiei zer erakustera elduko diren.

—Nik, egia esan, bestelaz ikasi nenduan. «Kristiñaua zara? Kristiñaua izatea zer da?» -Jesukristoren erakutsiak sinistu eta beraren otseintzara bearturik egotea da kristiñau izatea». Baiña ori buruz ikasteko gauza zonan.- Miren, Ikastolako zuzendari-ustekoak, zuzendari-ustekoak, irugarren maillako gelan, kortxokian agertzen diren, ikas-arloeri begira dago, Erlegiño-arloan Aita Markelen edo norbaiten lapurretak noraiñoakoak izan diren ebazten dauz.- Egia esan, nik ez yonat teologi askorik ikasi ordutik, baiña ik or agertu don frase ori ez yakiñat noraiñoako erejia izango zonan.

—Ba! Ez yaukanat bildurrik. Eta egin daisteela «auto de fe» bat, gura badaue. Kristautasuna, neure ustez, gizartearen eta kulturaren aurrerapidean ezpadago, nik zer den be ez yakiñak, orixe...- Sorne, irugarren maillako andereñoak, agintekerizko sarrada salatzen dau, eskuzapiaz sudurrak igortzen eta bide batez urduritasunak erioneko malkoren bat xukatzen.- Eta ezer okerririk baegon, neuri esan eikedan, azpikeriz ibilli bari. Eta gaiñera, nik leendik esanda daukat, ni ez noala, beintzat neuri erakutsi eusten modura, erlegiñorik erakusten.

—Neure dudatuak neunkazan leen. Mari, baiña arrazoia emoten dautzut, neuk neure alabegon susmatu dodan berbakeraz eta lotsa-falteaz Errose Zarate, Ikastolako amaetarikoa, aalik geien urreratu da Mari

Zubeldiaren belarrietara, norbaitek entzuteko bildurrez-
edo.- Ara, gure txikiaren oialak aldatzen nengotzun eta
ba yatorri sei urteko gure neskattoa, Jaione, eta gauza
bakoitza atzamarraz adieraziala, ez yatzu ba umearen
lotzagarririxoen izenak barra-barra esaten asi? Eta ze-
lako izenak atan be: «zakilla, barrabilla» eta nik dakit
zer geiago! Umea altzoan neunkala, egon ez banintzan,
ez dakit zer egingo ez neuntson momentuan.

—Sei urtekoa, esan dozu? -Mari Zubeldia, Ikas-
tolako amaetarikoak, atzamar adierazlea ezpaiñetan
daukala, apur bat oargabetu bailegon eta begirada ka-
learen luzeeran galdurik, iraun dau une batez; bein-
goan Errosegana biurtu, eskua aren bular gaiñean eza-
rri eta antzemon dau.- Ori Debora izango zan ziur. Oi
ene, andre lotsagalduagorik!

—Debora esan dozu? Izen raroa, ez ala? Bueno,
niri ez daust ardura gauzeri bere izenaz deitzea, baiña
euren adiñerako ez ete geuntseen geure umeei gauza
orrei be bere izentxoekin deitzen erakutsi? Zelan na-
gusiok erabilten doguzan izenak erakutsi dagoneko?

—Eleizaren argumentoak emakumeon arazo one-
tan matxistak ez balitzaz, aborto batek ez leukez eka-
rriko olako ondoreak -Sorne, irugarren maillako ande-
reñoak, indarrez jaurti dau maai-gaiñera medikutza al-
dizkaria eta «ovulación» eta «abstención periódica»
itzak aukeratzeko astirik gabe, ebazten dau.- Beste gau-
za bat izango litzaken, gauzok berton eta berez egingo
balitzaz.

—Ori da nik esaten dodana! Gauzak berton egin
eta bertoko erara! Ez kanpotik billatu medikutza, ez or-
tiko osagarriak erosi edo errezetak euskeratu, berton
sortu baiño. Ez kanpoko teorikuek kopiatu -Lutxi lau-
garren maillako andereñoak, esaldi bakoitzeko, zinki
eta minki, eskoia azkonak jaurtiten legez darabil Sor-
neren alderantz.- Bestelakoa da guk egin bear genduke-
na: geure medikuak, geure soziologoak aurreratu, geu-
re kultura eta geure euskalkia arrotu. Ez beti ortiko
intxaurren dundunera euki belarriak eta gogoa.

—Hik euskeraren guna esan duk, nik hareago,
euskararen gona esango diat. Ortografia duk hizkun-
tzaren gona, beraz euskararen moda eta janzkera aldatu
beharra zegok. Eta euskararen gonatariko bat, edo ha-
ren amantala, nai baduzute, h-atxea da. H-atxeak, hala-
ko emetasun ugarikor batez, halako aldakortasunez, az-
karri bereziz arrotzen du euskara -Batxi, Baillarako
Ikastolen Bateratzaille-Ordezkarriak, gero eta biribil an-
diagoak egiten dauz eskuketaz, itzen ingurua eta sako-
na, ikuseziñak diren ideak, begietan nabarmentzeko,
edo soin bako bulkoak soñnekoz janzteko.- Horrela,
esate baterako, «erri» hitzari, erre-usaiña kentzeko,
h-atxeaz «herri» jator osatzen dugu; horrela «itza»,
aize iralgia, «hitza», idea biurtzen; halaber, «arri»,
umeek txakurrei jaurtitzeko erabili oi duten iskilua,
«harri» oiñarrizkoa egokitzen geure etxegintzarako, edo
eta «biotza» birjinen lore antzu izatetik, «bihotza», sa-
gar eldu (maitasunezko sagar eldua, esan nahi dut) bi-
hurtzen dugu...

—Nere ustez, euskerak ainbeste ikurrin eta h-atxe
barik, beste erremedio batzuk bear dauz: idazleak, tes-
toak, irakurgaiak etakar... Begoña, leen maillako an-
dereñoak, eskua eta abotsa jaso dauzanean, txutxu-pu-
txua edatu da andereño-lagunen artean, aldeko eta kon-
trako, Begoña arritu egin da bere andanaz eta ibitu egin
yakoz aserako ausardiak.- Nik gauzak erresteko, esan
yonat...

—Bai, andereño, zurekin nago ni horretan eta bes-
te gauza askotan. Lehendik ere esana duk, ez naizela
ikurrin-zale, baiña aberri bat edo hizkuntza bat bene-
tan maitatzen denean, ez da sapuzten ikurriña, haren
koloreak gure begi-begiko ez direlkoz; hau da, ez dira
sapuzten osakaiak, garratzak direlako.

—Ni Adelaren gaisozaiña naz; Xabierrek-eta kon-
tratau naue aste beterako. Nik ez nenkian Adelarena
eta ezer gitxi egin neinke eurek ipiten daustezan kon-
diziñoetan. Agaitik zeuekana bialdu nau Adelak berak
-andereñoen ostatuan, afal ostean, Idoia gaisozaiñaren

eskuak eta itzak eskariz dabiz, zigarro baten keak, opari ezbaikor, erantzuten dautso, andereñoak zurtu, maaian jesarrita, kalean berebillen zurrumurrua, Idoiak banan-banan begiratzen dautse.- Adelak odola bear dau eta gauza isillean egin bear dala, esan daust Xabierrek. Adelak bere amagaz egotea gura dau, ez da karta bat egiteko. Nork abisauko dautso bere amari? Oso garrantzitsua da beretzat amagaz egotea. Eta nortzuk prestaten zaree odol-ekipoa etorri daitenean, Adelari emoteko?

—«Nere begiak gau eta egun urtzen doaz, erriko alaba gaztearen lorraldiaz» -Aita Markel, Ikastolako leendakari berezia, Jeremiasena abesten diardu koruan, begiko pisteak kentzean, itzen batek, irudien batek iratzartu dau eta esaldia berrikusten.- «Zauri larriaz eraso, zauritu datza apaldua».

—«Zelairaz gero, ezpataz illak dakusadaz, uriraz gero, gosekillak» -Aita Jose Luis, Ikastolako musika-arduradunak arrauzi egin dau, ezin ezkutatu izan dau esku-ostean, ezpainen mingaiñez labandu dauz.- «Bakearen zain gengoan, baiña ez da aterri, osasun orde, burruka dogu zirikari».

—Beti alperriko eztabaidetan, ez dogu bat be aurreratzen. Geu, Batzordekoak, bat ez bagatoz, zelan erabagi Ikastolako arazoa? -Txomin Beitia, Gurasoen Batzordekoari, koloreak igon dautsoe arpegira, noizbait berba egiteko ordua etorri yakonean, ia begiak jasotzen be ez da ausartzen.- Agaitik, neure ustez, auxe da egin bear genduna, Batzarre Orokorra deitu...

—Batzarre Orokorra deitu Kursoaren erdian? -Mikel Goitia, Gurasoen Batzordekoa, akulua sartu baleutsoe ez ariñago, maaitik jagi eta eskuketa biziaz goibeeak astintzen eta begirada zurtuaz galdetzen dau.- Ba dakizue ze desprestijio litzaken Ikastolarentzako? Zelako esa-mesak lekarkezan? Gaiñera ez dot uste legala danik, Kursoaren erdian olako batzarrerik egitea...

—Eta zergaitik ez! Batzarra Orokorra deitu, esan dodanez, eta Batzarrak berak erabagi dagiala, guk orain

eta emen ezin doguna: ze linea edo jokera artu bear dauen gure Ikastolak.

—Proletargoen ala burgesen linea, orixe!

—Ikastolaren arazoa euskera da...

—Baiña ze euskera gero? Batua ala bestea?

—Esan dautzut leen be, ezin gaitekezela gu emen orrela alkar ulertu.

—Eta zergaitik ez? Atarakoxe gagoz emen, ez ala? Alkarrizketa zabal batez, daroagun martxeari estrepuzurik ipiñi barik, aurrera bide egiteko, atan be.

—Julen eta nire artean muga ori bitartetu zanetik, agur gu elkar-ikuste edo elkarri idaztea. Ez eta pentsa ere. Leengo eskutitzak ere erre bear izan ditut. Eta gero nondik asma Julenenganako zuzenbidea. Ez eta nun bizi den ere, Eta jakinarren ere, poliziek eskutitzen susmotan ibilko litzakezan -Pili, Aurre-Eskolako andereño bariak, bere bakardadearen kantagaia itz lauz azaltzen dau eguzkitara, urrutik darabil begirada, Oleagako egoaldek agiri diren atxetatik zear, andik ona eta emendik ara, barrero ere kantagaia asteko.- Nik maite zumat Julen eta ustez berak ere ni, baiña alako egun batez ez unan geiako azaldu eta... Gero rekisitoria bat agertu unan izparringian. Burruka armatua aukeratu zuenaren seiñalea, esan zidatenez. Uste dun onela gure maitasunak iraun dezakela?...

Oleagan, azillak 24, 1972an.

Aita Markel Zubeltzuk Mikel Goitiari

Agur adizkide: Irakurri dot zure eta guraso-talde baten izenean bialtzen daustazuzan oarrak. Egia esan, ez dot ezagutzen talde orren zabalera eta funtzezko eritziak, erlegiñoan, esate baterako. Alan eta be ez nauzue gitxi arritzen, arazo onetan artzen dozuen jokereaz. Izan be ez dakik noiz Eleizaren ooretan itz egiten daustazun eta noiz guraso-talde orren izenean.

Edozelan be gauza batzuk argi gelditzen dira. Bat: erlegiñoan askatasuna salbau bear dala. Gizaki askatuak bakarrik emon daikeo Jaungoikoari erantzun egokia. Askatasun onek, iñor ez beartzea edo oztopatzea eskatzen dausku; alkarren errespetoz gauzak argiro azaldu eta bakoitza, persona edo erakunde, diran legez onartu. Agaitik arazoan asko sakondu barik, aunexek dira nere eritziak:

1) Lenengo: Ez daukagu sinismenik ez daukan andereño edo maisurik erlegiñoa erakusten beartzeko asmorik. Ori fede-eziketaren aurka joatea litzake. Onetan andereño bakoitzak ikusi bear ko, Ikastolaren eskakizunak betetzeko daukazan eratasunak.

2) Bigarren: eleizgizonok aal dogun laguntza opa dautsogu Ikastolari, bai etxegintzaren aldetik, bai kulturaren aldetik. Baiña Ikastolako arazoa danena danez (eta erlegiño-eziketa eurretan) guk ezin geinke geure kontura onartu.

3) Irugarren: Gure Ikastola-erakundeak, artu aal leikezan aukerabideak artzeko, prest gengokez, edozelan be geure izatetik, izatasunetik, ez aldatzekotan. Izatetik aldentzea, egizu, erakundearen eriotza dala. Orduan beste gauza bat, beste erakunde bat, izango litzakela, esan gura dot.

Ori dala eta, oar:

Bat: Ikastolaren izena da gitxiena. «Parrokiko Ikastola» deitzen da paperetan, naiz eta parrokitik at ere

zabaldu bere betekizuna. Paperak aldatu leikez, (izena adatu leikela, esan gura dot), erriak «Olabideko Ikastoa» deitzen dautso. Onetan kontu, *izana* dala aldatu eziña. Eta gure Ikastolako izatasuna onetantxe da: eziketara orokorra euskalduntasunean eta kristautasunean. Ezin geinke muzkildu geure giza-ezikuntza, ez itzungi egia billatzeko daukagun argia.

Bi: Gure Ikastolako eginkizunetariko bat, katolikuen dotriña erakustea da eta dotriña onetan Ikastolako umeak maillaka-maillaka ezitea. Orretarako gurasoen laguntza bearrezkoa dogu. Gurasoen batek edo jokera au onartzen ez badau, erlegiño orduetatik jaregin dagike bere umea.

Iru: Euskal Meza erri-maillan, erri-kultura legez agertzen den oikuna da. Alako Meza-ospakizunetik Ikastola aldentzea, kristau-fedetik ezeze, euskal-kultura orokorretik moztea litzake. Baiña ori dala eta, mezataraz ezin lei iñor beartu; borondatezko gauza da eta. Erakundea laguntzeko dago, ez beartzeko.

Lau: Eleizaren zeregiña, Apostoluena legez, danentzat dana egitea da, danak Kristogana eroateko. Ebangelioan ezeze «erakutsi errialde guztiei» (Mat. 29, 19-20). Batikano IIgo. Agirietan (Erlegiño-Askatasuna, 14) argi agertzen da Eleizaren jokera. Gure Ikastola inguruan dabiltzan gurasoek ondo jakin bear daue, Eleiza ez datorrela erbi ordeztatu sartzen. Besteenganako errespeto guztiak ez dau esan gura, geure eziketa-eginkizuna zebarkeriz edo beste edozein aitzakiz itziko dogula, edo itzi daikegunik.

Asmō bardiñak zeuri Kristogan opaz, guraso-talde orri gure eta Eleizaren jokabide au adierazteko, eskatzen dautzut biotzez. Zure adizkide eta serbitzari

Aita Markel Zubeltzu

IKASTOLA ERRIKOIA ZER DAN

(Guraso erri-zaleen agiria, gazteleratik euskeratua)

Ikastolako gure seme-alaben eziketa orokorra go-goan dogula, eta aldi barrien ordu onetan seme-alabon gogozko eta kulturazko askatasunak arduratzen gaituela, Ikastola erri-zaleko guraso eta ezitzailleak kualitate eta baldintza bereziak ikusi gura gendukez era eta erakundeetan, eziketa betiko bide itzi eta itxuetatik beingoz askatzeko. Errien aurrerapideak, erriaren askatasun eta gure semeek eskatzen dauskuena, puntu aunetan agertzen dogu:

1) Ikastola errikoia:

Ikastola errikoia bear dogu (ez minoria baten gordeleku) erriko seme-alaba guztiak ikastolarako eskubide eta aukera bardiñak euki dagiezan. Atarako, bakoitzak bere arloan, danak parte artuko daue Ikastolako erakundean: gurasoek, irakasleak eta, adin bateraz gero, ikasleek eurak.

Agaitik bearrezko eristen dogu, Ikastolako ekonomia Estaduaren edo Aldundegiaren pentsura ordaindua egon bear dauela, kapitalismoaren babeskerian jausi barik, erriko gizarte-mailla guztien serbitzari izan daiten.

2) Ikastola sozial-zalea:

Guk itxaro dogun Ikastola sozialismoan finkatzen da. Edotariko beste Ikastolek ez daue proletargoaren

interesik aldeztzen; burgeseriaren onurakoa izaten da. Eta gauza jakiña da, burgeseriaren onerako dana, ez dela langillearen onerako. Dirua agintari den aberatsen ikastoletan gure umeak ezitea, gizarte askatu eta aurrerapiderako ezi bearrez, burgeseriaren opillak gizentzeko, aren morroi geldituko litzakez.

Gure ikaslegoaren kontzientzia, erriaren eskabideetan oiñaritzen denez, jauntxoek eta betiko faksisten atzaparrak salatzen bildurrik ez dauka. Eta gauza nabaria da, eskuin-muturreko jauntxoek, Ikastola jaki gozua usnatu dauela, euren aaltsutasunari urte luzeak opa aal izateko. Eziketa gogor baten zaleak dira eta Eleizarekin bat egin gura daue, geure konkistak lardaskaltzeko.

3) Ikastola laikoa:

Guk nai dogun Ikastola laikoa da. Gauza bat da beraz, irakasle eta andereñoi dagokiena eta beste bat eleizgizonen zeregiña; gauza bat kulturagintza eta beste bat erlegiñoiko ideetan dotriñatzea. Dotriña ori eskola-orduetatik aparte emon bearra dago, erlegiño bereziek eta ideologiek oportunitade bardiña euki aal dagien. Ezikuntzaren aurka dago bestalde, andereñoek, eurek onesten ez auen erlegiñoan, umeak eskolaraztea, fedea bizi egin bear delako eta ez edozein asinatura legez irakatsi. Agaitik, eta fedearen dinamikari bestelako bere unea garbiago opatzearen, Ikastolako laikoa eskatzen dogu.

Ziñez uste dogu, Ikastolako umeen adiña ez dela, fede-konpromisoak artzeko, naiko eldua; beraz, ezelako bereizkizun gabe, denak artalde baten bezela sartzea, ez dela zillegi. Guraso bakoitza gero be libre gelditzen da, Ikastolatik at, bere umeak, ondoen eristen dauen dotriñan, eskolatzeko eta eziteko.

4) Ikastola ezitzaillea:

Umearen eziketak orokorra izan bear dau, ez alderdi batetik jantzia, burutik oiñetara baiño. Agaitik eskola zientifikua eta arrazoibidekoa gura dogu. Umea ezitzean, bere inguruko eskakizunak begiratu bear dira

eta orduan bakarrik oiñarritzen da eziketa erriko errealidadean. Batzuren ustez, naiko litzake, teknika barri batez, legezkoa erakustea, umeak bizi dauen inguruari begitu barik eta erriaren bearrizanei jara egin gabe, euren interesetan gogoia daukeelako. Au da: Ikastola famatua euki eta eziketa konpondua emon. Guk eziketa askatzaillea eskatzen dogu.

5) Ikastola bateratua:

Oleagan eta beste toki batzuetan ikusten doguna, ezin daikegu onartu: Ikastola bakoitzak bere kooperatiba itzia egin gura dau, interes partikularren famili bat bailitzan. Ori da Ikastolak alkarren arrenkuraz bantzeko erarik onena. Ba gara ala ez gara geure erria kulturaz eta gizabidez askatzeko? Agaitik Baillara bakoitzeko eta Eskualde bakoitzeko Ikastolak ikasketa programatu eta bardinduekin bateratu bear litzakez, testok erreago eta merkeago lortu aal izateko, teknika barriak aztertu eta komunikatu aal izateko, ezikuntza liberatzailearen aurrerapiderako eta Agintaritzari indarrez, batasunaz, geure eskakizunak egin aal izateko.

6) Euskera batua:

Leengo puntuaz bat etorri-arren, aparte aztertu nai dogu, gai onek daukan inportantziagaitik. Edonork daki gaur egunean, izkuntza bakarra kanpora adi prestijioa dela eta barrura adi, lokarri sendoa, testogintzari begira, esate baterako. Baiña gure postura iñork alderdikeritzat jo ez dagian, or daukagu Euskaltzaindiaren maisutasuna eta autoridadea. Berak erabagiak baiño ez doguz egizatzen eta onartzen eta geureak egiten, guk nai dogun Ikastolarako: euskera batua.

Beronen garrantzia askoz argiago ikusiko dogu, aren bentajak banaka-banaka aztertzen badoguz:

a) Praktikotasunaren alde: Gure umeek mailla bardinduan aurreratuko leukee, ango eta emengo euskalkia bardinduz, Euskalerriko alderdi bietako umeak (oporraldian, esate baterako) alkarrekin ulertzeko eran, euskaldunduz.

b) Ekonomiaren alde: Edozertan legez, batasunean dago indarra. Gure ekonomia aula da berez, eta testo ezbardinñetan bagara, burua jaso eziñik ibilliko gara. Baiña testo bardinñaz, liburu eta fitxa merkeak atera geinkez, edozeiñen aukerarako.

c) Batasunaren alde: Ona emen gure eslogana: «Euskalerrri bat, izkuntza bat-batua». Lokalismoen itzi-keratik urten bein betiko eta ikuspide unibertsalago batez, euskaldunok, iñoiz ez alako batasuna, lortuko genduke etxe barruan eta iñoizko prestijioa kanpora adi: izkuntza bakarra daukeen lurraldeak bakarrik merezi izan daue politikaren itzala. Sekuletako tribalismuek ostera, zatikatu egingo gindukez barrutik eta bear dogun kultura-izkuntza bateri atea itzi.

Onek dira gu, Ikastolako guraso erri-zale eta irakasleok, aztertu eta ontzat artzen doguzan bideak eta denen argitasunerako, Oleagako erriari eta gure Ikastola maite dauen guztiei, agiri onetaz opa dautseguzanak, ontzat artuko dauezen itxaropenaz. (Firmak darraie).

Ikastolako guraso erri-zaleen taldeak
Oleagan, abenduak 5, 1972an.

ALEA, OLOA ETA ELHEA

«Alea jacta est...»

(Izen gabeko bertso-paperak)

Errepika:

Alea erein da
euskera-soluan,
kultura ehio da
herriko boluan.

Erderari jela,
euskarari bela;
apostu egin da
zeiñena txapela.

Errepika: Alea erein da...

Saietan zur, gero
hurunetan ero:
jarraiko du horrela
beti arto bero.

Errepika: Alea erein da...

Bat, batua doa,
bi, bilinguismoa:

ugari da aletan
herriko soloa.

Errepika: Alea erein da...

Elhe biko hilko,
heltzen ez den piko;
beharko dauz ohean
hamaika mediko.

Errepika: Alea erein da...

Amaren loreak,
euskara elheak,
Ikastolan emon dauz
lehengo aleak.

Errepika: Alea erein da...

ADELAREN BIGARREN IKUSKIZUNA

(1973an, Urte Barri gauean)

Eguzki zoragarriak urten dau azkenik Oleagan aspaldiko partez eta Ikastolako umeak leiotik zeru-zatiar² begira gelditu dira; urduri dabiz, alkarrri zirritxoak egiñaz. «Zer jasoten yatzue, umeok» oar egin dautse Lutxik laugarrengoen ikasgelan, «zer egingo dogu? Gerizpe gogaitgarri onetan jarrai, ala mendiko Ikastolara urten» opa dautse Sornek irugarren maillakoei, «mendir! Mendira» zaratak entzun dira Aurre-Eskola txikerrenen klasean. «Zeuek irabasten dozue» amor emon dautse Sornek, «zeuri lagunduz eta laguntzearren goaz» agindu dautse Sornek eta Xabierrek Adelari. Adalak Sabintxo eta Jaionetxu eskutik artu eta, beste dozena bi pospolin atzetik daraitseela, eleizako plazatik zear, kontura andiz igaro daue kalea eta maldan gora-gora doaz mendira. Sorne ta bereak aurretik joakez, Xabierren boskarrengoak atzetik. Sabintxo et Jaionetxu nekatu egiten dira bakarrik ibilten, Adalak eskua emon ezik. Xabierren taldeko zankarroak ia mendi bizkarrera eldu direla, Adelaren taldeko erbaltxoak mendi-magaletik doaz, areik indioetara jolasten, oneik pinpilinpauxetara. Bien artean Sornerenak doaz txorietara jolasten, egoak zabalik eta kantari:

«Orkatzaren oiñatza
bisontearena;

arkaitzaren eskuatza,
gizonttoarena;
oiñestuaren lorratza
lena-lena-lena...»

Xabierrek esku bat az bat geziak jaurtitzeko seiñalea emon dautse arkudunei eta besteaz keiñuak dagitsoz Adelari, pixka bat aurreratu daiten. Adela umetxoan pauso astiroan dator. Iziartxok, malkorrean jausi, eta pupu egin dau, «etorri, laztana, neuk osatuko dautsuteta» mosuak damotsoz Adalak Iziartxori urratu-unean, eskutxoan, eta abiadaren martxa ostera ere atzeratu egin da. Bosgarren maillako indioek orduan, euren makillazaldietan, atzerengoei paseak emoten asi dira. Zaldia daroe iztarkilo, egurrezko arkuak ezkerrean eta zirizko geziak eskuman eta plastikozko aizto gorriak gerrikoe-tan. Luma koloretsudun Gran Jefearen inguru biribilkatzen dira, sarradak egiteko aginduaren begira. Gaiztotxoena ukua eta zemaika, sugelindaren buztenak erakutsiaz, pospoliñeak bildurtzen dabiz. Adalak bere beso biekin bereak gorderik, alde egiteko diñotse gaizkilleei. Xabierrek terroristen burua atzilotzeko agin du dau. Gerriko ugela askatu eta beragaz atzetik lotu dautsoez besoak. Gaizkille-buruak miñña atereka, lapur madarikatuaren ganora artzen dau, oiñak arrastaka eta burua alde batera boteaz. Ertzain aukeratu biak arma artean daroe. Bosgarren maillako barrabasena da gaizkillea, antzerkirako berebizikoa, Burgosko arako auzian, erabat apailariarena eta epaituarena egiten euana. «Arpera eltzen gareneko, juizioa egingo dautsogu eta meza ostein fusilatuko» agindu dautse Xabierrek, «meza ostein edo antzerki ostein». Arpera zuzendu dira. Arpea edo Axpea mendiko Ikastola da, mendiko Antzerkia eta mendiko Eleizea. Arri bat dago erdian maaitzat eta arri-txoak inguru-minguru jarlekutzat. Sornek arri gaiñean itzi dau liburua. «Eldu zaree danok» Sornek inguruan begitu, liburua jaso, idegi eta antzerkiaren guna azaldu dau, aurkezlarien arrandiaz:

«Hemen da harria,
hemen herria;
hor, hi, berriz,
jainko-materia...».

Sornek berea amaitu daueneko, irugarren maillako neskattoak kate-dantza eratu daue arri-maiaren inguru, egaletatik koruak «Orkatzaren oiñatza» txikerren txalopintxoekin, abesten dauela. Orduan neskatto batek, bidean txortaturiko loreak arri gaiñean izten dauz, Sornek bertso-liburutik zutunik darrai:

«Loreak erosteko dirurik ez,
baiña bai ederra maite-ames!
Nork jarri dauz loreok
herri-alderean?
— Neuk txortatu dodaz, neuk,
hor beheko larrean.
— Oi! Ze zuri-gorri, ze
usaintsu direan!».

Xabierrek loreak artu eta Adelari eskeintzen dau-tsoz, Adelak loreak usnatu eta Xabierren belarrira isilekoben bat esaten dau, «que se besen los novios! Que se besen los novios» aldarrikatzen daue bosgarrenengo maillakoek, Sornek euskeraz esateko diñotse, Xabier, okotza eta musuak luzatuz, Adelagana doa, Adelak orduan eleizaz eskondu gura dauela, esan dautso Xabierri. Sornek beingoan ote-punta bat iñautsi, potxingoan ures-tatu, bertso-liburua idegi eta jaupaleme ganoraz Xabierri eta Adelari begiratzen dautse:

«Ezkontza ete?
Eleizaz bete.
Kulorun amen.
Zipristi, zaprasta,
ze Kristo
ikusten da emen».

Sornek ixipuz zipristintzen dauz, otoitzak esanala. Adelak esku biekin arpegia gorde dau ur-tantoetatik, Xabier barreari eusten dago, agiñak beeko ezpañari oskatzen dautsoela. Sabintxoren angeruak esku batetik eta Jaionetxorenak besterik eltzen dautsoe Adelari. Mutiko bik bedar igarrak eta abartxoak pillatu dauez arri gaiñean, Xabierrek kiskeroa iziotu dau eta azpitik bedar igarrari sua emon dautso, Sornek bertso-liburutik aiñenka diarduela:

«Zapoak eta sugelindarak
sutan erre!
Sorgiñak eta begizko denak
sutan erre!
Sorginkeriak eta siniskeriak
sutan erre!».

Sugelindara errena, etsipenezko irabiotan, jainkoari burlaka, erretzen da eta sugelindara buztenak zurrun eta kiskaldu gelditzen dira. Bosgarrenengo eskuak txaloka dagoz, Irugarrenengoak abeska, Eskola-Aurreko angeruak ez baitan, ez txalo eta ez kanta, ritoari begira, nausien arpegiari galdezka. Jaionetxu, eskutxoan pupua daukan angerua, negarrez asi da, beste angeru batzuk darraitse, barre eta negarrezko alako oikunean. Adelak begiekin asarre dagitso Xabierri, umeak ikaritzen diardulako. Orduan Xabierrek arri-gaiñeko autsak astindu eta arri-gaiñera igon dau. Begi anditu, ingurura begitzen dau, estultxoak dagiz, «entzule maiteok! Barre egin zeinkee zenbat gura, baiña negarrik ez mesede! Ez, ene laztantxuok. Bada teatro barregarria egin gura izan dogu eta ez iñolaz negargarria» Xabierren eskuak bular gaiñean erreguz alkartzen dira, begiak zuritan zeruan ipinten dauz eta itzaldi-antzteko abots ozenduaz jarraitzen: «Entzun dozue» Dominus Vobiscum. Et cum Spiritu tuo» esaten. Nik geiago esaten dautzuet. Emendik aurrera ez dogula iñor inpernuko sutara bialduko, ementxe sutan erre doguzelako deabru guztiak. Baiña baten batek alako ume txikiak, gure Es-

kola-Aurreko neka-muttikoak, molestutzen badabil, tasta egingo dautsogu eperdi-eperdian. Eta armadun topetan badoguz barriz, a zelako juizioa! Juizio partikularra egingo dautsogu! Or daukagu bat ondo lotu. Ez itzi orri alde egiten. Datorrela, lapur gaizkille ori batzarraren aurrera. Jarri daitela or! Zer egiten oratu dautsogu? Geure txikitxo laztanak molestutzen, ain zuzen! Zer merezi dau? Eriotza? Ba eriotzera kondenatua izango da...». Bosgarrengoak batez ere, eriotza eskatu daue, Irugarrengoak ez baitan gelditu dira une batez, jokoa jarraitzen ez dakiela, itsusitu egin dautsee aurrekoek eta orduan baietz, eriotza eskatu daue. Ibon Atutxa, Bosgarren maillakoari esku-zapia ezarri dautsoe begietatik, arpetik lau metro inguru kanpora atera daue mutiko biren artean, zutunik dago, eskuak atzeko aldean kokatu eta burua dindinlizka bular gainean. Arkudunak lau prestatu dira, geziak aukeratu dauez eta arkuak tinkatu. Xabier erdibide dago eskoia gora, eskoia beera, tiro-otsa jo dau, arkuak urtiki dira eta Ibon Atutxa, Ikastolan Bosgarren maillakoa, lurrera jausi da. A izan da txikien dardara! Sabintxo, Jaionetxo, Iziartxo eta beste txikien angeruak Adelaren gonetan gorde dira. Adelari alde gutietatik bultzaka dagoz, erraiek gora egin dautsoe, bere barruko kuskoari azken juizio etorri yakola, usten izan dau, arako Poetarena oroitzean:

«Fusilamendua da azken-aurrea,
iltaurrea barriz, haurren azkena».

Adelak ez dauka begietan indarririk, Xabierri agirika egiteko, «esaiguk azkenik ze joku darabilkan. Ze gadora dok ori? Jokua benetan eta beneta jokuan artzen ete dok? Ezkontza gauza serioa dok...». Adelak beste liburuko aiñenak gogoratzen dauz, umeak bildurtzen, edo umeak oztoparitzen diarduenen kontra esanak.

IV

—Zenbat odol bearoko yon ba Adelak, emotean danok prest egon bear badogu? -Begoña, leen maillakoen andereñoa larritu egin da, Lutxik indiziño orratzaren luzeera aipatu dautsonean, burua aztatu dau lillura uxatzeko, zangoak daldal egin dautsoe, jesarri egin da, aldi txarrak artu baileu.- Ai ene! Esan nendun nik...!

—Zer? Egiña, eginda yagon, neska. Orain Adela salbau bear yonagu. Ez yautsonagu txori bat legez ilten itziko. Odol-emoteak gainera ez yon indiziño batek baiño min geiago egiten -Lutxi, laugarren maillako andereñoak, jertsea erantzi, atorraren mangea gora jaso, besagaiña estutu eta zain lodiena nabarmentzen diardu.- Ikusten don? Emendixek. Ez don iñoiz zaiñetako indiziñorik artu ala? Ba, artu orde, emotea baiño ez don. Ez don begia edo untzurrun bat emotea legez. Neuri be orrek bildur emongo leuskit. Baiña odola? Eta odola zuzenean eta bero-beroan ainbat obe izango don, nere ustez, oditxo batetik komunikatzen dala geure besoetatik Adelaren besoetara. Odola laster sortzen don barriro be...

—Bai eta galdu...

—Ez uste, arazo ori orren sinplea danik... Neu be odola emoteko prest nengoke, Xabierrek-eta ala erabagitzen badaue, baiña gaisozain ori bere kontura eta iñori ezar esan gabe etorri da. Or mendikua falta da

-Sorne, irugarren maillako andereñoak, zigarro-kearen gandua edatu dau, irakurten egon dan aldizkari apaññaren gaiñetik, aldizkaria itzi eta oar bat egiteko presatu da.- Guri ez dagokigu ezelan be aurreratzea...

—Eta medikurik ez badago?

—Eta beste orrein erabagiari begira egon bear dogula, diñon? Gu ez gozan iñor olakoetan erabagirik artzeko ala?

—Ba! Ondo gengokez edozergaitik, bakoitza bere gustoa egiten asiko bagintzaz, batzarrari jaramon gabe, bata Adelaren amari deika, bestea odola eskeinka, iñoritia emotea baizen erreza bailitz...

—Ez endunan ori esaten, Olabeko andereñoen bizibidea aldaztu bear gendula, esaten endunean. Orduan eu intzan erabagi artzaille. Eta orain zer? Emen andereño batzuren bizibidea ezeze, andereño baten bizia dago jokuan.

—Ez nintsonan ni izan erabagi-artzaille. Batzarra izan zonan orduan be. Eta orain be bardin, erabagi orren begira ñagon eta neu izango non orduan lenengo Adelari odola emoten. Fama galanta egin euskue nan arakoan eskuin-muturrekoak, orain ostera be Adelaren odol-arrastoen jakitun ipinteko...

—Bai, egon adi, gure andereñoak baserriko alaba iñosenteak direlakoan. Ez deunat danekaitik esaten, baiña gogoratu egin, alabatxo, arakoa «baserritik kalera, iñosentziaren galera» eta orixe -Mari Zubeldiak, Ikastolako amaetarikoak, sagar elduenak aukeratzen dauz merkatuan, eta sagar ustelen eta zindoen ipuiña burutik darabillearik, Kontze, Teillaetxearen emaztea, eskolatzen dau.- Nik ez dakit ze begi daukeen frailleok, olako andereñoei ateak ez izteko. Iñosentiak bai eurak.

—Esate baterako, zer dala eta joan bear daue Ikastolako umeak, talde bezela, korporaziñoan, mezatarata? Gurasoek eunetik larogetemeretzi katoliku suertatu direlako? Eta berrogeitamar bakarrik balitzaz, zer? Mikel Goitia, Gurasoen Juntako Ordezkaria, kontu

andiz atera dau karpetatik firmen agiria eta Peli Teillaetxe, Ikastolako gurasoetarikoen arpegi aurrean dizdiz darabil begitartea.- Ni konforme nengoke, katoliko pratikante nazen aldetik, baiña zoritxarrez, gure Euskalerrian pentsakera askotako jendea ikusten dogu.

—Bai, bai; bakotxari berea -Peli Teillaetxe, Ikastolako gurasoetarikoak bere matrailleko bizarraren latza aztatzen dau, atzera pauso dagi patxara egokia artzeko, edo aurreko begien ezpillutik apur bat aldentzearren, betondoa ixurtu dau.- Ez ba; iñor ezin lei beartu... Gura dauenek bakarrik doazela mezatarata, gura ez dauenek, ez daukee zertan joanik.

—Orain, umeok, danok zutunik, Jesusek liburu santuan esan dauskuna eta abadeak azaldu dauskuna, baieztuko dogu; bere esana egiteko prest gogozela, esango dautsogu Jesusi. Artu egizue paperok eta abestu daigun «Jesusen esanari zuur belarria», laugarren abestia -Aita Jose Luis, Ikastolako musika-arduraduna, esku biak gora jaso eta kantuari sarrera emoten dautso, meza laguntzen, eta Ikastolako umeek tripleen zolitasunez, eleiza eskariz eta otoitzez betetzen daue.

—Mezea zer dan azalduko dautzuet... Euskalerrian leenago sorginkeri asko egon (eta orain be bat baiño geiago gelditzen da). Sorginkeria ez jakiñaren ondorena da. Sorginkeria edo aztikeria erri atzeratuen rekursoa da. Badakizue aztiak edo brujoek, erri atzeratuen abadeek, zelako latiñak eta gurutzeak dagiezan gaitzen bat edo aldentzeko, gaisoak osatzeko. Izadiko indarren sorburuak gurako leukeez gaueko amesetan legez, euren eskuetara erakarri eta euren gogora banatzeko. Baiña eziñean, ames utsean gelditzen dira. Erri aurreratuek osterata, jakintzaz lortzen dauetz gaitzak aldentzea, gaisoak osatzea, gosea kentzea etabar.- -Sorne, irugarren maillako andereñoak, ke-boladatxoetan jaurtiten dauz irakaskizunak, umeak adi-adi daukaz, sorgin-ipuiña noiz asiko, Sorne jarlekutik zutundu eta eskumako atzamarrak gora daroez, sorgiñen bateri tximatatik eltzen bailioa.- Geuk jakintzaz aldendu bear do-

guz sorginkeri guztiak Euskalerritik. Beraz, emendik eurrera, agin barria eskatzeko, ez dozu, antxiña legez, agin zaarra teillatura jaurti bearrik, aginzaiñagana joan baiño. Bardin, buruko miña daukazunean, ez dozu arako edo bestelako ermitako kanpaeak jo bearrik, edo oin-biurritu bat daukazula eta, zaintiratu bat egin, medikuagana joan baiño. Eta bardin, amaren osasuna eskatu gura dozunean, edo azterketetan onik urten, ez dozu meza bat entzun bearrik...

—Mezea sorginkeria da, andereño? -Maitane, Ibon Gorriaren alabatxoak, eskua jaso dau aurreneko ikasmaai lerrotik, beste neska-motikoak berari begira gelditu dira.

—Bueno, ba dagoz meza zuri eta baltzak, sorginkeri zuri eta sorginkeri baltzak dagozanez...

—Gure parroikiko abadeak kapa gorriaz be esaten dau meza -Alazne, Maitanaren laguntxoak, erri-maillara erakarri dau irakaskintza.

—Eta arpean egin genduna benetako meza izan zan, andereño?

—Bueno, kolore askotako mezak esan dautzuet: gorriak, baltzak, zuriak, orlegiak. Leen be esan dautzuet sorginkeri asko dagoela Euskalerrian, baiña jakintzaz dana superatu bear dogula.

—Zeure iragarritz, gure Poeta Andiari, agindu geuntsozan itz bizkorgarriak berandutu egin dira eta zer egingo? Ez ete dago beste bertsolari edo olerkaririk, inspiraziñoa gertuago leukeanik, Adelaren gogo auldua bizkortu dagian? -Xabier, Baillarako Ikastolen Bateratzaille-Ordezkariekoak, dardaraz daukaz esku biak begien parean, morroiak ugazaba zorrotzaren aurrean legez; esku bietako atzamarrak kateatu egin yakoz, eta urduriaren urduriaz, ezin askaturik legez indarka darabiz, erregua larriago egiten denean.- Edo gogo-bidez ezin balitz, soin-bidez. Ez ete legoke konfiantzako medikurik Oleaga guztian? Sasi-mediku bat, besterik ezean, Adelaren zaiñak odol barriz bizkortzeko. Andereñoak prest dagoz bere alde odola emoteko...

—Oi, bai gudari bikainak andereñoak beren egin-kizuna betetzeko! Asko baten alde eta bat askoren alde. Hik materialki ulertzen dituk, nik gogoaren izenean esanak. Euskarari zaiñetan odol berria sartu behar geniola, esatean, nik ez nian eskatzen ez analistarik, ez odol-ekiporik. Nire hitzak espiritua eta bizia dituk. Adelarena aragi bidez izan dukanez, heorrek erabagi behar duk -Batxi, Baillarako Ikastolen Bateratzaille-Ordezkariek, esku bat Xabierren sorbalda gaiñean dauka, adorea domotsola, begirada urrun, gauza orokorren munduan, itza ideen zeruan.- Baiña esana zegok, bat sakrifikatzea konbeni dela, guztien osasunerako, edo ez ahal duk iragarri arako Lope de Aguirrerena «nik ere hilen hindukek sorterri maite, urde zikiñen ohantzean ez hendir izan»? Oleagako mediku guztiak urde zikiñen moraldeari saldurik zeudek. Sasi-medikutarako berriz, hor ikusi, Oleagako apaizek euskarari egiten dioten emendio medarra.

—Ez egin uste, Euskalerria alako erri txikiak buruko min andirik emoten dautseela beste mutilleri. Askoren abertzaletasuna «a ver» zer jasoko, probisionala don. Ez daunae beste biderik, euki be, Oleagan eta Euskalerrin osoan oiñak ipinteko -Lutxi laugarren mailako andereñoak, denda txukunak ikusten dautsoz Piliri, «konsumismoa» eta «kapitalismoa» itza erabilli dauez, Pili txitean-pitean beste espailora joaten yako denda-erakusketen argiak lilluratuta, Lutxik Unibersidadeko gau-eskolako apunteak josten dautsoz searka-mearka Piliri.- Mutillon abertzaletasuna orokorra don (komunistak direla, esan gura daunat) eta ardatz bakarraz, ekonomiaz ain zuzen, oretzen yuen ore guztia, eta makilla bakarraz biltzen artalde guztia. Baiña egia esan, ez yauken abertzaletasun medar eta polikerietarako astirik. Gaiñera, Euskalerria alako, erri koskorrek egogorrek dozan ore batean sartzeko, euren dialektika-kondairan sartzeko, esan gura daunat. Erri txikiok kondaira unibertsale orretan sitsa baizen kaltegarri izaten dozan, historia orren asmatzailentzat.

—Zer esaten ari aiz, neska? Sitsa? Ze bitxi dun ori? A, bazekiñat -Pili, Eskola-Aurreko andereño barriak, begiak edergailluen erakustokitik kendu barik, barre dagi, agiñetako marfillak bitxi eder agertu dauz, zoro-kantaz asi danean, «Euskadi ez tan pequeño, que no se ve en el mapa... Bat, bi, iru, lau...»

—Ago isilik! Ba dakin pipiak zelako indarra daukan? Edo mikrobioak? Jakiña, oso gitxi indiziño baten aurrean. Indiziño batez garbituko leukeez erri koskorrok, aal baleuez, antibiotikoz garbitu euren kondairaren gupillera ez datozen erritxook.

—Eta erri txikiok zergatik ez dute joan bear erri aundien martxan? Txikiegiak direlako? Orduan apapa eramán ditzatela.

—Ajala, Pili! Ezagun don, i umezaintzan titulodun azela. Filosofia eta marxismoa ikasi bear enduken apur bat. Guri erakusten dauskun frailea zoragarria don.

—Frailea marxismoa erakusten? O la-la!

—Txikiek ezin dauela andien martxan joan, orixe esaten yauskun. Lenengo, andiek txikiak apapa eroan bearrez, beti oin-pean erabilli oi dauezelako. Ara Frantziak eta Espaiñiak Euskalerria, esate baterako. Eta bigarren, erri txikiok andien oipetan ibilli direlarik, kondaira atzeratua daukeelako eta oiñarriak sakon. Eta oiñarriok argitara ateratzen eta aren gaiñean, ia utsetik legez, gizartea antolatzen asteko, astia eta pazientzia bear dalako. Agaitik gauzak martxan ipinteko, (euren martxan, ez erriarenean) aurrez egiñiko estrukturak ezarten dauez: danak burduntzi batean.

—Eleizak ez dau onartzen Euskalerria, beraz, ni, katoliku praktikante nazen au, ezin naiteke izan orain katoliku. Orra, esate baterako, eleizbarrutiak erdal Artxapezpikutegiei salduak, guri erdal modura dotriña erakustearren eta sinistu eragitearren. -Mikel Gotia, Ikastolako Gurasoen Juntako Ordezkarriak, eskuzapiak bekokiko izardia txukatzen dau, sei eta zazpi pisuko

bizitokiak igoten berotu egin da Ikastolako Guraso Askatzaileen zerrenda ez da asko ugaritu oraindiño eta Mikelek arrazoibideak ugaritzen dauz. -Bada Eleizak Euskalerria dan bezela onartzen ez badau, zelan onartu leike katoliku batek? Aldi onetan euskaldun batek euskaldun izan gura badau, (benetako euskalduna gero) Eleizatik kanpo dago. Batari edo besteari, Eleizari edo Euskalerrinari, traiziñoa egin bear dautso. Ez deritxozu?

—Eleizakoak gura dodaz -urumatxoa egin dau Adela, Idoia gaisozaiña termometroa ipinten aurreratu yakonean, Adela burua jaso eta begiak eskabidez idegi dauz. Deitu mezedez...

—Zelan zagoz, Adela? Eta nori deitzea gura zeunke? Orren txarto zagozela, uste dozu? -Idoia gaisozaiña termometroa argitara begiratzen dau, ez dakus sukar andirik, aulduraren zorabiotzat emoten dau. -Ez ete daukazu ezer jateko gogorik? Leioa idekiko dautzut, arnasa gozoro artu dagizun.

—Datorrela fraile bat; ama datorrenerako prest egon bear dot...

—«Atera nagizu, Jauna, etsaien eskupetik, zaindu bai euren erasotik» -Aita Markel, Ikastolako Leendakari bereziak, tentatzaillaren amarruak, munduaren irriak eta aragiaren griñak, estrepozuak eta burrukak Jaunaren eskuetan ipinten dauz, Beragan ipinten dau ustea, azkenik garaille urtenga dalakotan. -«Ba dabiz or niri bizia kendu gurez, ekin eta ekin asmo txarrez.»

—Illetak, illen salbabiderako baiño, geiago dozan bizien kontsolamendurako. Baiña arakoa legez, illeta batzuk txantaje utsa dozan gaiñera. Bada mutil ori geuratarikoa izan da bizitzan, zergaitik egin gura daue euren orain eriotzean? -Sorne, irugarren maillako andereñoak, auts erreak ontzian eortzen dauz eta erregarritik auts barriak ateratzen pautaka-pautaka, bizitza sua eta autsa bailiran eta eriotza autsa eta sua. -Ez ete da ori txantaje utsa? Alako eleizkizun eta kantu-otsean iñoren ederraz norbere arpegia txukuntzea? Ez ete da

ori lapurreta eta iñoren soiñekoz norbere soiña jan-
tea?

—Ez yonat uste olakorik... -Miren, Ikastolako zu-
zendari-ustekoak, burua makur, begiak apal, naigabez
jardezten dau, gero eskariz arpegia jasotzen.- Mutil ori
onez gero, ez don nirea edo zurea, ez munduarena eta
ez eleizarena, esateko. Iñorena izatekotan, uste yonat,
Jaungoikoarena dala.

—A! Jaungoikoarena! Ako beste txantajea! Marti-
riak Jaungoikoarenak eta Jaungoikoa geurea! Iñoren
soiñekoak, meritoak, palmak eta gaiñera zeruko odeiak
eta eguzkia! Jaungoiko eta Lagi Zaarra! Bua!

—Lapurreta txantajea eta ez yakiñat zer beste...
Baiña, Sornetxo, biotzaz aaztu az. Illeta aretan erria
izan zonan lapurra, lapurrik bazan. Egundoko eleizki-
zunetan ez yonat ainbeste erritar ikusi, illeta aretan
beste, eta polizien kontrol bat baiño geiago igaro bear
izan euela.

—«Gaua ezkeru, auzoan dabiltz inguruka, txaku-
rrak legez or ausika». -Aita Jose Luis, Ikastolako mu-
sika-arduradunak, Dabiden salmoen bizitasunez zeazten
dautso Jaunari aretioen taxu izugarria, burruka orren
ezbardiñean, bere arima bakarrik itzi ez dagian.- «Au-
zooan dabiltz batera eta besteraka, nor non ortzakaz jo
billaka».

—Alde batetik beti txakurrek ausika eta orain bes-
tetik katuok miauka -eskuak paparrean gurutzatu
eta burua eta sorbaldak mugitzen dauz Peli Teillae-
txek, Ikastolako gurasoetarikoak, Txomin Beitiak erri-
zaleen agiria azaldu dauenean, Peli Tellaetxek ezpaiñak
okertu dauz.- Egingo neunke txakurrok tirri geiago
daskuela geuri, abertzaleoi, katu gorri onei baiño.

—Egia da, baiña geu baiño ausartagoak dira, eta
beti aurreratzen yakuz. -Txomin Beitia, Gurasoen Ba-
tzordekoak, erri-zaleen begiak jaso eta isil-lankideen be-
gietan irakurri gura leuke.- Kalearen bildur ez dira eta,
oraingoan, geure ikastolaren aurrean iraintzen gaitue.

—Egingo neunke, ez direla lau katu baiño.

—Ba, oraingoan... kaskabel bana ipiñi bear yake
samatik.

—Erastuna ipinten daunae atzamarrean, atzamarrik
aulenean, euri, sekxu auldunari, eskontzako oorea zain-
du dainan. Eurek, gizaki indartsuek, ezin daunae eras-
tunik eroan, bada eskulan latzetara bearturik yagozan,
baiña ik gorde egin, bion izenean, etxeko izena, geu
baigintzaz, Ama Birgiña legez, oore-ontziak. Ene, ba-
rregarriagorik! -Debora, bigarren maillako andereñoak,
eskuak garriko ugel zabalean sartzen dauz, ugalaren sen-
dotasuna aztatzen, eskuak atera eta atzamar auleko
erastunari birak dagitsoz, Sorne eta Bego erdi irrika
eta erdi purrustaka darabiz aldamenetik, umeak arat
onat arrapaladak dagiez eleizako plazan, Debora eras-
tuna atera dau.- Ikusten dozue zein errez ateratzen dan?

—Nik uste yonat, gizonak asko aldatu direla eta gi-
txiago emakumeen zoria -Bego leen maillako andere-
ñoari nobizia baten gorrimiñak ikutu dautso matrail
malgua, esku biak praka gaiñetik biribil labandu dauz.-
Ikusten dozue? Prakak eurak be ez dozan ia gizonen
soiñeko partikularra.

—Eta zer diñostazue, gizonak emakumeen kontra
daroen kimikazko burruka? Noizbait ez ete daue euren
seksu indartsu orrentzako pildorarik inbentauko? Bes-
tela ez dagobe bakerik gure artean.

GURE IKASTOLAREN ELBURUAK

(Ikastolako guraso-talde baten agiria, erderatik euskeratua).

Gure Ikastola sortu zenetik eta oraintsu arte, asierako gogo-batasunak eraginda, bakean iraun dau. Gero, gauza guztietan legez, azkundeko legamiñak kendu dauskuz baretasunak egunotan. Gogoen batasunak irauten dauen artean, ez da araudi bearrik egoten; batasuna apurtzean, eta asmo ezbardiniñen jokarak azaltzean, oiñarri baten bearra ikusten da.

Agiri onetan, gaurko naste guztien gaiñetik, Ikastolaren sortzailleok, asieratik gogoan izan genduzan asmoak, agertu gura geundukez, guraso guztiei aitortzen emoteko.

1.—Kristau-ezidura:

Fedearen aukerabidez, kristiñau garenez gero, ikasbide bardiña aukeratu dogu geure umeentzat, aukerabide pertsonala egiteko ordura arte. Ez dogu aaztuten, euskal kultura aspalditik Eleiza Katolikoari lotuta dagoela bai aleizkizunetan, (Batikano IIgarrenetik ona batez bere) eta bai erti-lanetan. Izan bere Eleiza, jerarkiaren utsune batzuk aparte, euskaltasunaren babes eta eragille agertu izan da kondairan zear.

Guda-aurretiko Ikastolak (1932) batez ere kristautasun-asmo apartekoz sortu ziran, ain zuzen bere, late-

rriaren eskola laikoen siñaustea itzuritearren. Orain «euskaldun, fededun» oiñarria apurtzeko asmoetan, euskaldunon jentil-aroko jatortasuna eskatzen dauenek, gauza bat aaztaten daue: kristautasuna ez zela etorri euskal-jatortasuna apurtzen, osotzen baiño. Eta kristautasuna «errien opioa» ez denez, eta gurean agertu denez, euskaltasunaren ernegarri baiño, gure seme-alabak kristau-gogoan eskolatzea nai dogu.

2.—Euskalkitik euskerara:

UNESCOn agirian agertzen denez, ezidurako oiñarrietan arekin bat, umeak gurasoen euskalkian eskolatzea gura dogu, batez be euren lenengo mailletan. Gurasoen eta umeen arremonak eten barik zaindu bear dira, Ikastolan egiten den euskera etxean egiten denaren aurka ipiñi barik. Batasun-prozesoa ez dago golpez egiterik, gogozko traumak eta aurkatasuna sortu leikelako; batasuna umeak eziz eta erria kulturatuz egin bear da. Agaitik erriko euskalkia erakutsi bear da lenengo urteetan beinipein. Geroago, norbere euskalkian ondo oiñarritu eta gizaldi onetako klasikoen euskera-lana azzertuz, batasunerako bideak aurreratuko dira. Bestalde euskalkien lantzea, euskera osotuaren aberastasunerako dela, ziur emoten dogu.

«Euskera batua bai ala ez» planteatu denez, eztabaidarako triximailu bat baiño ez dela, uste dogu; euskera batua, egin bearrezko gauza, eta ez gauza egiña, delako.

3.—Euskaltasuna:

Euskeratik eta euskal giroan bizi izan diren kultura eta gogo-baloreak osotzen daue euskaltasunaren alorra. «Gu euskaldunak gara» definitzen gaituenez, euskaltasunez antolatu dogu gizaldietan zear geure gizarte-bizitza, ekandu, oitura eta legeak, lana bizibidea, siñesteak eta gogo-bizitza. Baiña euskaltasuna esi itzia ez denez, eta iñoiz bere izan ez denez, inguruko kulturaz orni-

tzen eta osotzen joan da gizaldietan zear eta, inguru-ko kultura-atalak onartzen joan den neurrian, arein larderia ezesten joan da, nortasuna beti zutunik gordeteko senik bikaiñenaz.

Gizartetzako eta politikazko ideak ez dira euskaltasunez janzen, liburuetatik euskeratu-barri edo edonondik arako. Eziña da, esate baterako euskal gizartea mailkatua asmatzea, beti euskaltasunean oiñarritu euenentzat. Azterketa zorrotz gabe onartu leitekezan pentsamoldeak, erri-soiñean kaltegarri baiño ez litzakez eta gure euskal nortasuna bera galzorian jarriko leukee. Agaitik, euskaltasuna geure nortasuna denez gero, jakintza bizi baten maillan azur eta mamindu bear daue gure umeek eta ez folklorekeriaren maillan.

4.—Demokrazi-zalea:

Euskaltasunaren alderdi onek bere garrantzia dauka gaurko bizitza antolatzean. Agaitik «errikoi», «erritasun» itzak iñok lardaskatu ez dagizan, danok gara Euskalerrria, zintzotasun-argi bakarraren aurrean.

Jauntxokeririk ez da egundo onartu izan gure gizartean eta bein eta barriz gure eskuealdeetako Batzarrak erriaren eskuetan ipiñi daue agintea. Agaitik gure Ikastola be, Ikastolako Gurasoen Batzarrean oiñarritzen da, gurasoen eskuetan dagoelako, berezko eta ezin kenduzko eskubidez, Gurasoen Batzar Nagusiari dagoko, beraz, Araudia antolatu, zigorrak zeaztu eta Ikastolako Ordezkaritza aukeratzea. Ordezkaritza onek aukeratzen dau Ikastolako Zuzendaritza eta Ezkuntza-Batzordea, irakasleekin osotua geien bat. Ordezkaritzari dagokio erakundeari eta Ezkuntza-Batzordeari, teknika aldetik, Batzorde Nagusiak oiñarrituriko, dotriña-arauz, eziketa aukeratzea.

5.—Gizarte-zalea:

Gure Ikastola ume guztiei idegia dago, aal balitz irakaskintza osoa doan emoteraiño. Alan bere, Ikasto-

lako ekonomia laterriak bertanbeera izten dauen artean, legeak onartzen dauezan edotariko eskupekoz lagundu leitekez ezinduak, ekonomiari laguntzeko.

Arazo au barrizkuntza andienaz aurreratu gura dogu, baiña edonork daki, Ikastola-Erakunde denetan be-
rau dela motelena, legearen aurrean kontua garbia emon bear dogunez gero. Ikastola zaindu bear da, sarritan, nai gendukeana barik, aal doguna egiñaz. Geure izerdiaz Ikastola jaso eta zaindu dogunoi «burges» eta beste olako polikeriak egostea, zentzun anak onartu ezin leikezan geiegikeritzat emoten doguz eta euren asma-tzailleen badaezpadako asmoak bertan salatzen.

Azkenik, Garasoen Batzorde Barri bateri oar oneik egiten ausartu gara, besteak beste, gure Ikastolako Araudien egitamaa aurkeztu aurretik, asierako gogoak ezkundean bere alkartu gaizan.

Oleagan, urtarrillak 12, 1973an.

EUSKARA BATUAREN MARTXA

(Herri-Komisioak Poeta Gurenari eskatua eta Komisioak berak gero, autokritika alako, ezetsia).

Lehenengo errepika:
Gura gara Hatxeko,
gu gara aurreko:
ez da gurean beste mutilik
orpoak jateko.
Euskara batuko
-besteak batueko-
ez da gurean beste mutilik
orpoak jateko.

Elhe biko bilinguismoa
baizen handia izango,
euskara beraren esparruan
sortuko dugun fandango.
Zaharren oiñak ezingo dire
gazte-aidean dantzako:
hareik atzezko ta atzerakor,
aurrezkua guretzako.

Eleiza eta Euskaltzaindia
bakoitza aburu banako,
teologoen harean eta
hizkuntzalariek honako;
fede-gauzetan libreak, baiña

hizkuntzetan fanatiko,
harek banantzen gaitunez gero,
hau da batasun mutiko.

Tanto bat eta tanto bi hola,
alde lurretik suztarrak,
atzerakoi den erakundeak
apur ditzala muturrak.
Tanto bat eta tanto bi hola,
motx lehenaren deiadarrak,
t'oraiña betor gure bidetik:
gureak dira indarrak.

Hatxea bai da Hidrogenoa,
bonba Hatxeren pareko,
gu bezalako herri ttikiak
zergatik ez harmatuko?
Ta beste ikurrinik ezean,
hon dugu gerta holako:
betor Hatxea aurrez, egalez,
altxa-hordua joteko.

Azken errepika:
Gu gara Hatxeko,
gu gara aurreko:
ez da munduan beste mutilik
orpoak jateko.
Gu gara esperanto,
-haik desesperanto-
ez da gurean beste mutilik
libertaterako.

ADELAREN BIGARREN BAKARTEA

(1973an. urtarrillak 5, gauean)

Adelatxo baratza-egaleko larrosa gorriak artu eta lo-reetako eleizkizunera yoan bide zidorretik gora. Kan-paearen dei alaiak aldapan bizkorgarri yakozan. Lore-txortean larrosea, ezpain odol gorria lakoxea, erdi za-balik egon, irritxoa antzestu gurean. Abadeak esku ba-taz lore-txorta artzean, besteaz matraillean kosk biguna egin eutson Adelatxori, «eta potin onekin zer egiteko? Andi egiten itzi bear eutsonan, urrengo batean, zabal daitenean, ekarteko. Maiatzak ogetamaika egun yauko-zan» abadeak potintxo axe salatzen euan, baiña ez eutson ezetsi. Beste loreekin bat, txortean jaon zan Ama Birgiñearen altarrera eta Adelatxok beste larrosa andiak baiño geiago maite euan potin axe, danetan txikiena, baiña besteak baiño geiago irauten eualako aldarean. Larrosa idegiak laster asi ziran orri apaiñak galtzen eta oraindiño Adelatxoren lore potiñaren soiñekoa urratu-une bat barik agertzen zan lorontzian. Errosario San-tuan, agurmarika, Adelatxok Amar Birgiñenagana jaso euazan begiak eta Jesus Umea, bere larrosa potiña ala-koa emoen Ama ederraren besoetan, «zure sabeleko fru-tua Jesus...» esatean, azkeneko «u»ak luzatzen euazan muturtxoa luzatuz, mosua emoten denetan legez. Ade-latxo eleizan Marifeliren ondoan ukondo-zukondo egon eta Marifelik, zirrika, bere jertzearen mailluki kolorea adierazten eutson, zeruko ikuskizunetik mundura era-

karrela. Adelatxo Marifeliren mailluki kolorezko jertzearen tukuz egon, Marifelik bere jertzea aldareko larrosekin bardintzen eualako margoan, «kalera ezkondu intzan? Marifeli, baiña kaleak aldendu gauzan bata bes-teagandik. Lore potin bi daukazala entzun yonat, eta nik...» Errosarioa amaitzean, abadea armonioari eutsak kentzen asten zan soiñu-otsean eta Adelatxo, Jesus Ume-ari begira, birikietako aize guztiekaz eta estarriko zoli-tasun garbienaz, kantuz ekiten eutson:

«Guzti-guztiok alkar arturik,
gure biotzak lorez beterik,
opa dautzugu, Maria,
zeruko izar argia...»

Etixerakoan, baratzekeo larrosen triskantza zela eta, Adelatxok amaren agirika garratzak entzun euazan, «alako sorgin ori! Lorrintza ori egingo endunan ba? Potiñetan dagozan loreak ebagi! Deskuidoan barrero olakorik egiten badon...» amak, beso batz garran azta egiñik, besteaz aidea astintzen euan, eperdiko pasadeak Adelatxoren oroimena larritzen euala. Adelatxo ez zan ausartu itzik egiten be, «baiña, amatxu, abadeak alta-rean besteekin batera ipiñi dau eta» zotiñak bere kol-korako bakarrik iñoen, baiña dena atertu zan aitatzok «etorri, laztana, zeu zara gure lore potin galantena eta» esan eutsonean, eta ez gero Poeta Ederjotzailleak alako limurkeriz bezela:

«Adela gorria,
etorkizun-ozkorria!
Hire larrosak grinatzen
din gaztedia:
gaua iraultzea,
iluna uxatzea,
ederra bai dun
argi-hastea.»

Noiz izan dan? Ze jairako loreak edo lausengu mailatuak? Adela leenaren eta urrenaren arteko ezbaitan dabil. Xabierren eskuak dakus lore-txortaren ekarle, berak ez daki ze argi-aste edo egunsentirako, edo bai «nire larrosa potiñak joan zirenetik, arantzak bakarrik gelditzen yakoz nire lore-txortari. Orain, nire larrosea lar, billuz, gelditzen da, mendua galdu baileu, udabarri barririk itxaro ez baileu... Neure loreaz baliatu direnean, arantzak itzi daustez neure zigorrerako. Eta arantzok ez dira izango iñongo Poetaren poemarako gai aukeratu». Beste gozo bat euken orduan sagar berdeak, larrosak lore zirenean. «Kontu sagar berdeekin, umeok...! «Kontu? Zergaitik kontu? Zer eukeen gero Aldapeko Frantziren sagarrak? «Ikusi daigun, ea zer dauken barruan. Ia egia etea dan... uma! Garrantza yagon, baiña ze zapo izan bear yon! Erdiko pipi zuriok ez dozan iñongo za-poak, sagar-aziak dozan. Orixe, eldu bakoak, baiña ori, sagarrik ez jatearren, esaten yoenan...» Adela barrezka artzen euazan Julioren ateraldiak eta jan eta barre, gozoak benetan sagar berdeak. Iñoiz eldu bear euenik ere ez! Irakagarriak izaten ziran mutikoen barrabaskeriak, sagar-adarrak apurtzen, atal bat oskatu orduko, edo erdi-janak, lurrera botaten, edo eta alkarri arrikatzen. Adela txori atsegin izaten yakon mutikoen arrikaburrak ikustea eta arako ikareak be kili-kili egiten eutsen kolkoan. Orduan Frantzi agurea aiñenka, barda bategaz agertzen zan, Adela txok, sasi-ostetik kuku, Frantziren madarikaziñoak entzuten euazan, «ume denganiñook! Arrapatzen bazaituet, arrapau, egundo zeuen gurasoek emon ez dautzuen lotsea erakutsiko dautzuet neuk. Lotsagalduko alakook!» Adela txok orduan, bilduraren bildurrez, esku artean eukan sagarra ere sasira jaurtiten euan eta aoa garbi libratzen, amaren aurrean burua garbitzeko, «ni ez naz izan. Julio eta ibilli dira...» Adela barrabaskerien mundua Aldapako sagarraren adarraren pean susmatzen euan, zigorraren latza Frantziren bardean sentitzen eta pekatuaren eskerga sasi-osteko kotzientzian barrundatzen. Abadeak aitorlekuko

sare-ostetik amua botaten eutsonean, «ze pekatuko egin dozu», Adela txok pekatu barri bat ekarren arakoan, betiko errenkadaren luzean: «Amaren esanak egin ez, la gunei burla egin..., eta Frantziren sagarrak jan». Sagarrak ia dagoneko elduak ete egozen, galdetu eutsen orduan abadeak, «ez, baiña Frantzirenak dira» erantzun eutsen Adela txok eta pozik gelditu zan ezbai guztiak eta pekatu denak abadearen kaixan iztean. «Nork leukake alakoxe kaixa andi bat arerioen aurretik lotsari guztiak gorde aal izatetko» Adela alako parkamen orokor baten irrikaz dago, okerrak aaztu eta bizitza barria asteko gertu. Eitekena ete zan oraindiño? «Larrosa-potintxo ebaitearren, «sorgintxo» banintzan, eta sagar-potiña lorrintzearren «denganiño», zer ete naz orain, neure bizitzako lore potiña eta neure arbolako sagar potiña galdu dodala eta? Ba ete dago niretzat oraindiño parkamenik...?».

V

—Zelan aurreratu zara andereñoi esaten, neuri ezer esan barik? -Xabier Baillarako Ikastolen Batera-tzaille. Ordezkarri-pekoak, sukaldeko atea itzi eta isil eta benaz Idoia gaisozaiña estutzen dau, agiñak erakusten dautsoz.- Odol-ekipoa bidean dagoke, gauzak ondo ba doaz, baiña oinkada bat bere ez, neuri ezer esan barik. Entzun don?

—Nik... prisa-arren, gauzak aurreratzearren eta i, gauzak berez bailetoz, suertearren begira. Uste dok gauzak berez etorten direla, ala ? -Idoia gaisozaiña atzerantz doa, Xabierrek bidea eragozten dautso, besotik oratzen, Idoiak atximurkadaz astintzen Xabier.- Ea ortik! Ze konfiantzakoagorik gura endun, Adelaren andereño-lagunak baiño?

—Arinkeriz ez ibilteko, esan daunat bakarrik. Edo euk, deskuidoan -Xabierrek barriro besotik eltzen dautso Idoiari.- espetxean gorde gurako endukezan eure gaztaroko urterik ederrenak?

—Ako lotsagabea! -atximurkaka jaregiten da Idoia.- Aurgaltze baten partekide egin gura nauk! Eta zergaitik ez Adelaren eriozsaren partekide? Eriotza bat besteATEGAZ estaltzen dok, guzur bat besteaz legez, ez ala? Edo gaztaroko urte batzuk bizitza gazte baten ordezeskeiñi. Odol-tanto batzuk dozak, euk Adelari ukatzen dautsozanak, ain zuzen.

—«Gerturik gagoz odola bere alde emoteko...» Ino zoroagorik! Txistu-dantza dalakoan asten dozan eta bala-txistuan amaitzen, kalean asi eta mendian amaitu. -Sorne, irugarren maillako andereñoak, ur beroz bete dau ontzia, leixiba autsa geitu dautso, platerak bete dauz uretan, amantala jaso dau kakotik, idunetik eskegi, garrian, atzeko aldetik, lotu bitartean, Lutxi eta beste andereño-lagunei begiratzen dautse.- Odolezko kultura ekarri bear ete dauskue menditik? Menditik ez dator iraultzarik. Gogozko odola da emen bearrezko. Ikastolan dago gure zeregiña. Obe odola barik, izerdia emoten ikasiko baleue!

—Egia diñon orretan. Bizitza ez don edozer baloregaitik trukatzeko. Ideal andiago bat eskatzen yon: lagunurkoaren alde, aberriaren alde emotea-edo -Lutxi, laugarren maillako andereñoak, plastikozko esku-narruak zuzendu dautsoz Sorneri, ur berotarako laguntasun bikaiña direla, adierazi dautso, atzamarretan sartzen lagundu.- Baiña fededunentzat eurentzat be laztxo egiten don orixe eta ez yakiñat zer izango dan fedega-beentzat. Bada, erriaren alde bizia emotea terrorismo-tzat artzen badaue, eta Jainkoaren izenean bizia emotea opioa jotzen, nik ez dakit ze santuren izenean, ze zeru edo zuzentasunaren izenean, bizia emotea opa leikeen.

—Ama, aurten ez noa Errege Magoen izenean kartarik egiten. Andereñoak guzurra zala, esan euskun -Jaionetxo bigarren maillako neskatoa, papel zuriakin txoriak egiten asi da maai gaiñean, papel tolestuari egalak ateratzen dautsoz eta betertza jasoten amari... Prueba bat egin bear dot, ama, ea kanta barik ze sari dakarsten.

—Zelan jakingo yuen ba karta barik, ze sari gura donan? -Errose Zarate, Ikastolako amaetarikoak, lapikoari tapea itziaz batera, alabaren batertzakin topo egin dau, iñozente aizeari jarrai dautso.- Gero ez damutu, laztana, sariak uts egiten badaunae...

—Uu! Gu lotan gagozela, ama eta aita jagi eta zapatetan ipinten ei dauetz sariak; gero Errege Magoek

izan direla, esan. Ori guzurra da! Ori barik be, zuk badakizu, ama, eta aitak be ba daki, nik zer gura dodan.

—Ez ete da danon guraria Ikastolaren etorkizuna? Ba alkarrizketaz eta alkarri zor dautsoگون errespetoan, bake-bakean erabagi bear dogu arazoa. -Mikel Goitia, Gurasoen Batzordekoak, izlari unikorraren gonoraz, atzamarrak gurutzatzen eta askatzen dauz, barrero be gurutzatzeko.- Gure elbururik beiñena, eritsien pluralismo batean, Ikastola zaintzea da.

—Zer erabagitzen dozue, gure kale-kalean jasoten diren gauzon aurrean? Emen Bosgarrengo neska-mutillok azaldu dauskuena, ez da eurak asmatua, eguneko izparringitik jaso baiño, or, erderaz, ikusten dozuenez: «como resultado de la manifestación, han sido detenidos ocho obreros, tres encarcelados...». Langilleak greban dagoz eta guk zer? -Sorne, irugarren maillako andereñoak, ezin jarrai izan dau aurrera bere mitintxo Ikastolako aretoan batu diren txiki eta andien artean, «greba! Greba! Huelga! Huelga!» doiñu askotako abotsak erantzun dautsoe bertatik eta, berak, Sornek, uste baiño leenago berotu, maai-buru dagien neska-mutikoek aurrera atera daue greba-borondatea eta ain demokrati-koki egiztatu eta txalotu daue eskola-umeak.

—Babeleko mitoa sortu zen orduan zorionean: gizakiek elkaren bereizgarrietaz arroturik, hitzak ere norkbere ahozkeraz mintzatzen hasi ziren, pixkanaka lehendabizi, erabat gero, nortasuna pertsona egiten den nehurrian. Eta hitz aldaketa hoiek idea berriak sortarazi zituzten eta ideologia berri bateri bultzatzen egin zion. Jende baikorrak eta ezkorra eker-eskuki banandu ziren orduan Babelen. Nahaste haretatik, ezkerretik noski, herri-kontzientzi berria sortu zen -Batxi, Baillarako Ikastolen Bateratzaille-Ordezkariek, ur-basoa artu, bizarrak pitin bat estrepozutik kendu eta zurrutatadaxoa egin dau, uraren freskurak ideak gardendu dautsoz.- Hona Euskalherrian egin behar duguna. Detxeparek, behin profetatuko, kontrapas-dantza baterekin nahi baduzue, baina Babel berri bat sortu beharra dago Eus-

kalherriko plazan. Zer egiteko? Eztabaida-dantza plazan delarik, ausartenek su sagaratu ebatz dezaten ideen Olinpotik. Euskal bilinguismoaz ari natzaizue, ez «euskara erdara» elhebitasun antzuaz. Euskara atzerakor eta euskara progresista direlakoan arteko ezin ulertzar sortuko dugun burrukaz, ari natzaizue. Babel hontatik guk geure ikurrina jasoko dogu eta Euskalherria gizaldieta-ko lozorrotik, eta Olinpoko bontsoen menpetik, kontzientzi berri batera erakarriko dugu.

—Quítate de ahí, tonta; que me estorbas! -Iñakitxo, irugarren maillako mutikoak, mekanoari bere bi-deak erakutsi gura dautsoz eta Goiuri arrebatxoa eskuz laguntzera urreratu yako, Goiurixok atzerantz egin dau turut-otsera, ezpañak negar- aurreko muturtasunean.

—Ze berbeta da ori, umea? Emen euskeraz, esan dot! -Mari Zubeldia, Ikastolako amaetarikoak, itzez eta begietako tximistaz zemaitzen dau Iñakitxo, Iñakitxo, bera ere, laster mutur-beratu da.

—A, pero yo hablo euskera batua y ella no sabe todavía.

—Dakusenez, giro onetan ez da erreza iraultza egi-tea. Ikastolako burges-kumeek eta proletargoek alkarri eskua emoten badautse, gure burrukari oiñarriak jaten dautsoez -Zugatzu, Ikastolako lankide barriak, teoriatik praxira alde andia dagoela, adierazten dautso Batxi maisuari, aukeratuen batzarrean, eta bere betaurreko gardenekin gauzea illunago bailekus, esperientzia aurkatzten dautso.- Ara, apaizkeria ez da ainbeste nabarmen-tzen, Ikastola eleizpean dagoela, eta ni neu, apaiztegitik rebotatu au ere, onartu egin naue, ikusten dozuenez; abertzaletasunagaitik iñor ez da larritzen, danok garelako zein baiño zein abertzaleago. Eta onela, ze iraultza egin?

—Hik, moteil... A, beno, arrazoirik ez zaik falta. Baiña hik..., lehenago ere esan nian, apaiz-santu bat daukakala, urtu gabe oraindio, heure kolkoan. Ituringo harotzarena egin beharko diagu hire kobrezko santu horrekin, hileta kanpea larregirik jo ez dezakan -Batxi,

Baillarako Ikastolen Bateratzaille-Ordezkariek, keiñu-keta larria darabil, irakasle erantzukoiak ideak zorroz-ten akulatzen dau.- Hor zegok, esate baterako, Eliz-estruktura goitarra, heure espezialistateaz bakarrik has-teko. Zergatik ez aurkatu Eliza jerarkikoari? Batek bai-no gehiagok kontzientziko gauza egiten ditek gotzainen eleizako izatea. Gero hor zegok ezbaiketarako beste iturri bat: Elizak eta Euskaltzaindiak euskarari buruz duten jokera ezberdinean. Horra, aurrerazale eta atze-razalen arteko burruka. Badakizkik, beti ere, bizitzako indarrak elkarren aurka azaltzen dituk amaren erraie-tatik.

—Aman errari guztiak ez dira nonbait konserbado-reak, norbaitek bestelaz esaten badau be. Batzuk logika formal batera beartu dauez euren bularrak, ume-negarretara ez larritzearren-edo -Lutxi, laugarren maillako andereñoak, Unibersidadeko apunteak darabiz esku ar-tean, noizbeinka aidean astintzen dauz, Sornegandiko ke-pafadak aienatzeko.- Baiña ama baten erraietan be seguridaderik ez bayagon, nik ez yakiñat non aurkitu leiteken mundu onetan seguridaderik.

—Seguridadea bizitza planifikatzetik yatorn, eta ez estatu atzeratuen eta Eleizaren zabar-bideetatik. Fariseo-keri utsa! -Sornek, irugarren maillako andereñoak, Lu-txiri erantzuki, Piliri, Begoñatxori eta Mireni begira-tzen dautse txandaka, tiro batez lau aparatzeko.- Estatu aurreratuek aspaldi sapuztu yuenan Eleizaren buztarria, «ez ogi baiño ago geiago» esanaz eta jaiotzen ugalkeri eziak ezarriaz.

—Eleizak moral bat aldezten dauelako ekintza guz-tietan. Beste batzuk ostera, zirt edo zart, ondo ez ya-torkena kendu, egalka yatorkena garbitu, dala ume jaio gabe edo erri eldu gabea.

—Euskadiren seguridadeak larritzen au, ene!

—Eta euskarak, eta Adela eta Ikastolak...

—Bai, bai; dialektikak bere alderdi onak eta txa-rrak yaukazan, baiña arazo orokorraren altzoan, Euska-di-samartxoa zelan salbau, pentsa bear don...

—Orixe! Amaren altzoan ez eta arazo orokorraren altzoan topaiko dozue zuek seguridaderik...

—«Zure erri onen aurka dabilatzaz alkar artzen, zure maiteari nondik eraso bururatzen» -Aita Markel, Ikastolako leendakari bereziak, Euskalerría dakus bere otoitzetan eta «euskaldun fededunaren» ukapenak sumintzen dau.- «Goazen, diño, erri artetik au kentzera, eta «Israel» izena bera galtzera».

—Ik anbulantzien sirenak be polizienakin nasten dozan, danak polizienak bailitzaz -Miren, Ikastolako zuzendari-ustekoak, Pili laster baten leioratzen ikusi dau, seigarren pisutik kalera begira, zerbaiten kezka dago Pili, Miren susmokari.- Argi gorriak ala urdiñak yaroazan? Urdiñak? A, ba nengonan! Gorriak, anbulantzien beraz. Polizienak, geien bat, isilik ibiltzen dozan.

—Isilik, baiño bildurgarri, esango niken, dabiltzala aspaldi onetan -Pili, Eskola-Aurreko andereñoa, Olabideko kaleen otsera egiten dago, gauza bakoitzari bere izenaz deitzen ikasten, leiotik itzuli da, baiña begirada aidean dakar, itzik gabe ezpafiñetan.

—Ire mutilla ez yabiln ba mugaz bestaldetik?

—Batek ez zekizkin mugako tranpak eta arriskuak, edo gauza kalean asi eta mendian amaitzen den, ala bestelaz...

—Egunero kalean edo Viet-Namgo gudan jausten direnetaz, Eleiza ez don arduratzen, eta jai bako umeez, orrela arduratu bear yon? Bestelako fariseokeria! -Sorne, irugarren maillako andereñoa, esku-lanetako ari beillegia oltxo batean biltzen diardu, bildu eta artaziekin ebagi dau bilduma, puntatxoak panpiñaren ule urreztatu egiteko, lanetik Lutxigana jaso dau burua.- Eleiza pertsona ez direnetaz arduatzen don. Orixe, samartxoak salatzen eta abeak irunsten... Edo, gizona eriotzera kondenatzea, debekatu ete yon iñoiz Eleizak?

—Nonbait iretzat, Sorne, gizaki aulak, edo eldu ga-beak, ez dozan pertsonak; iretzat gizon armatuak dozan benetako pertsonak. Ori be dialektikaren morala izan-

go don. Ala ta guzti, Ikastolak Jon Bilbaori opa izan eutson arako mezatan, polito aurreratu zenduen (aprobetxatu, obeto esateko) mutiko iñosente baten abotsez Xenpelarren arakoa bestea: «tiro bat dale berari / bala bat sartu buruan / aspetuko da orduan...» Nori dedi-katua gero? ...-Lutxi, laugarren maillako andereñoari kateatu egin yako ari beillegia, urduritu egin da lanak emoten dautson arduraz eta Sorneri zor dautzon zeaz-tasunaz.- Edo alako bertsoak mezatara eroateko, eskatu ete zeuntsoen baimenik mezaemolleari? Bein etorri, itxura egitearren (nortzuk diren gero, fariseoak...) eta beratan ezin egon koroztxoa itzi barik.

—Gure umiei ze erlegiño erakusten yaken, jakin gu-rea, ez da Ikastolan musturrak sartzea, edozein gura-sok, dala andre edo gizon, daukan eskubidea baiño -Txomin Beitia, Gurasoen Batzordekoak, beetik dara-biz begiak, tenkor ideak eta esku arteko apunteen pa-perak urduri, txori mandatari billakatu nai baileuz.

—Ez nago orren kontra, modu batzuren kontra bai-ño. Ba, andereñoak kontrolatzen ibil-gure orrek, ande-reñoen lana oztopatu ezezik, kikildu egiten dauz eta, zer esanik ez, pertsona ikasiari zor yakon errespeto-fal-tea da -Mikel Goitia, Gurasoen Batzordekoak, batzarra luzarazteko ari-puntak billatzen dauz, sisti-sasta dagitso argitan metalezko boligrafoak.- Uste dot bakoitzari be-rean konfiantza osoa emon bear yakola. Ez doguz ba kanpotik maizeatzaille gitxi, geu barrutik geurea jorra-zen asteko.

—Zera entzun yonat... ez gurean, zorionez. Baiña nork jakin, or nonbaiten jaso dana, gurean be, gaur edo biar, jaso ez leitekenik? -Mari Zubeldia, Ikastolako amaetarikoak, Ikastolara bidean aurrera bialdu dau Iña-kitxo, Errose Zarategaz topo egiñik, ari ale andiren bat esateko gogo a etorri yakonean.- Ara, andereñoen batek seksoa edo dalako ori zer dan erakusteko, bere bula-rrak erakutsi dautsezela klaseko umiei. Ba don lotsea e?... Amagandik artu euana bera orrela mostradore

egiñik! Bide orretatik ez bularrak bakarrik, zera be erakutsiko leukeenan.

—Jesus ba! Amaikatzko entzuteko jaio gara eta! Izenak-eta erakusteko izango zonan, «titi, bular, ugatz, erro» eta olakoak -Errose Zarate, Ikastolako amaetariakoak, barreari emon dautso, aoa estaldu dau eskuekin, itzen-itsusia-edo baten batek igarri ez dagion.- Ara, ba dakin zer pentsaten nagon? Ba, Debora edo dana-dalako orrek, bularrak nabarmendu bai, baiña geuk geurei emon geuntsen legez, titia emoteko ez dala.

—Ordua dozue zuek be, dagoneko, amaren zilbor-esteetatik askatzeko -Sorne, irugarren maillako andereñoak, afal ostean eskaratzeko besaulkia artu dauanean, etxeko denetaz aduratzen den, abadesiaren tankera artu dau.- Gu deserrotu batzuk garela? Gure zustraiak aizetan dagozela? Orrek panplinak dozuez, ideologia askatzailearekin ez konprometitzearren. Orrela uste dozue, Ikastolako umeak libre ezitea!

—Ori beste arazo bat da; emen Adelaren eskabi-dea euki dogu gogotan. Beretzat amagaz egotea oso garantzitsua dala, iragarri dausku. Ez nastau gauzak -Miren, Ikastolako zuzendari-ustekoak, tukuz ikusten dau Sorneren nausitu-gurea, berari antzak eta besteei gantzak, ez dau onartzen.- Gauza bat dira ideologiazko amesak edo asmoak eta beste bat bizitzako gauzak. Eta amesak edo asmoak eta beste bat bizitzako gauzak. Eta, edozelan be, Adelari laguntzeak, ez dakit zertan oztopa leiken munduan zuzentasuna edo eta iraultza.

—Baiña bizitzako gauzetan gurasoekin arremonetan egotea, ez ete don gero, estruktura zaarrekin flirteatzen ibiltea, Miren? -Lutxi, laugarren maillako andereñoak, maai-ondoan zutunik, paper-puntak artaziaz zatikatzen diardu, abotsaz eta eskuez ziriak dagiz.- Sendia, eleiza, moralitasuna: zilbor esteak, kanpora! Kausk-kausk eta kausk. Ikusten dozue ze erreza dan? Baiña, gero ez don izaten ain erreza ideologi batzuren kateetatik askatzea, je! Kate lodiak ez dozan ain errez ebaiten...

«EUTSI, EUTSI, GEUREA DA-TA...»

(Azpi-papela Ikastolako gurasoen buzoietan)

Zueri, Ikastolako gurasoei, diñotzuegu, «geureari» eusteko ordua dala eta ia «ezker / eskubi» deituriko alderdi aurkatuen izenpean ez dogula asko argitzen gure arteko burruka. Deitu daiogun obeto, «eutsilarien eta autsilarien sokatira», Ikastola-inguruan darabilgun tira-bira oneri.

Leenago, «Eutsi, eutsi, eutsi, geurea da-ta Euzkadi...» abesten gendun, askatasunean bizi eta mugitzen gintzazanean. Orain, isillean bada be (gure kantuoetsa kaleraiño eldu ez daiten) ekiñez eutsi bear dautsogu geureari. Kontu, or dabiz beste mutillak «autsi, autsi, autsi» ausika, leena aldrebestu gurean, baiña leengoen itxura artuz, euskera eta Euzkadi beste iñork baiño geiago maite dauelakoetan. Maitasun ondagarria euren, dena autsi-gurea berera asteko, dena, erabat ona eta txarra. Guk zeri eutsi eta zer autsi berezi gura dogu; agin ustelaz batean, ez deiguela sasi-mediku oneik agin zindoa atera.

Zer gurago genduke, geure lepotik loturik eta geure oiñetan arrastaka daroaguzan kate laidogarriak autsi eta apurtzea baiño! Baiña giarra galdu dogu, antza, burrukan eta oraingoan estropozoak ugaritzen yakuz. Oraindiño txakurren aginkadak osatu barik daukaguzala, «maoka» asi yakuz katu gorriok-eta. Eta zer besterik

da gure Ikastolan jo ta auts arrika ari yakuzan pedagogo barrion jokerea? Or dabiltzuez geure gizatasun eta euskal oiñarriei tripak atera gurarik, ore barri baterako geure garia lapurtzen, edo geure oiñarriak, euren zementorako, are biurtzen. Euren frutuetatik ezagutuko dozuez. «Autsi eta autsi» jokerak autsa dakar, egitez eta esatez, «eutsi, eutsi» ostera, eskutik datorren eskubidea adierazten, esatez eta ekitez. Geure eskuz eutsi bear dautsogu geurea denari, geurea delako, bakarra eta onena dogulako, beste ezergaz trukatzeko ez dogulako, gitxiago saltzeko. Zertan datoiz gero besteok gurasoon eskubideok austu gurarik? Geure erabagien bildur direlako, geure botoen bildur, ain zuzen be. Eta geu, eskutik gagozela, ez dogu itziko geure abian kuku orrean arrautsik sartzen.

Gu, geure sendian, geure euskaltasunean eta geure sinismenean gordeta gengoizala, guk geure erria gorde-
tearren, Ikastola sortu gendula, goizetik gauera, burgesak garela eta Ikastola, gurea barik, erriarena dela, entzun dogu. Gure umeak eurak ez direla, kontuizu, gureak, erriarenak baiño. Eta jakiña, erria gu barik, belarri berotuon kontzientzia eta diktadura kilikarria ei dela. Aor ba! Eurak proletalgo intelektuala, gu burges ez-jakiñak. Bai, lotan gengoizala, azi gaiztoa erein dauskue geure soloan. Erlamandoen antzera dabiltzuez geure erlattegiko ezti guztia zurrupatu gurean, langille medar, baiño berbalapiko urten, Jainkoa, sendia, moralatasuna, erria, euskaltasuna, mitoak, mitoak austen, gizarte barria, kidetasuna, askatasuna, eziketa liberatzailla, paradisua, mito barriak sortzen.

Otsook, ardi narrutan, gure artaldean sartu direnetik, naiko aldaketa ikusten da gure andereñoetan eta umeetan. Andereñoak atzerakoi eritsi daue geuk agindu geuntsen zuzendaritza, eziketa liberatzaillaren menpean libreago ekiteko. Baiña aldaketa orren ezbairik badaukozue, aztertu egizuez zeuen seme-alabak, ze itz, ze euskera eta ze ideak eta esakerak eta portakerak dakartzuezan. Aztertu eta egiztatuko dozue, ea oraindiño

zuen seme-alabak zeuenak ete diren, ala eziketa iraultzailla orren indi-kuiak.

Begi-niak baizen maite dogun, geure Ikastolea, ez dogu bertanbeera itziko; geure ogiz eta gogoz ifutu genduzan geure seme-alabak ez doguz biotzetik aldentzen ikusi gura. Ikastolako guraso, eldu da gure Ikastola-ingurutik sasi guztiak kentzeko ordua. Onezgero jakin bearra dogu, zer autsi eta zeri eutsi bear dautsogun.

Eutsilarien taldea

EUSKALTASUNA GIDARI

*(Aita Markelek Ikastolako umeen
dotriñan banaturiko bertsoak)*

Sarri entzun dot: «euskera bako
euskalduna da traidore».
Orain diño, gure euskera
bakarrik dala folklore.
Eskumakoek: «Euskera barik
bizi gara gu dotore».
Ezkerrekoek: «Euskerak non dau
gu biztutzeko adore?».

Ezkertiarrok eskoitiarroi
erdeaz dautse goraintzi,
eskuin-muturra direnez gero,
kontu musturrak ez autsi.
Euskera ola politikeaz
egin bearra naasi;
obe eukeen eskola onez
euskera arei erakutsi.

Erdaldun aiek euskaldundu ezik,
burrukan beingoz asteko,
euskal zintzoei eskuinkeria
emon dautse bizkarreko;
«Nor dabil ortik urak zikintzen?»
asi dira aiko-maiko,

beñola otsoak axuriari
arakoak betetzeko.

Euskera iturri garbia etorren
eztabaida sortu arte,
bildotxak ola ezin einkela,
ordain gaiztoaren kalte.
Eska otsoei zuzenbidea
bildots gaisoaren alde;
beingoan leukez aren mamiñez
afaltzekoak debalde.

Ez dogu auzirik otsoarekin
ez eta alkarrizketarik;
ipuiñez ola jasorikoa
ez da guretzat alperrik.
Aztertu beiz ezker-eskuiñok
euskaltasunak bakarrik.
t'orduan betoz arbolapera
euskaldun oien bidetik.

ADELAREN IRUGARREN IKUSKIZUNA

(1973an, urtarrilak 7, gauean)

Maillu eta zizela eskuetan, Rodin irudigillea tiriki-tauki, Pariseko amaen erraiak konpontzen diardu. Azaletik barik, barrutik eta utsean zizelatu nai dau amatasuna biologiaren museurako. Adela, amatasuna eten gurarik bildu diren, emakumeen zerrendan itxaroten dago eta kristaletik zear ikus dagike arte-lana. Rodin irudigilleak modelagarriak oartzen dauz, aragia brontzeratzeko. Baiña utsa, aragia ez dana, zelan moldeatu? Utsaren arrastoan, Rodiñek, urre-meatz urtu legezko, odol iturriak idoro dauz. Brontzezko amaek negar baten dagoz, esperientziaren gogorregiagaitik. «Au Brontze-Aroa! Au atzerapidea» alauri dagie ama ustuek. «Bai, bai; bizitzak gordeleku ziurragoak bear dauz. Aragia aulegia da; nik brontzean eratuko dodaz umetokiak» jardesten dautse Rodin irudigilleak, eroapena emoten, baiña amaen alauria ez da isiltzen, ez malkoak ta ez odol-iturria agortzen eta ez samiñak ibitzen. Brusa zuridun laguntzaille bi daukaz Rodin irudigilleak bere biologiako aalgeiñetan, zirugilaria bata, gaisozain emaztekoa bestea. Arek umetokia garbitu-ala, besteak ontzietan gordetzen dauz ondakiñak: aragia ontzi batean, odola bestean. Aragia bera baiño odola obe dala, amatasuna antzetzeko, esan dautse Rodin irudigilleak. Amaen garraxiak kloroformoak jan dauz, baiña ume-

ondakintxoak ostikadatxo isillak jaurtiten dauz ontzietan. Orduan brusa zuridun emaztekiak eskua luzatu eta atzamarras Adela adierazi dau, amatasuna eten guraz itxaroan dagozanen, zerrendan, «Ai ene Jaungoikoa» mindurikatu da Adela, Rodin irudigilleak maillua gora jaso dau modelagarria ikustean, «c'est la vie! C'est la vital dimension» arte-lana goraiatu dau. Brusa zuridun emaztekiak kristalezko probetak, zein baiño zein luzeagoak, errenkadan ipiñi dautsoz zirugilariari. Zirugilariak keiñu xedegarria egin autso, «gero ere umeak

Paristik ekarten ditun bai...» irribarreak urten dautso, Adelari begiratzean, Adela atzamarras adieraztean, «baiña orain ez ditun ire aurtzaroan bezala izanen, denak berdinkiro taxutuak. Orain modelo guztietatik izanen ditun. Aste batekoak probeta ttiki auetan sartuko, aste bikoak beste probeta pixka bat aundixeagoetan eta orrela errenkadan». Adela arduraz dago, bere erraietako ume txikiari, ume erdiari, erdi bako umeari, zein areitako gela tokauko ete yakon. Alan be, Rodin zizelariak eta bere lagun zirujulariak, bakoitzak bere eratarra, «mailluz ala biorkaz» itaundu dautsoenean, Adelak, ezikus egin, eta zotin baten, ontzat emon dau kloroformoaren drogea. Zentzunak lokartu egin yakoz Adelari, entzumena izan ezik. Entzumenaz nabari dau tresneri-otsa bere errai-inguruan eta, ene!, gitxien uste dauela, «ama» alako dei, asperen xumea entzun dau. «Neure umea izan da» konturatu da Adela, «urreratu egidazue apur bat, neure begiekin ikusi dagidan» eskatzen dautso brusa zuridun emaztekiari. «Erraiak bai, eureak dozan, baiña kuskulu au geurea don, tratua egin gendunan» erantzun dautso gaisozaiñak Adelari; «umetokia bai, eurea izango dun, baiña utsunaren kontzientiza unibertsala dun» eskolatu dau Rodin ertigilleak. Zirujulariak jarion odola aztertu dau, Rodinek nai legez, bonbil berezietan sartzeko eta aztertzean, «mais c'est l'espece sautante des Pirinées» arrigarritu da. Brusa zuridun emaztekiak Adelaren fitxa aztertu eta baietz rh— (erre hatxe ezkorra) dala egiz-

tatu dau. Rodin, amatasun zizelariak, utsunea barrutik erreztatzeko, odola eskatu dautsonean, «ez daigun banandu» erantzun dautso zirujulariak. «Artea arte, biologia biologi, etorkizuneko esperimientuetan be pentsa egin bear da. Gizaki bakoitza ez ete da mikrokosmos bat? Ba, au areago. Gizaki onen orijinaltasuna jakin bear dogu; itzi daigun zientziaren azitarako. Ba dakigu beronen jatorria, baina bere arraza orijinalaren jatorria ez dakigu. Ona orain emen jakiteko posibilitade bat. Gizaki errugabe onek, kuskulu onek, beste inñodik dato faltsorik jaso baiño leen, bere kontzientziaren azpi-barruen gordetzen dauenetik, asko jakin daikugu. Bere odoletik bezela, bere umoretik, bere ezkutuko oroitzenetik, enbrioaren sikologiatik, mutiko onen «tabula rassa»-tik, bere asaben historia konponduko dogu, erri saltari berezi orren jatorri saltari berezia inbentauko dogu eta misterioaren mitoa garbitu bein betiko. Eta nork jakin orduan, biologiaren indarrez eta artearen medikutzaz, erri saltari eta mendegaitz orren sikologia aldatu aal izango dogun, gizaldien arri-durarako? Ara, neuk diñotzut, maisu Rodin, arteak eta biologiak baiño geiago ordainduko dasku orduan politikak», zirujulariaren itzaldi luzea amaitu danean, Adelak argiago entzun dauz bere umearen uatxoak. Adelak ama-erraien bultzadaz, eta ontzian ostikadaxoka dagoena mutikoa dala, ikustean, tratua utsaldu gura dau, «emoidazue neure Xabiartxo» eskatzen dautse zotinka eta tratulariek ezezkoan, «arte arte, biologia biologi, itzak itz» erantzun dautsoe errenkadan, Rodin eritulariak, mediku zirujulariak eta emazteki gaisozaiñak. Brontzeko Pentsalariak, loretegiko larrosari begira dagoela, Adelaren larritasunak oartu dauz bizi-museu barruan. Burua jaso dau eta, zutarritik oiñak mugidu eziñean, malkoz busti yakoz begiak, brontzeko negarra dariola, Rodin aitak, arrigarri isilla ikustean, mailluaz jo dau Pentsalaria belaunean, berari berbaz konta egion gertatzen yakona. Aita sortzaillearen esanera, aoa idegi dau Brontzeko Pentsalariak eta «bai tamala, ume ori

erosteko dirurik ez eukitea» esan dau, Rodin azpil lurruntsura urreratu da, Adelak ateetatik Xabier sartzen dakus Olentzeroetan batu diruakin, «zenbat dakark» atzera-tratu gurea iragarten dautso, Xabiartxoren edertasuna miragarritu dagiela ezpabe antxe aspillean, Xabierrek betondoa illundu dau, «kuku-sagar ori nere ize-naz» erdeñutu dau, diru boltseari gogor eusten dautso. Anartean ez da baretzen Rodin ertigillearen eta mediku zirujulariaren arteko eztabaida, «antzerti-museumako» diño bata, «biologiaren museumako» diño besteak eta kuskulu epel lurruntsua, ostikadaxoak urtika dagoela, aspillean bertan artu eta jelagaillura daroa. Brusa suridun emaztekiak, zientzilarien eztabaidak eta amaren aienak ibitzeko, musika gozoa edatu dau aretoan «otzez dardaraz dago gaisoa» doñnutzen dau musikeak, enda eta errialde bakoitzari egokionetik, euskaldunei euskeraz. Orduan arrigarriena ikusi dau Adelak: Brontzeko Pentsalaria odol-malkoak ixurika loretegian, museu barruko santu eta irudi jainkotiararak, eskuak alkartu, umearen aldeko otoitzetan. Adela bera, agurmarika dago, umea jelagaillutik salba eitela eskatzen. Ormazuloko Ama Birjiña, Jesustxo eskuetan daukana, mogidu da orduan, Adelak aidean ibiltzen ikusi dau eta Xabiartxo, beste Jesustxo bat bailitz, begi itzi-ideki baten besoetan eroela. Zirujularia, arritu ta nora ezik, aspilla uts. Nora? Nondik? Adelak zirujulariaren arpegi ankerra dakus bere oearen inguru, bere oeburu gaiñean, esku biak armatu, biorkaz zemaitzen, bere sorgin-erriak barriro azter-naiatz, «ai, sorgin lapurra! Eu izan az! Eskuak lotuko daunaguz eta barriro asiko gauzan» zirujulariak irainka eta kloroformo gabe, gordingordinean, erriak zulatzen asi yako. Adelak min biaz sentitzen dau, odola bero eta likin dariotsola iztarretatik beera. «Ai ene! Nere amak baleki» isil luzaroan negar dagi Adelak. Albotik norbaitek jotzen dau, «oea busti don ostera be» agirika gozoa dagitso, Adelak Idoiaren abotsa ezagutu dau, izarak aldatzeko lanean diardu eta transistorearen musika bardingarri bat dabil aidean, kaleko kamionen zakarrera ezabatzearen.

VI

—Nor da emen saltzaillea? Nork emon dautso fraile zikin orreri Adelaren barri eta ona etorteko eskabidea eta zuzenbidea? Ez nendunan esan, neure baimen barik, iñori ezer ez esateko? -Xabier, Baillarako Ikastolen Bateratzaille-Ordezkaripekoak, sapotzetik oratu dautso Idoiari atostean, Aita Markel ber-bera Adelaren gordelekutik eta zurubian beera ikusi dauenean, «itzi eidak bakean» amorrua erakusten dautso Idoiak eta Xabierrek sapozten.- Ez nendunan esan, ez gendula bear emen ezelako testigurik? Ez mediku eta ez abaderik, esan deunat!

—Itzi nagik bakean, zantar lotsagaldu orrek! Gustora itziko neunkek guzti au bertanbeera eta alde egin emendik, Adela ez balitsok -zapak astintzen dauz Idoia gaisozaiñak soiña jaregiten, burua zuritzen.- Ni ez nauk iñori ezer esaten ibilli. Adalak berak kartaz egikena dok ori. Gaiñera emen ez dogu iñoiz abaderik edo frailerik aitatu, eta edozelan be, Adelaren gogo-borondatea ire eta nire berbaren gaiñetik yagok.

—Orduan kartak egiten eta kartak eroaten, e?... Deskuidatu adi! Eta Adelari ezer gaiztorik jasoten bayakon, eurea izango don errua -Xabierrek eskuak askatu dauz, baiña atzamarraz ormaren kontra zemitzen dau Idoia.- Euk, saltzaille orrek ordainduko don, okerririk guri baletorku.

—Eu az, i, saltzaille eta galtzaille naiko. Orrela lotua eta urrundua euki gura izan dok gaisoa. Gorputzez

saldu enduna, berari amatasuna ukatzean, gogoz be saldu gurako endun, kontzientziko bakea eragotziz.

—Gaurko abadeek ez yauken Kristok alako indarrik, illak biztekoko edo miragarriak egiteko. Edo tiroz illiko gazteak euren amaeri bizirik biurtzeko, ba ete dozan? -Sorne, irugarren maillako andereñoak, Eskuebangelioen antzeko liburu bat dauka eskuetan eta, aren lerropetik bailirakur, irakurle azkarrak legez, begirada erdiak entzuleengana daroaz.- Gaurko abadeek ez yauken leengo «klereziaren» gatzik euskera bizteko. Aize barriak eta mirari barriak bear yoezan illek eta illaurren dagozenek.

—Batzuk mirariak ikusi eta be, ez leukee sinistuko. Guk ez dogu mirari bearrik, egia sinisteko. Fedegalduak ibiltzen dira mirari-billa: batian mutil bat edo euskera berbiztua ikusi gura dauela, bestean espetxeratu bat edo erria askatuta ikusi gura leukeela, beti erostan. Gauza askotxo iñori eskatzeko, batez be eurek, okerreko profetek, iñoiz olako miraririk egiten ikusi ez doguzala. Baiña ori bai, mirariak agindu aurretik, besteen lanak sapuzten eta euren teoretan sinistu daigula, eskatzen asiko yatzuez -Lutxi, laugarren maillako andereñoak, aurretiaz irakurriko apunteetatik legez, taxutzen dauz esaldiak eta artu eskola emoteko unea ez dau galtzen.- Guk, sinistedunok, illak berbizkunde egunerako aipatzen doguz, ez koroï ustelkorra euren monumentoetan ipinteko edo kale-manifestapenetan euren itz politeri ain errez sinisteko.

—Zuretzatt gu eskuin muturrekoak eta kristau fanatikoak gara, gure umeentzat kristau-dotriña esijitzen dogulako -Peli Tellaetxe, Ikastolako gurasoetarikoa, Mikel Goitiagana zuzendu da gurasoen batzarraren erdian eta eskuaz seiñalatzen dau.- Zeuk esango dozu orain nortzuk diren esker mutureko marxistak, eskerti fanatikoak, eta kristau-dotriña orrela zapusten dauenak.

—Ez uste, nik mutur batekoak bakarrik salatzen do-dazela. Ezker edo eskumako fanatiko guztiak salatzen

dodaz nik, danon Ikastolari kaltea baiño ez dakartsoelako eta bake-bideko konponketa eragotzen -Mikel Goitia, Gurasoen Batzordekoa, lau aizetara biurtzen da, lau alderdietatik ziri guztiei ezkutua ipinten dautse itzen eta arrazoibideen dendua esku biekin gorde naiez.- Eta ara nik esan dodana, (eta barriro be sango dot): itzi daiguzan teoriak, itzi daiguzan amorruak eta aurkako pentsakerak, kristau edo marxista direla, eta zaindu daigun Ikastola.

—Eta au don euskaldun batasuna, ene Mari! Neure begiekin ikusi eta neure belarriekin entzun ez banendu, ez nendun sinistuko! -Errose Zarate, Ikastolako gurasoetarikoa, Mari Zubeldiaren ondoan jesarri da, bera ez da ezkua jasoten ausartzen eta batzarrari berba egiten, mareatu egiten dau ainbeste zaratak. Nik euskaldunak gintsazanala, uste nendunan. Eta entzun don, orain batzuk kristiñau gauzanan eta besteak marxista.

—Emen ikusiko dogu nor zein dan...

—Au ez don batzarra; au eskuin muturrekoek muntatu dauskuen «auto de fe» bat don -Sorne, irugarren maillako andereñoa, Deboraren ondoan jesarri da, kezurrupatxoak alde batera eta purrustadatxoak bestera, urduri dago eta barretxoak dagiz.- Orain dator agintemakilla, orain egundoko zigorra: sanbenittoa, sua, pua!

—Zuek erlegiñoa aipatzen dozue, baiña praktikan klase-onurak aldezten dozuez maaipetik; mistikan asi eta politikan amaitzen dozue -Peru Gorria, Ikastolako gurasoetarikoak, zeatz eta gogor artu dau bere txanda, Alazne emazteak bein baiño geiagotan, ukondoaz zirritxu egiñaz, zuurtasunera erakarri gura izan-arren, Peru Gorriak atzamar adierazlea zaurira dakar.- Emen okerrak salatzeke gagoz. Politikea datorrela garbi eta utsean eta eleizkizunerako jantzi luzeen kapa-pean. Alderdikeria ez da eleizaren ganora; Eleizak daneri idekia egon bear dau.

—Adizu, mistikatik politikara jatxi bagara, seiñalea gu ez garela angeruak, gizaki bizi eta gaurkoak bai-

ño, geure historia eta argalkeri guztiekin -Aita Markel, Ikastolako leendakari bereziak, beeko ezpaina oskatu dau, itzari galgea emotearren-edo, ziria bere aragian sentidu daueneko, laster osatu da mututasunetik.- Eta zerutik jausiak ez garenez, lurreko eta zeruko ondasunekin baliatzen gara. Geure erriari, geure kulturari, geure fedeari eusten dautsogu, agirian berba egiten dogula. Ori alderdikeria bada... Daneri idekiak egon bear dogula? Bai, baiña ez edozertara. Daneri idekiak, daneri geure asmoak erakusteko, besteen eritsiak entzuteko, baiña ez nastea sortzeko.

—Abangelioa anai-arte da eta ez inkisidoreen lana! -Debora, bigarren maillako andereñoak, sutan jaso dauz zapa gorriak eta inguruko emakume batzuren amorruek, txutxu-putxuak, Deborak axut dagitse begiradaz.- Eta emen batzuk sorgin billa dabiz. Non eta erriko Ikastolan! Baten beteri-edo egotsi leikeon zertxo denen burutik beera bota gurarik, Ori Ikastolako maisu-andereño guztien desprestijiatzeko lana baiña ez da.

—Zatuz illunabarrean eta illunaren aurka eta oskiriaren aurka sua biztuko dogu eta illintia jasoko dogu otso guztien eta mamu guztien aurka -Adelak ezpaina mogidu dauz bere lotaldian, aren zurrumurrua Idoiagana eldu da, Idoia, Adelak zerbait esan gura dautsolakoan, urreratu da eta Adelaren erratuak antzuz.- Eta konta eidazu oster bere, aldi argitsuetan legez, ez dagoela Txanogorritxuren aurkako otsorik, ez erriko neska politena irunstera letorken dragoirik...

—Andia da orregaitiño! Entzuten daustazu, Adela? -Idoia gaisozaiñak, atorra zuria askatu eta termometroa ipiñi dautso besapean.

—«Etsaiek egin dausten zulora dira jausi, euren saretan loturik dauz oiñak itzi» -Aita Jose Luis, Ikastolako musika-arduradunak, tono erdi goitik daroa arratsaldeko salmoketa, ondo daki berak eta bere diapasoiak, arratsaldeko estarria gertuago dagola Jaunaren goralpenetarako.- «Jauna agertu da nori berea emoteko, gaizkillea bere saretan ondatzeko».

—Sinismen eta moral arazoetan Eleizaren maisutza ezagutzen dogunez, izkuntza arazoetan Euskaltzaindiarena jarraitu bear dogu, gauzak zuzen egiteko. Eta argi esan dausku Euskaltzaindiak, euskera batuaren alde dagoela -Mikel Goitia, Gurasoen Batzordekoa, maaiburura urreratzen joan da, mikrofonoaz baliatzeko baimena eskatu dau, emon egin dautsoe, Mikel Goitiak aboskera aztertu eta ortzargitu dau arpegia.- Agaitik, esaten dautzuet, gaur euskera batuaren alde ez dagoena, ez dagoela euskeraren alde.

—Kontu ortxe, esan dozunaz! Larregikeria esan dozulakoan nago, oker esana dalako! -Aita Markel, Ikastolako leendakari bereziak, Mikel Goitari mikrofonoa kentzeko bultzada galgatu dau, baiña ez dapa berari erantzuteko larria.- Neure ustez, euskera batua izkuntzarien lana eta idazlarien urteetako aalegiña da eta ez goizetik gauera asmatu dan zerbait edo biar geure Ikastolan umeei erakutsi bear yaken euskera. Euskera batu orrek denporatxo bearke dau egosten eta euskalki bakoitzak, uste dot nik, bere aberastasunak geitu bearke dautsozala, ikoak be toki guztietan ez dira era batera eltzen eta...

—Eta fraile orrek zer onik egin leikeon Adelari? Dagoen baiña nastuago itzi bai burutik. Euk esan don, gaisoen borondatea sagaratu dala, errespetatu einkean osasun-aldiko benetako bere borondatea, oraingo aulduraz uztiatu bearrean.- Xabier, Baillarako Ikastoen Bateratzaille-Ordezkariekoak, gizabide eukeratuz eta ondo irauliko bulkoz ikutu gura dau Idoia, eskuak gurutatu eta bake antzean daukaz, begirada azterlari.- Gaisozain baten zeregiña gaisoaren osasuna don. Ez egin uste, Adela ez dodala maite. Aren osasuna niretzat bitzita-erdia don. Ik uste baiña geiago arduratzen niaun Adelaren osasunak.

—Aoz esan dokana, egitez erakutsi eidak eta kito. Neure aldetik ez yoat emon pauso okerrik orretan. Adela gorputzeko gauzetaz dabilrelako jangar eta ez gogokoetaz, nik dakidanez. Adelak ez dauz nastetan Eleizako

gauzak. Nastau, zeuen ipuiñak nastetan dauz sarritan bere lokametsetan -Idoia gaisozaiñak indiziñoak uretan sartu, alkola iziotu, osakai bonbiltxoak kutxatik jaso eta ur irakiñari itxaroten dautso eta Xabier begitzen.- Adelaren osasunaz, esan dokan beste arduratzen baaz, emon daikek eure bizitza erdia bere alde, beste erdia Adela bera badok...

—Ezagutu zeure burua eta zeure aurrekoen burua eta jokua galtzeko arriskurik gabe, zeurea duzu garai-pena. Kontu ezazu, aurkalaria itxu eta gor datorkizula eupada baten, baina ez daki zu gertu zaudela, usterik gutxienean hari orpoak jateko -Batxi, Baillarako Ikastolen Bateratzaille-Ordezkarriak, Xabier eta oiko andereño baten baiño geiagoren faltea nabari dau, baiña bera, arrisku andienetan ere, une eta momentuan dagoela, erakutsi gura dautse, besteetan baiño itz eba-kiagoz sendotu gura dauz.- Ez eman zure etsaiari, zeure asmo eta objetiboen ezaupiderik. Zuhur eta poliki joan (astiro esan nahi dut) bada berokeri batzuren ondorena ezkorra izan oi da maizetan. Estretegiako erre-gelak zaindu behar dira arrisku gorrienean ere.

—Au dozue lotsaria, eroan dodana, neskak! Beti irribarrez eta maitekor agur egiten eustien ama gurasoek, gaur agurra ezeze, begirada be, ukatu egin yaustien. Zer jaso eta da emen? -Begoña, leen maillako andereñoa, ezipillura begira dago bekokian legenik edo begietan sorgin-dirdirarik agertzen ete yakon, arpegia leena ete daukan.- Ni ez noatzue barriro olako batzarretara. Eurak erabagi dagiela...

—Eurak erabagi dagiela! Akzionistak erabagi dagiela, ezitzaileok onetaz zeresanik ez baigendu? Euren erabagien mirabe baigintzaz, euren zuzendaritzaren esaneko, geu burgesiaren kate-peko. Je! Ez nauzue arrapauko! -Sorne, irugarren maillako andereñoak, goiko solairutik beeko sorura darabiz begiak, sareetan oratu dauen espetxeratuaren antzera, ostaz iziotu aal izan dau zigarroa eskuen dantza-arren, eta tirakada bat emon dautsonean, nasaiago sentidu da besaulkian.- Ikastola

salba bear dala, esaten danean, esan daisteela, zertatik salba bear dan. Eta esango dautset ostera be: burgesiaren estrukturatik! Gaiñera, niretzat, Ikastola, menpekeriko eziketarik salbatu bear diren, umeak dira.

—Nork proba leike emen ezer andereñoen kontra? Argi itandu dot leen be eta zuetatik ez daust iñortxok erantzun. Zergaitik? Guzurrak baiño ez direlako, andereñoen moralitateaz ortik dabizen esamesak. Eta euretatik baten batek esan edo egin badau okerrik, ixilean deitu eta egin bear yakon agirika -Mikel Goitia, Gurasoen Batzordekoak, barriro be Ebangelioa aipatu dau, bere buru soilean bonbilearen argitasunak santu-koroia dagitso eta argiago edatzen dau ideen erraiña.- Baiña emen gauzak bere bidetik atera gura izan dira: lenengo, une ain ezegokian batzarra orokorra deitu, gero, aurretiz, interesatuei ezer esan gabe, salapen-agiri ori erakutsi. Ez zaree konturatzen, ze desprestijio litzaken Ikastolarentzat, kursoaren erdian etxeko trapuok kaleratzea?

—Auzia leendik be kalean dago. Gu ez goaz auzia kaleratzen, kaletik jaso eta garbitzen baiño -Txomin Beitia, Gurasoen Batzordekoak, jagi denean, arnasa artu daue batzuk, beragan ikusi daue euren eritsien abotsa eta botoak banandu egin dira.- Noren probetxurako da beraz, kalean libre dabillen auzia, emen gurasoen batzarre orokorrean isilik euki gura izatea? Gurasoei auzi onen garbitasuna emon bear yakee, etxeko trapuen erantzukizuna etxekoek dauke-eta.

—Ori eskuin muturreko baten eritsia izango da, baina emen ez dogu danok bardin pentsatzen. Alderdien gaiñetik, Ikastolaren oorea salbatu bear da.

—Oorea zikiñak garbitzetik dator eta ez iñundik zikiñak gordetzetik. Eta emen ez doa iñor iñoren izen ona jatearren, Ikastolaren izen ona gordetzearren baiño. Eta onetan, jakizu bein betiko, eskuin muturreko eritsi batek ezker muturreko baten eritsiak beste balio dauela.

—Bai, ik teorian eure eritsia emongo don, eta arrazoa eukiko don euretzako, baiña praktikan, gurasoek

euren eskubideaz gelditzen dozan.- Miren, Ikastolako zuzendari-ustekoak, begiak erratu darabiz, niniak zurin-goan galdu bailitxakoz, Deboraren urtasunak aztoratzen dau.- Beti be diskutigarri izango don, norenak diren umeak, esate baterako, baiña ergelenak erantzungo deun: «umeak amarenak dozan». Eta ori olan dala, ezin gaitkezela onela ibilli, esangura dautzuet, eurek euretara eta gu geuretara, Ikastolaren ona gura badogu.

—Oraindiño paradisuako sagarrari aginkada bat emon barik agola esango neunke, eta ez eu bakarrik. Beste batzuk be ez dozue ikasi gizarte barriko jakituria -Debora, bigarren maillako andereñoak, ke-erastunak saiatu dauz lenengo zigarroakin, gero atomikaren perretxikoak, gero lillurazko ganduak.- Emen nagotzue neu, zenbat eta sagarra debekatuago, atal andiagoak kentzen eta jakizue, neskok, ez dala garratza, gozoa baiño. Gaur egun be, geuri dagokigu, emakumezkooi, sagar debekatu ori jaten aurreratzea, Ebak legez, sustantzi gabeko gizonei jakituri apur bat komunikatzeko. Ara zer don libre izatea: gaitzaren eta onaren jakitun izatea eta, askatasunerako, txiki-txikitatik erakutsi bear yake umeci, zer dan gaitza eta ona.

—Badakin, Mari, gure umeak ainbat ariñen zeraren jakitun ipiñi bear yaunazat... Jakin dagiela bein betiko, noren seme-alabak diren, nor dan euren aita eta ama, nortzuk euren aurretikoak -Errose Zarate, Ikastolako amaetarikoa, ordu lauren aurreratu da gurasoen batzarrera, Mari Zubeldia laguna bakarrik idoro dau bera baiño aurreratuago, Errosek erabagi sendoa artu dau.- Eta neuk esan bearko yautesenat egi santua. Ez dagiela pentsa, mamu batek edo, zelan esan endun? Txixtux eka-riak direla Pariseko arrabaletik.

—Umeci eta andereñoeci... Jakin dagiela jabetasuna nondik datorren -Mari Zubeldia, Ikastolako amaetari-koa, gona baltz zuri-motadunaz, oiñak trinko, begirada zuur, bereak eta beste aldekoak, inguratzen doazen batzarkideak zenbatzen dago.- Orain umeak Ikastolatik atera barik, ba dakin zer pentsa yonadan? Ikastola ba-

rruan sendotu bear dogula geure alderdia. Kanpora neu? Ez orixe! Ori gurako leukee eurak. Doazela eurak, etorri deiren lekutik.

—Nik beti esan dot, aurrerazaleen eta atzerazaleen auzia dagola emen. Eta auxe da galdera: zertarako da, gure Ikastola alako, kulturazko erakunde bat? Aurrerapiderako ala atzerapiderako? -Mikel Goitia, Gurasoen Batzordekoak, bosgarren bidarrez artu dau mikrofonoa, bostetan urrumaz estarria garbitu eta beste ainbestetan esan, erantzun, jagon, eragon.- Eleizak bere teologoak daukaz eta Euskaltzaindiak bere maisuak, izkuntzalariak. Eurek dakie bakoitzak bere auzietan. Eta ementxe dago untzea: gure gaztediak aurrerazale eta jakintsuen bidea artu dauela eta guk, urteetan elduagoak, baiña jakintzan ez ainbeste (ez diñot geure meritoa gitxieste-ko, gure sasoiak ikasketerako ainbeste aukerarik euki be ez gendun izan eta) Alan be, arrazoi bat geiago, nere ustez, argiei eragozpenik ez ipinteko. Aalegin apur bat egin barik ez da kultura aurreratzen, ezin gaitkez alperkerian egon.

—Prest nagoke ni oraintxe be eskolara asteko. Baiña neuri hatxeak-eta baiño zeozer sustantzi geiago ekarri daisteela gero. Ez bekidaz asi Frantzian-eta esaten diren berbakin neu nastatu gurarik, bertokoak ikasi baiño leenago, ba orduan txakur pustuei baiño jaramon andiagorik ez dautset egingo maisu orrei.- Peli Tellaetxe, Ikastolako gurasoetarikoak, aztun mogitzen dauz sorbaldak batera eta bestera eztabaidaren lorratzetan eta une batez, areto erdian zutunik gerttu dela, ontzi-gaiñean kapitanari begira dagoen mariñel jende esanekoa eritsi dauz batzarkideak.- Datozela gero seño-riorito barriok aitari alperkeria egozten eta laster ja-kingo dogu noren kontura jan dauen azkeneko bazkaria:

—«Zuk niri jarten daustazu maian jana ugari, etzai guztien arrigarri». -Aita Markel, Ikastolako leendakari bereziak, pozezko pilpira nabaitu dau biotzondoan eta begi sarkorren ditziretan ez baitu yako zoriona «jo! Zer esan eustan gero neska arek!...» «Emen gagoz gu frai-

leen batek-edo noiz urtengo begira...» Ez, ez zan nabarmenkeriz, ez irriz, ezpade baserriko alabak daukeen bereztasunez. Edo burla-aizez? Ako neska baltzerana, garri trinkoa, begi bizkorra bera eta ez dakit non andereño. Ez dakit olgetan ala benetan, baiña esan egin eustan, neu klerigmandun nengola, traje barria noski, baiña ez trajeagaitik... Oi, fraile gazteok aparteko eran tzuna ei daukagu gonadunen aldetik. Jesus ba! Esateko be! Ez zan ba akoa, pekatarien batzarra. Zugatzu, fraile motx orren itzaldira uste gabe joan eta ara, neuk pulpitoan baiño, berak geure Ikastolako aretoan jende interesgarriagoa eskolatzen. Ez dot uste, Zugatzu orrek Detxepareren «Emazteen faborezko» kantak aipatu euazalako, izan eitekenik edo eta orduko eta oraingo abadeak konparatu euazalako. Zer daki frailemotx orrek abadeen bizitzaz...» Aita Markelek tentaldia aienatzearen, burua astindu dau alako pentsakizunetatik.- «Eta biziko naz Jainko Jaunaren etxe ontan, gaurtik geroko egunetan».

EUSKERA BATUA: ERBIA ETA KATUA?

*(Mikel Goitianeko buzoian
aurkitu zan bertso-papera)*

Esan dauskue
kontue,
euskera dala
batue:
zer datoz oldez,
sartzeko orde,
erbi-belarriz
katue!

Batua dala
etorki
ta euskalkia
zazpiki:
bizirik zailla
dagon mutilla
azpiratzeko
aitzaki.

Ez dakigunez
frantzera,
bakarrik erri-
euskera,
jakitun-aizez

yatortzuz olez
kinkailleroen
antzera.

Atzean dauke
aurrea,
aurrean barriz
hatxea:
ez da ziurra
euron musturra
t'arpegi biko
frentea.

Batu-zalea
ezpada,
norbait, pekatu
mortala:
txantxeta barik,
Euskalerritik
makil-indarrez
doala.

Iñork salatuz
katua,
maatik jaikiz
badua,
edozelan be
deituko dautse:
«ako euskaldun
faltsua».

Ta or ezpazan
katurik,
ez ere egiñen
miaurik:
erpeak bira-
errezak dira,
ez katakera-
usaiñik.

Eta danotxuk
direnez,
ain erbi-zale
berenez,
«xapi, katua!
Betor batua!»,
bizitik bizi
oi legez.

Eiztari

Olabetik, urtarrilak 19, 1973an.

Mertxek Piliri- Oleagan

Ene Pili, adizkide miña: Eguberritako oporraldiak igaro eta normaltasunean asi zitunagu eskoak, elgorriaz oean bereak jasan eta osasunera etorri denaren antzera. Irea, Pili, elgorritik iges egitea izan unan. Guk jasan diñagu emen elgorria. Ipuñetan nabillela, esango didan, baiña geienok txikitan igaro genuenez, elgorria zer den ere zekiñagu. Eta elgorria, aurrek ezezen, gizakien ekintzen asikin guztiek jasaten zutenan. Olaben jasan degunaren diagnosis egingo diñat, or Oleagan nabari zaizuen pikorren sendagarrirako, larriaren larriz urkatu ez adin, «zer izango da nitaz, Mertxe» esaka, edo okerreko medikutzaren galdez. Zer izango den ba? Leendabizi, mota gorrizkatxoak banaka agertzen ditun azalean, gero taldeka. Odolaren beroak igoten din orduan eta larru guztia goritan jartzen den, ur-galdatan egosi den karramarroaren antzera. Orra elgorria zoldua. Orduak, egunak, asteak gorrimiñarekin burrukan, kinkan eta gero pixkanaka-pixkanaka, beroa berera datorrela, ibitzen den gorrimiña. Elgorria sendatu den eta bizitzak osasun-bidetatik jarraitzen din. Orain Ikastolako gure aurren arpegietara parre-irria itzuli den, ziurtasuna gurasoen biotzetara eta pakean lan egiteko go-go emen gelditu geran andereñoekana.

Nola izan zan artara irixtea? Uste zumat gurasoen euskalkia sapuztetik asi zela, guraso eta seme-alaben arteko arremanak naasten lendabizi, gero gurasoek ez ulertzaaren, elkarren aurka jartzen asi zitunan, Ikastola erdibi egin eta pikutara joan bear zuela. Eztabaiden azkenean, gurasoek burua altxatu zuteneko, maisu batek bere kasa alde egin unan, andereño bi espedienteatuak izan zitunan, beste batzuk, iru-lau, beekin bat egiten zutela. Espedientatuak orduan, ustez orren gorroto zuten auzi ofizialera jo zutenan, aren okerrak ordaindu, gorbiziak baretu, diru-utsuneak ornitu eta zenbat olako egin bear izan zituzten Ikastolako gurasoek.

Espedientatuekin bat egin zuten gurasoek ez zitunan dozena bat. Atzeratuko zorrak ordaindu gabe, beren seme-alabak Ikastolatik eraman zituztenan. Mindurikari zebiltzen oraindio, Ikastolatik burgesek jaurtikiak direla, esaten. Or ibili ditunan esaten, integrismoatik berezi, Elizatik aparte, beste Ikastola bat egin bear dutela eta, famili-bilkurei diru aurreratua eskatzen. Baiña utsa: ez kolegio modernorik eta ez ikastola aurrerazalerik. Lurrak, presupuestoak eta diru-oiñarriak guraso kontentagaitzak berenganatzeko kanpaiak zitunan. Ikastola berria sortzea baiño askoz errezagoa izango zaiena besteen bat elgorrimiñez ustea, eta batzuek egin dutenez, estaduko eskoletan sartu aurrak, euren asmoetarako ikastola burgesak baiño, obeak direla aitortuz. Au da, ikastola burgesak gonbatitzea, iraultza lana dala, esanez etabar.

Baiña naiko den nekebide onetaz, batez ere Lupe eta Arantxa gogoratzen dizkidan ordu onetan. Zer esatea nai den? Zoritxarrez beste alderdian gelditu direla gure oiko adizkideok. Bakoitzak bere bidetik jarrai bearke. Fama gaiztoa egin badigute ere, ondo dakite, jakin, emengo erabakiak geienen botoz onartuak izan direla. Ire Julenen berri-izpirik ere ez emendik. Ziurtzat ematen da mugaz bestaldetik dabilela, eta pakeraiko izan dedilla. Joxe Mari eta nerekoak, elgorri-krisi onen ondoren, zerbait aurreratu duela, esango niken. Eguna eltzen baden, abisatuko diñagu aurretiz. Bitartean ago lasai eta gorde adi elgorrimiñetik. Besarkada eta musuak biotzez.

Mertxek

IKASTOLAKO GURASO BATZUEN AGIRIA

(Gurasoen Batzar Orokorrean irakuri nai izan, eta bein eta barriz aurkalarien uju eta ukak eragotsi euen, 22-urtarrilak-73 an, illuntzean. Erderatik euskeratua).

Gure Ikastolan sortu yakun burruka politikoa eta ideologikoa salatzen gatoz. Gauzak ondo yoazen gure Ikastolan, umeak gurasoengandik zelan aldendu eta gurasoak alkarrengandik zelan banandu, norbaitzuk asi ziran arte. Gurasoak lotan gogazela, azi txar naiko eren da gure umeengan, arpegi biko informaziñoaz gurasoen eskua laburtu gura izan dela, euretatik askok ez dakiela, Ikastola barruan zer egosten den.

Alde batetik irakasleek, Batzarreko Araudia ezeztuz, zuzendaritza ukatzen daue, bakoitza norbere jardunaren erantzule autatzen dela. Ori gitxi bada, euren gogozko Batzordea eskatzen ausartu dira, dagoena atzerati emoten daularik, bein eta barriz, gurasoen gogokoa agertu-arren. Batzordeak bialduriko sikologoari ateak itzi eutsoezan irakasleak, sikologoa abadea zelako ain zuzen, beraz ez euren konfiantzakoa. Eta okerren dena: kristau-dotriña, esanera eta gogora erakutsi bearrez, euretariko batzuk umiei klase-burruka erakusten jardun izan dira eleizpe-eleizpean, umeok gurasoen aurka jarri gurarik, gurasoek kapitalaren semeak direlako esamesaz eta eurak, irakasleak, proletarioak. Andereño batzuk, kristau-aitorra emon eta ekandu onen izpillu izan

bearrez, erlegiñoa ipuiñekin naasten daue eta mezako oikunak sorginkeritzat emoten, bai eta eskontza-bizitzaz eta seksu-gaietaz badaezpadako aleak botaten. Baba onek eleizpean egosiaz gero, gurasoen sumoak urrunzen euezen eta laterriaren begiramena itzuriten. Irakiñak ostera, ortik eta emetik bere sundatxoa atera daue-nez, susmo egin eta ikusi zein zientifikoki muturka ibilli diren gure zaspikin gaisoa abortatu bearrez:

1.—Erlegiñoan aurrerazale agertzen yakuz, katoliko praktikante egiten daularik, Eleizaren eta Ebangelioaren oorea salbatu nairik dabizela diño, baiña ebangelioa bera desmitifikatzen -ipuiñekin bat egiten- ari yatzuz azpitik, umeen sinismena galerazteko.

2.—Klase-burrukaz eta langillearen liberatzeaz barra-barra itz egiten dautzue, euskal kontzientziak bost ardura dautsela, euren burrukeari koipeak ateratzeko edo ezpada.

3.—«Erria» izena alperrik aotan artzen dakie eta «kontzientziatuen» agintea (leoiaarena) erriaren gain eskatzen, eurak bakarrik bailira, erriak zer bear dauenaren jakintun; erri-borondatearen gaiñetik, euren jauntxukeria ipinteko.

4.—Pedagogi askatzaileaz berba egingo dautzue eta goitik beerako darabilen politika-erakundea opa dautzue maaiptetik.

5.—Ikastolako erakundean «kidekoen» billa dabil-tzuz, boto bidez Ikastola euren bideetatik bultzatzeko, aal baleikee eta, eziñean, aiko-maikoetan batzarrak lorrinzen dauez, erabaki sendoak urrintzeko edo boto-bidea eragozteko.

Geure esperientziko zeatzasun batzuekaz eta aune-lako iraultzaleak euren ekintzan erabilli oi dauen teknika, puntuokaz salatu gura izan dogu, buztanaren luzetik oartu daizuen azeriaren jokerea. Ez da arritzeko jende ausart au eleizaz eta ango erakundeaz baliatzea,

leendik be eleizako gaztedi-erakundeetan euren arrastotxoak itxita daukeez-eta. Eleizpean idoro dauen askatasuna ez da izen edozelangoa, antxe be illunpeko semeak, argitakoak baiño zuurrangoak agertu dira eta. Baiña eldu da iratzarteko eta gure Ikastolako nastea argitzeko ordua. Gure umeen etorkizuna gurasoon auke-rabidetik azten eta osotzen ikusi gura dogu.

(*Firmak darraie*)

ADELAREN IRUGARREN BAKARTADEA

(1973an, urtarrillak 9 gauean).

Artola baserrian, Maidagane aldean, etxeko larretan beiak zaintzen egoela, Adelak itxasoa ikusten euan alde batetik eta mendiak bestetik. Egun argitsueta itxasoa, zeruaren jarraipena begitantzen yakor Adelari. Andik ebillen Tomas nebea mariñeltzan. Itxasontziak ur urdiñetan, txindurriak baiño ez andiago eta idiak baiño ez ariñago, emoten euen. Agian Tomas Maidagane alderantz begira egoken, «ikusiko ete nau orren urrunetik» Adelak eskuzapia luzaroan astintzen eutson, ontziren bat ikusten euaneko. Egun argitsuak urriek izaten ziran zoritxarrez Maidagan aldean. Laiñoak, odeiekin bat, goiak artzen euezenean, ez zeru eta ez itxaso orduan, ez Tomas nebeari agur-bialtzerik, oroitzenak bakarrik eta otoitzen bat, amak errosaio ostean, Tomasen alde aitagureen bat agintzen eueanean. Itxasoa ur mortua zan arduan Adelarentzat. Bizigarriagoa emoten euan mendi ostetik nabari zan lantokien burrunba-otsa eta Oleagako galda gorien dirdaia arratxeko odeietan. Amaren ordez Kontxi aiztea asi zan astero uriko plazara joaten. Adela amari laguntzen gelditzen zan, aitari amarretakoa solora eroaten, iturritik urak iragoten, egurrak txikitu edo beiak larratzen. Kontxi aizteak senargeia eukan ordurako, eta Adelak erabakia artuta eukan, Kontxi Artolara ezkontzen zeneko,

urira mirabe bialdu egiala, eskatuko eutson amari. Eta epea eldu zenean, eta urira bizibidearen billa joan zenean, ondo gogoratzen dau Adelak «fin-fin, alaba» esan eutsola amak, negar-anpoluen bat eskuzapian gordetzen euazalarik, «ondo porta adi» oar egin eutsola aitak, mosu bat berari emoteko gogo ertzituan. Artzaiñak artaldea Artolako larretatik mendietara biurtzen euan garaia zan arakoa. Artzaiñak urteko bildotxa opa izaten eutsen Artolakoei. Adelak gogoan dauka arako azken Pazkoetakoa. Bere atzetik ainbat larrera bide egiñik, ia azita egon. Beragaz, Adelagaz, egin euan bere azken larreratzea, pozik ikotika. Ez ain pozik bera, Adela. Mendian galdu izan bazan be, ez eutson samin andiogorik emongo, ba ekialako urrengo egunean okela eta narru biurtuko euela. Berak, Adelak, etxetik alde egingo euan, alakorik ez ikusteko eta odoltze-une larrian, bildotxaren begiak bera, Adela, errundun jo ez egien.

Artaldea urtero itzuliko zan Artolara, Maidagan aldera, baiña, Adela, ba dira iru-lau urte Artolara itzuli ez zala. Lenengo Gabonetan bai eta urrengoetan ere. Ezin etsi gurasoen gozorik gabe. Gero lanak eta ikasketak ugaritu yakozan Adelari urian eta kaleko zurrunbilloak artu euan. Bere azken etxeratzea Tomas nebea itxasotik ikusaldi bat egiten etorri zanean izan zan. Gerago, ezuste batez, erraiak azur barritan sentidu euzanean. Adelari etxeko okordua etorri yakon. Nork obeto alakoren barri, amak baiño? Baiña iru urtetxo areik jaso euen esia, mendiak legez aurkatzen yakozan Adelari, bera eta etxekoan artean. Zer esango ete eutson amak? «Ara, gure sorgiña! Ikusten dozue zelako gano-rea dakarren gure alabak?» salatu einkean aitaren aurrean, aita lotseak artuko euan eta amak gogorrigo eraso einkeon: «Ori don kaleak erakutsi dauanan leziñoa? Ze lan-modu darabilen gero? Non don mutil barranban ori, edo non dozan erpeak sapotzetik berari elduta amaren etxera ez erakarteko? Ze oraingo mutilla eta oraingo neskatillak!... Ikusten dozu, Jose, ikusi, zenbat ikasi dauen gure alabak ortik? Ara ba, baserriko astoa

gura izan ez euan arako señoitea, ez yatortzu ba kaletik leporaiño zamatuta etorri?» Edo eta, nork jakin, amak errukiz begiratuko eutsonentz, Gabon gau aretan legez, «etorri az noiz edo noiz, alaba» esan eutsonean, pozez urtzeraíño, samatik eldu eutsonean. Arako amaren malko barriak garbitu einkeon osterera ere biotzeko garratza, «ez adi larritu, alabatxo. Ikusiko don zelan dana bideratzen den. Artolan nasai agoke, bildotxak be ia egunero jaioten dozan eta; danentzako larre naiko egongo don...» Ai bide arein erratua! Artean Adela Oleagako monjen ikastetxe baten, ikasien orde, platerak garbitzen asi eta ikaskideei maaiian serbitzen. Lotsa be emoten eutson Adelari amar urtekoen eskolara joateak, berak amasei eukazala. Baiña ori asieran izan zan. Gero urterik urte, maillak bere adiñagaz bardiñagotzen joan zan, ikasurteak biñaka eroazela. Adela batxiller tituloaz pozik egon. Maistra-tituloaren amesetan, Adelak Oleagako Ikastolan lortu euan irabasteko aukerea. Berak entzun eutson atostetik gurasoen batzordeko bateri esaten «maistra-titulorik ez dauka, baiña euskera ondo be ondo daki, eta emen euskera ondo dakienak bear doguz». Adela ez zan konturatu ordura arte, kalean eukan titulorik baliagarriena, kaleak barik, baserriak emona euala. Eta Eskola-Aurreko ñekato-mutikoan artean burua ikusi euanean, euskera berbetan asi zan osterera bere, errian Marifeli edo Julio laguntxoekin oi egian erreztasunez. Ez yakon aaztu euskera lau urte aretan, «au eskua da, au atzamarra da, oneik begiak dira» amaren leziñoak berresaten asi zan Eskola-Aurreko aurtxoan begi arrigarrituen aurrean eta berak, Adelak, kontuizu maitasun utsez egiana, kaleak oparo ordaintzen eutson dirutan. Nork esan einkean, noiz baiten Artolako euskerea, ango esneak eta porruak baiño, prezio obea egingo euela kale-kalean. Kaleko plazan denak balio dau, egian esan, baserrian baiño geiago. Kalean estimadua da baserriko emoitza, kaleak baserriari dautson maitetasuna urdailletarañokoa da, kaleak iruntzi egiten dauz baserriko frutuak, «au sagarra da, oneik

indiabak dira, oneik kereizak dira»... Ikastolako frutu aulak aurki, baiño ondo ordainduak. Zer izango da euskera frutuaz? Muskillak loretan dagozanean izan oi da mozorroen aukerea:

«Mamorro edo marmalo,
gero ta lodiago,
orri mardulari oska
loreari begi dautso.

Oska zulatuz orria,
azi dau garri lodia,
loreari begi dautso
t'agan gertau dau abia.

«Zeu lako lore politik
ez dot egundo ikusi nik».
Ta kolkooan sartu yako
mamorroa lauzengari.

Lore galdu, sagar potin,
frutu gaiso, biotz eri:
loreari gaitz dario
mamorroa barrutik.»

«Ai ene, amaxu, amaxuuu! Zatoz arin, il egin naue-eta! Ez nozu lurra jorik ikusten? Bai, bai; txarto egin dot benetan, baiña ez nagizu itzi bertanbeera. Salbau nagizu, ama, zauri onetatik. Ez nendun egingo, ez olakorik, zeu emen egon bazintzazan. Engaiñatu egin naue, ama; parkatu egistazu. Ez nagizu itzi, ama, eroan nagizu zeugaz etxera. Besarkatu nagizu, ama, otzak artuta nago-eta, ia illik nago-eta. Zeure alaba, Adela, naz...»

VII

—Pekatua, zerua, inpernua! Ipuñok ez dozan egokienak Adelaren bakerako. Larritu eta kikildu baiño ez yuen egingo. Nekerik naiko yaukan leendik be, geroko zigorrekin ikarazteko -Xabier, Baillarako Ikastolen Bateratzailla-Ordezkaripekoak, alkandoraren boltsikotik zigarro-paketea atera dau, zigarro bat ezpaiñetatik eskegi, beste bat Idoiari eskeiñi, ezetza lortu, kiskeroa boltzikoetan aztatu, idoro, zigarroa iziotu, paudadak egiteko begiak itzi, ezpaiñak okertu eta keak okatu dauz -Adelak bizitzeko poza bear yon, alaitasuna, ames ederrak, bizitzako errealidarera etorri daiten, indarrak artu dagizan...

—Orixe, euk orain arteko portaeraz erakutsi ez dautsokan guztia. Berba politik diñozak benetan: ames ederrak aitatzen, bereak zapustu eta gero, bizitzako poza, eriotza ateetan daukala. I... -Idoia gaisozainak ontziko ur zikiñak irauli, ur garbiari emon, zapiak uretan sartu, odolduak Xabierrek ikusi egizan jaso, lixibatu, igurtzi, ikusi.- eta ire ames-zerua inpernu etorri bayakok, arrazoia yaukak Adelak beste zeruen baten pentsateko.

—Zergaitik beste pentsakerako gurasook eleizagaz topatzen beartu? Zergaitik ikastola bakarra euki eta bera ideologi bateri lotu, danontzako idegi bearrean? Ibon Gorria, Ikastolako gurasoetarikoak, Alazne emaztearen zirritxoei jarmon gabe, batzarrean erakusten dau

etxean daroan burrukea, eta Maitane bere alabaren kristau-ikasbide, lenjaunartze eta negartxoentzat soluzio-bide teknikoa eskatzen dau.- Une onetan, esan gura dot. Gero, askatasuna datorrenean, bai; guraso bakoitzak bere meza eta ritoak aukeratu dagikezenez, orduan bakoitza bereaz konforme...

—Adizu, ritoak aparte, dakigunez, ez dago meza bakar bat baiño eta Ikastolakoa, umeentzat emoten doguna, euskeraz emoten dana. Zuk eleizagaz, ala mezeagaz, topo egitea, esan gura izan dozu? -Aita Markel, Ikastolako leendakari bereziak, eskuak maai-gaiñean ezarri dauz, agintea goitik daukeen eraz, maai-gaiñetik kendu dauz, jesarlekua apur bat atzeratu, begiak jatxi.- Eleizagaz topo egin gura ez dauena ez daitela etorri mezarara: orrela uts bataz txori bi...

—Ez da ori nik diñodana. Ezpabe, zertarako bailo dautse gure umei txikitari ainsteste meza entzun, dotriña ikasi eta gero, andi egiterakoan, nausiongan, kristatutasuna barik, ejemplo txarrak ikusten badauez?

—A, bai: zuk esan gura dozu, guraso batzuk ez dagozela kristau-eredu izteko gertu eta beraz alperrikoa dala umeari gauza politikak eta dotriña erakustea. Zer esanik be ez, gurasoek etxetik lagundu ezik, medarra izango dala guk Ikastolan emon geinken kristau-eziketa.

—Nik ezingo dot tira-biraka onela jarraitu datoren kursoan, gurasoek alde baterik Baillarako Ikastolakoak besterik -Begoña, leen maillakoen andereñoak, bere praken birbiltasuneri eusten dautso une batez, gero esku biak beeruntz emeki labantzen dauz.- Au ez dozue irakasgintza, neskak, au burruka baiño ez dozue.

—Esain, Begotxu, laster ezkontzeko amorratzen agola eta, bein ezkonduz gero, Txusmik ez deunala itzi gurako eleizpe illun onetan; berak ekarriko daunala biontzako naiko alogura. Bai gozo! -Lutxi, laugarren maillako andereñoak, eskuaz leuntzen dautso Begoñari bekokiko ule-mototxa, keiñu dagitso Mireni Sorneren

ostetik, unadaka abotsa aieriz minduten dauela.- Guk, laztana, iñoiz ezkontzen ez direnen komunitate bat fundatuko yonagu, edo ezkondata be, ze famili ekarri gein-kenan erbeste onetara, edo obeto esan, burruka onetara?

—Gurasoek gure eziketa kontrolatzen asten badira, ez konta nigaz -Sorne, irugarren maillako andereñoa, leiotik begira dago, kalean dabizen beribillak, espaloitik daozen gizakiak seigarren pisutik begituta, txikiak begitantzen yakoz, barne-problema andiagotzen...- Eta, bear bada, ez nauzue datorren kursoari begira egongo...

—Ik ostera, Begoñatxu, ezkondu eta umeak biñaka ekarri bear dozan. Geuk eziko yonaguz Ikastolan erdi-presiotan eta amaren euskerean, atan be. Izkuntza ez dogulako atera nai bere eritsi subjeto, estetiko eta etikoetatik. Entzun don ori? Ik bai ziur gurako, Begoñatxu; laster Ikastolako ama izango az eta. Edo eure seme-alabatxoak eziketa zientifikoaren indikui biurtzeko, aurretiz prestatzen ete az?

—«Zure usotxo ez bota, arren, miruari, jaube egin ondo zure txiroen biziari». -Aita Markel, Ikastolako leendakari bereziak, fraile-jantziaren kolko-sakeletik eskuzapia atera dau, zintz egin dau, salmoen doiñua unadaka galdu, uste gabe testotik aldendu, bere larretatik aldamenekoetara doan ardiaren antzera, gogoeta galduen leloa entzun eta lilluratu egin da «jo! Neska batek fraile bateri esateko ez da gitxi be... Zer ete dogu ba fraileok? Edo... zer ete daukee andereñoak? Edo maisutxu barriok? Gu izan ei gara orain arte andereñoak gure gona-peetan erabilli izan doguzanak? Ez ete da ziu-rago, gu gona baltzak izten eta beste batzuk bizar baltzak izten dabizela euren okotzaz indar egiteko. Zugatzu orrek ez dau oraindiño bizarririk itzi, kaputxino izateko be ez eukan naiko bizarririk-eta. Baiña, arek esana, Dexteparetik Fray Bartolomegana ba dago aldetik, aren maite-jolasetatik onen maitasun zeatzera. Eta Fray Bartolomeren ganorarik gugana be ba dago alderik, danok kapilla baten sartzeko... Jo! «ementxe gagoz gu, ande-

deñook, ea beste fraileren bat-edo noiz komentutik ur-
tengo», baiña ondo itzuri nendun ziria, ez nindun lotan
aurkitu, «ez guri begira egon badaezpadan, gero larregi
berandutu ez dakizun», ondo erantzun, ez ala, Jauna?
-«Gizon apala ez bei gelditu lotsagarri, bai ezker onez
kantaka zure izenari».

—Bai, laztana; zu txiki-txikia izan zintzazanean,
ementxe amaren barruan egon zintzazan isil-isilik eta
nik zugaitik Jaungoikoari erreguak egiten neuntsozan
onik urten zengian eta zuk orduan pozezko ostikada-
txoak botaten zeunstazan barrutik, ia azten eta anditzen
zengozela, amari aditen emoteko -Errose Zarate, Ikas-
tolako amaetarikoak, Jaionetxu besoetan artu dau,
etxeko mutikoa seaskan lokartu danean, orduan laztan
guztiak, mosu guztiak alabatxoagana iduli eta atzama-
rra Jaionetxuren sudur-puntan ipinten dau.- Eta naiko
koskortu zintzazanean, amaren altsu barrutik salto egin
zendun kanpora, ale!

—Eta gero ostikadaxorik botaten nendun, ama?
-Jaionetxu bigarren maillako neskatoak, andi eta biribil
erakusten dautsoez amari arritu-begiak, arako Jaione-
txu izan zenaren aipamenetan.

—Gero besoetan artu zinduguzan, laztana, eta elei-
zara bateatzen eroan aitak eta biok.

—Noren izenean gero?

—Batasunaren izenean! Baiña oster a be emen Eus-
kadiko batasuna oztopatzen da. Zer egingo daue gure
umeak Gipuzkuko Goierrira edo mugaz andiko Lapur-
dira oporraldietan-edo doazenean? Zertarako balioko
dautse orduan emengo euskalkia? -Mikel Goitia, Gura-
soen Ordezkarietakoak, profeta ezetsiaren deiadarrak
ozendu dauz lenengo, erruki begiak busti gero, aienak
eta aiñenak ore bardingoetan nastau.- Agaitik auxe da
nik diñodana: izkuntza bakar bat bear dau gure erriak,
Euskadi bat danez, euskera batuz Euskadi batu izan
gaitezen.

—Bueno ni Euskadi batuaren alde nago, famili ba-
tuaren alde nagonez. Baiña nonbait zure ardura, gure

umeak (ez dira izango neureak, burgesenak-edo esan gu-
rako zenduzan) oporraldietan-edo mugaz bestalderaiño
doazenenak, zelan alkar ulertuko orretan dago. Nire ar-
durea ez doa oren urrun. Nire ardura, neu eta neure
umeak sendian eta geure umeak geure kalean, zelan al-
kar ulertuko onetan dago. -Peli Tellaetxe, Ikastolako
gurasoetarikoak, txapela erantzi dau batzarrean eta zu-
rrumurruek gainetik, mariñelak olatuen txastada-gaiñe-
tik baizen, zoli atera dau abotsa.- Bear bada euskaldun
barriok porru-aziak idoro dozuez euskera batu orren-
gan. Niretzat galpena baiño ez. Emen dakiguna aldre-
besten asten bayakuz, dakiguna aztu eta ez dakiguna
egundo ez ikasteko arriskuan gelditzen gara.

—I, andereño orrek, Sornek, Barrabasena egin yaust-
tak oster a be. Berak ba ekian, klase-ostean nik jaunar
tzeko umeekin kantu-saioa neunkala. Baiñoak agindu-or-
durako, eta bere umeak etxera bialdu-barri -Aita Jose
Luis, Ikastolako musika-arduradunak, auzira daroa oke-
rra, Aita Markel eroapen andienaz ourkitu dau, zeazta-
sun guztiakin konta aal izan dautso.- Ez yaustak ezer
esan, gero korredorean ikusi dodanean, ez yaustat emon
gura izan, leendik daukan baiño motibo geiago, bere on-
dotik igarokeran, begirada bestaldera biratzeko.

—Jo! Erreta yagok. Eta badatik non erre zoan. Ko-
mentu batean, monjen artean. Erremin andiagorik ez ei
yagok, je. Erreminta makala dok bera be, baiña asko
sufritzen yok eta sufridu eragin.- Aita Markel, Ikasto-
lako leendakari bereziak, gogara ebatsi dautso Aita Jose
Luisi, Markel barrezka gelditu da eta Jose Luis oiko-
monja baten erredurak zelan limurtu ezean.

—Frantziako Matxinadan ere Eliza eta Erreboluzioa
eziketa kontrolen (bakotzat bere erara kontrolatzeko,
alekia) burrukan nabarmendu zituan. Eta zentralismoak
artu zituan orduan ere leoiaren eskubideak. Orain, gu-
raso bat boto bat, esan da; orduan denok izango gara
guraso, gogozko odola gorputzeko irrisen gainetik ba-
loratu dadinean. Anartean ohialak jatxi beharra dago,
jatxi eta larregi nabarmendu diren buruak apaldu. Zin-

tzotasuna urrea da, baina estrategiak baloratzen du -Baxik, Baillarako Ikastolen Bateratzaille-Ordezkarriak, arnasa inguruko larritasunen gaiñetik sakon artzen dau, historia sakonki begirutzen, gudarosteen zarraparren gaiñetik eta ur sakonetako ekipoa eta trebetasuna eskutik daukazanaren antzera, barre dagitse azaleko uñien kirruei.- Ongi dago beraz, Gobernuak norma jeneralak denontzat ematea, eta egoki denean betearaztea, baina utzi talde bakoitzari norbere eineko ezidura ematen. Estatu frankista ala Eleizaren menean egon... Bietatik zeñien menpetza larriena? Han eta hemen daude istiluak. Baina erdal eskoletan (estatu frankistarenetan, alegia) ez Elizakoetan aina. Han Estatuak kontrolatzen, hemen Elizak. Hori argi dago. Hor dago gure auzia. Hala ere, goiz edo berandu, eskola bateko eta beste-koak, unibertsitatetik igaroko den gaztedi berria izango da eta han egiten da sakonean benetako burruka. Beti ere ideen kontrajartzeak egiten duelako unibertsitatea eta unibertsitasuna.

—Zeren izenean?

—Pluralismo baten izenean. Baiña «noren izenean» ere galdetu zeinkean. Eta esango dautzut: geure umeen izenean, ain zuzen. Eurak eskatzen eta esijitzen dauskue, gaur erri pluralista baten bizi aal izateko, ezi daiguzala. Bestelako itxituraz aurrerapideari giltza emotea da -Mikel Goitia, Gurasoen Batzordekoak erlojuari begitu, minuto bat mesedez eskatu, bi minuto jarrai eta oraindiño aidean darabil eskua.- Eta gure Ikastola erriarena, danona, danontzat idegia izan bear dau, justiziak eta kristau karitateak eskatzen dauskunez.

—Nik ba dakit karidadea nondik asten dan eta niri beintzat ez yatordaz seme-alabak, zuk diñozun alako esijentziekin -Mari Zubeldia, Ikastolako amaetariakoak gizonezkoen arteko eztabaidan eskua artu dau.

—Zure seme-alabak txikiak izango direlako. Baiña nik, leen be esan dot, ni seme-alaba aziagoak daukeez gurasoen izenean natorrela. Eta gaiñera ez da bardin

batek bere aburu partikularrez edo askoren izenean berba egitea.

—Neuri, zuri bat, pluralismoaren izenean. Ez da goela zuririk? Orduan dagonetik, batasunaren izenean. Kustiñoa da, zeozer artu barik ez egotea -Peli Tellaetxe, Ikastolako gurasoetariakoak, zurrutatatxo egin eta eskuan dauka basoa, ez da konturatzen ontzi beretik edateko begira dagozela beste batzuk, Aita Markel ikusi dau batzarreko atzedan-alditxoan korredoretik zear doala.- Bedorrek ez dau artzen ezer ala? Orduan ardaorik artzen ez badau, zeren alde dago? Batasunaren ala pluralismoaren alde.

—A! Nork jakin orixe? Biurgune asko yagok bien artean eta, batera oalakoan, bestean jausten az, ustegabeen -Aita Markel, Ikastolako leendakari berezia aurkalarien arrenkuraz isil-gordeka itz dagi.- A! Orregaitik diñostazue? Idealista utsa da, baiña..., antza... beste mutillek maniatzen daue.

—Ez dau orek iñork maniatu bearrik. Ezagutuko ez bagendu! Non eskua, an saltzea da bera. Tomate gorrikoa gaiñera.

—Itxasotik orroa berdeak, legorretik zema gorriak eta dragoiaren eskaten kolore nastea. Dragoiak lau buru eta ainbat aburu, buru bakoitza bere koloreko. Zeuk esango daustazu, ez datorrela neure aitaren larreko bildotx errukariaren griñaz, zeuk esango, ez datorrela neure eskutik, neure altsotik jaten euan bildotx errugabea irunsten... -Adela, auleriazko lilluraz, itz altuan asi denean, Idoia gaisozaiñak esku bat artu dautso «neu nozu, laztana; ez zaitez larritu» bekokian laztan dagitso eta orduan eta larriago jarraitzen Adela barrutiko bere mamuen burruka. Neuk kontauko dautzudaz aren lau buruko lau aoen guzurrak: lenengo aoko eztenaren ziriak, bigarren aoko eztenaren likiña, irugarren aoko eztenaren gizarmiin antzeko berbeta nastua eta laugarren aoko eztenaren birauak...

—Ez Adelatxo; ez zaitetz larritu. Ara, ama yatortzu laster eta osatuko zaitu... Ez dautzu inork kalterik egingo.

—Ikastolaren kaltetan baiño ez doa, andereñoen kontra, olako esamesetan ibilli dana eta ortik igarten dot batzarre au, nik egundo onartu ezin dodan batzarre au, geure andereñoak desprestijiatzeko muntatua izan dala -Mikel Goitia, Gurasoen Batzordekoak, bigarren aldiz eskatu dau luzapena, asko erlojuari begira dagoz, botoa emon edo alde egiteko, Mikel botoa zelán eragotzi.- Emen zigorra aitatu dalako, errua probatu aurretik. Nongo demokrazian sartu garen! Lankide-batasuna izenean manifestatzea, orrenbesteko erratu ete da? Bai ziur burgesen munduan. Eta errua probatu aal balitz be, ez ete zan oar bat egitea naiko? Baiña ez oar eta ez erru. Emen gauzea likidatu egin gura da. Botoz likidatu ere. Ze demokrazi da berau, errudunari defensorako aukerarik emon gabe, bertan kondenatzea?

Oleagan, otsailak 12, 1973an

Mikel Goitiak Aita Markel Zubeltzuri

Agur jauna: Zoritxarrez guk haseratik ebitatu nahi izan genuen, Ikastolaren zatiketa egiña dago eta denona genuen Ikastola, eskuin muturrekoen eskuetan jausia da. Guk uste genuen, zedorrek itxaropena eman zenigunez, responsable guzian batzarre batez, bide erdi batera helduko ginela, gu ezetsion izen ona eta ohorea bere tokian gera zedin. Baina usteak ustel, ez dakigu Ikastolako Batzarretik zergatik aldendu gaituzuten. Kontzientziak agindu diguna egin dugu beti ere, pertsonen ohorea errespetatuz, inori gaitzik egin gabe. Zoritxarrez ezin genezake esan beste hainbeste zeuokatik. Bestelaz, zergatik nirekin aukeratuak izan ziran besteak, neu bezela, ez dituzute gurasoen ordezkarietatik aldendu? Baina zuzengabekeri onek beste batera garamazki. Zergatik irakurri, edo zergaitik permiti zen irakurtea Batzarre Orokorrean, geuri ezer esan gabe, eskuin muturrekoen agiria? Zertarako, batzarre guztia irabiatzeko baizik? Eta akusatuei defensorako astirik eman gabe, kolpean auteskunde berriak egiteko? Hori ahal duzute zuen zuzenbidea? Gauzak behar bezala aztertu gabe, norbere nahirara ebatsi? Eta Ikastolako gurasoen aurka, Batzarrelegeen kontra, Ikastolaz jabetu zarete indarrez.

Eta eskuin muturrekoak ez dira horrekin nahikotu. Izan ere eskuindar dena, denetan da eskuindar (ikus ez-paere, «Ibai» aldizkarian Inurrategiren iru artikulua) berdin erlijioan, politikan, soziologian eta artean. Linguistika ahazten zitzaidan. Ba berdin Linguistikan. Eskuin muturrekoei ez zaie hori ahaztu. Guk Oleagako Ikastolan guraso-ordezkarien eta irakasleen erabakiz honartu genuen euskera batua ezetsi eta herri-euskera indarrez sartu duzute. Eta arazo honetan eliz-gizonek ere ezingo duzute esan, eskuindar muturrekoei biderik ez diozutela eman. Argi ikusi ahal izan genuen joan den ileko «Impulso» faksisten aldizkarian, poliki erderatuta, han ageri zenuten, Ikastolako egitamu berria, euskera

batua ezezten. Toki hoberik ez zenezaketen aukera halako publizitaterako. Eta hau gauza bitxia da Euskalherrian: Elizako Erakunde bat Euskaltzaindiako erabakien kontra, dekretoz eta buru-utsean, espezialitatekanpo, Teologia Linguistikaz nahasturik.

Azkenik guzi hau ez da izan hainbeste harritzeko. Geure aldetik Elizaren «borondate honakin» fidatzearen izan da dena, atzetik dadukan historia hondo ez begiratzearen. Eta zer diosku historiak? Inkisizioa, integritismoa, jabetza, zesaropapismoa (ikus «Vitoria» aldizkarian, Santanaren «La ciudad secular» artikulua) Baiña nondik etorri gara honaño? Ai, gure Ikastolatik!... Bakarrik guk geure semeentzako amets genuen, Ikastola neutral eta independientea pikutara joan dela eskuin muturrekoen atzaparretan. Ez genuen nahi eskuin muturrekoen politikarik gure semeentzat. Eskuin muturrekook, faksikeriaren garaí honetan, unea bere alde dutela, uste dute, baiña ez luzarorako, halako dokumentoak eskutik daduzkagun artean. Esan nuen, eta esango, ekintza doilor hori salatzen dituen, dokumentuen jabe naizela. Nik erakutsi nahi izan nizuenean, aintzat ere ez zenuten hartu, baina egia nola edo hala, jakinen da, injustiziak ezin jasanak direlako eta, nunahi ere, salatu bear direlako.

Uste duk hainbesterekin, hamaitu dugula urteetan eduki izan dugun, hon-ulertza eta gizabidea. Bakoitzak bere bidetik ibiliz, bila beharko dugu frutu hoberik, bada urteotako elkarrizketatik, lortu beharrean, aldendu egin zaizkigu. Hondo izan eta agur.

Mikel Goitia

IKASTOLEN ARRAKASTA

(Oleaga-Ikastolako auxia argitzen)

(«Alkartu» aldizkaritik, martxoak 8, 1973, Zenb. 120).

Edonok daki Ikastolek gure arten hartzen ari diren inportantzia. Hainbat ekintzalek hasitako lanak, irakasle eta guraso asko bildu ditu Ikastolako konpromisoan. Zer esanik ez dago, gure irakasle eta andereñoak izan direla, heuren teknika modernoaz, Ikastola Euskalherriko beste kolejio guztien gainetik ipiñi dutenek ezikuntza arloan. Andereño hoiengaztetasuna eta dedikazioak zerikusi handia du Ikastolaren promozio eta ugaritzean. Irakasleen klase intelektual berria sortu zaigu, gure herriaren kontzientzi berria dena, eta ezikuntza berrietan sartu gara beren eskutik, beti ere idea orokorren kontra-jartzeak eta dialektika ezbaikorrek jartzen baidu herria historikoki aurrerapidean.

Baiña ez da falta zoritxarrean, historiaren ardatzari trabak jarri nahi dizkion elementurik gurean ere, beti gertatu oi izan denez. Eta horra talde eta instituzio batzuk, Ikastolako indarrok bere klase-onurarako kontrolatu nahirik, zenbait guraso kontzientziatu gabeen ezjakintasuna aprobetxatuz. Izan ere, guraso asko ez dira eboluzionatu irakasle berrion mailan eta ez dira konturatzeko gure Ikastolaren memento historikoan. Horregatik, idea berriekin mentalizatu beharrean, nahiago

dute alperkeriz, lehengo instituzio zaharren esanera egon eta buruak zator-zuloan gorde, etorkizunaren aize berrieri ohialak edatu beharrean.

Guraso atzeratuok ez dute libururik irakurri eta, ez da berez harritzeko, irakasle berrion mentalitatea konprenitzen ez badute eta haien eziketa berria bere haur txikiak kaltegarri ematen. Guraso aurre-zaleek ordea, nahiago izan dute beren burua zerbaiteko eribili, beren begiekin Soziologia eta Pedagogia berria aztertu eta bere kabuz etorkizunari baietza eman, bere semeen esijentziei amor emanaz eta herriaren beharrezana aintzat hartuaz.

Mundua, bai teknikan eta bai mentalitatean, eboluzionatzen doa, erreakzionario batzuren amorruen gainetik eta ezingo dute lotu historiaren martxa, ez eta ukatu indarrez berebiziko burruka. Honek ez du esan nahi, gu ezker-muturrean jarri behar garela. Ezkerrak ere ba ditu bere heterodoxoak. Bakarrik esan nahi dut, etorkizuna gazteen eskuetan dagoenez gero, gazteen mentalitatera zubi bat bota behar dugula, ugarte ertsi eta agor batetan bizia gal ez dezagun.

Premisa hauekin argi geratuko da Oleagako Ikastolan zer jaso den jakiteko: eskuin muturrak, Elizaren ikurriñak jaso dituela (ostikada honek aparau behar ginduzan garai honetan, herri atzeratuen moxorroa gure begietan berriz ere ezarririk) Ikastola gurasoen kontra, eta gehienek eritsi zabalak beren kontrol estuetara erakarriz, denon Ikastola zena, beren ereduko eginik eta Ikastola herrikoia, talde bateren Ikastola.

Eta hauxe da batez ere harritzen gaituena: Batikano II ostean, hainbeste elkarrizketa eta Ebangelio-otsantasuna aipatu ondoren, Elizako instituzio batek kontrarreforma garaiko alderdikeri horrekin ertetzea. Nonbait berak nahi beste sorgin aukitu dute gure buruetan, gu desohorearen sutara botatzeko, faksisten metodu berberak gure kontra entseiatuz. Dokumentazio ugaria dut hemen guzi hau frogatzeko eta nahi duanari erakuste-

ko gertu nago, bai eta mundu guziaren aurrean egia azaltzeko.

Euskalherriko historia labur honetan ezingo da ahaztu, Oleaga-Ikastolan erabili den indarkeria, herriak eta historiak errugabeen alderdia jaso dezan. Guk ere ez dugu ahaztuko, etorkizuneko gure ekintzan.

Mikel Goitia

GUZURRA TA ABARRA

*(Oleagako Ikastolan Zuzendaritza
aldatu zenean, mutikopian agertu
ziren ziri-bertsoak)*

Egia ta guzurra
ezkondu zirean,
ezkontza ona zala,
probatu naiean.
Gaua baiño lenago,
Tibur promesean,
oi, lerratu egin zan
iñoren oean.

Ezkontza garbia zan,
odol-kutsurik ez,
ideazko semeak
ekarteko ames:
egunez zintzo Tibur,
baiña makur gauez,
semeak salatu dau
goizean negarrez.

Zergaitik uka orain,
Tibur, sekretua,
maite dokala benaz
beste albokua?
Itza dok euskaldunen

zin-dokumentua,
Zertan abil pillatzen
papelen moltsua?

Auzia garbitzeko,
ez eik jo adarra;
gizonen itzak, Tibur,
ba yaukak indarra.
Besterik kaltea dok:
ezkontzean arrak
ager, ta salatzean,
norbere izarak.

ADELAREN LAUGARREN BAKARTEDEA

(urtarrillak 14 gauean, 1973an)

Ezpilluen jokuak salatu euan Adela. Aurretara naiz albotara begitu, tuntur bardiña nabaritzen, amatasun-anditua nabarmentzen. Neskatasuneko prakak ezin sartu euazan, indarrak egin-arren. Betik gorako txirritxia eten egin yakon eta itsusi izten eutson, leengo biribiltasuna ezbardindu. Eta larrienenan, jantzi barik egoela, giltzaren zirristutik norbait kuskusean, «eu ete az, Xabier? Itxaron apur baten» Adela arasa arakatu euan gonarik zabalenaren billa, «oraintxe; minuto bat bakarrik», jantziak probatu-ala, garria azten yoakola, esan einkean. Eldu batari, eldu besteari eta garrira ez doitzen, «ai, amatasunaren geigarria» mindurikatzen zan Adela, «ai, proletargoaren komoda purtzilla» murruskadan erantzuten giltzaren zirristutik kuskusean egoenak. «Xabier! Xabier, bai! Ba dakit zeu zarena, baiña itxaron, zeure erruz nabil onen barregarri eta... Ezetz? Ze adar-jotze darabilk otso-berbeta orrekin? Ateari bakean itziok beintzat! Abil astiro» Adela pazientzia eskatzen eutson atostean egoenari, baiña bultzadak, ostikadak eta دنبatekoak gero eta andiagoak ziran, atea ardatzetik bota bearrez. «Ikusiko dok, bai, orren dudarik badaukak» Adela esan orduko, lurlean zan atea eta Xabier atee-tan begi gora, erotu. «Ala ba! Ikusi nagikek. Ezagutzen nauk? Ezagutzen dok orain eure lana?» Adela Xabierren begi itzurien jokia dakus goiko solairuan

edo idealismoaren munduan galdurik, ez begi ta ez be-larri, ez gogo eta ez biotz, borondate itsuak bailerabil. Adela, arritu, gela barruan sartuerazo euan Xabier edo aren itzal geldoa, «ez nau maite. Maiteko banindu, ar-pegira begiratuko ninduke, ez litzaken papao-begi orre-kin zurtu egongo eta neure garrira begiratuaz bakarrik, laster igariko leuke nigan bere lana» Adela, amantala lotzen euala, Xabiergana urreratu zan, eta orain zer ja-soten yak? Ze ganora edo ezbaiburuk trabatzen deuk burua? Aitzakiren bat ekarriko daustak ziurren: eure betebearrak, besteen aginduak, eure konpromisoak» Adela paparretik oratzen dautso Xabierri, «ea bein-goz konturatzen azen, emen neu naukala ire konpromi-sorik lenena eta eure erreboluziñoa. Bai! Eure errebo-luziñoa! Zer dok besterik ba, nire erraetan egin do-kana? Begitu eik ona eta ez egik aldendu eure begirada euren kontzientziatik» Adela esku biekin oratzen eutson Xabierri, baiña Xabierrek, zaiñetan odolik ez baileu, ez atzbiegietan zentzunik, zirkiñik ere ez egian, alperrik aalegintzen zan Adela aren lepo gogorra be-regana makurtzen. Txorimaloak baizen zurrun, garria eta begirada gogortu, Xabier ez zan Xabier, aren tra-puzkia baiño. «Eure ideekin izorratu gura izan ninduan lenengotik, baiña errezagoa izan endun aragi-lana» Ade-lak Xabier bertanbera itzi eta inguruan azteraldi bat egitson, erdeñuz beetik gora begitson, aren goitar ideen mundua zapusten «begitu egik ona, txoko! Begitu egik neure erraetara! Edo eure egiteen frutua ez ete dok emoten eure ideen eineko? Orren andi eristen ete do-zak eure ideak eta orren baldar eure frutuak? Edo eure-eurea dokana orrela zapustu bear ete dok, eurea ez dokana, eta egundo izan ez dena, orren goratik euki-teko? Ez nenkian ideekin orren maitemindu dan mutil batek, neska bateri alako maite-itzak eta ezkon-prome-sak egin eikeozanik. Edo eure ideak rubiak ete dozak edozein aukerabiderako, bein be tximurtzen edo izorra-tzen ez dozakan idea zoragarriak, orain nigan ezelako atsegiñik ez billatzeko?...». Adela larritu egin zan bat-

batean, agiriak zotíñez irunsten euazala edo trapuzko gizona, Xabier, beste artezi batez biotz-beratzearren. Aren matraillak ikuka, laztanka asi zan, aren sorbaldak besarka, aren ezpáñik mosuka, aren itzul-inguruan bizia sortu gurarik, «maite aut, Xabier, eta agaitik nauk umedun. Ondo deritxatak eure gurasoen pentsakeraz bat eu ez etortea, neu be ez ñatork eta, eure mundu orren azkeneraíño joateko prest naukak. Begitu nagik orain, eroan nagik eugaz...». Adela, malkoak dariola, otoitz egin; orduan Xabierrek aurrera pauso egin, Adela estrepozutik kendu eta liburuen apalera zuzendu zan. Adela arritu ekusan Xabier apaetik, berak emoneko liburu gorria artzen, leioko argiunera urreratu eta irakurten. Adela, bere buruko zapetatik tiraka, «Iraultza» esan euan alauri batez eta gero buru lokatu, barezka «ajaja! Ara Poeta madarikatuaren poemak!

«Iraultza!
ira,
irakin,
iraul,
irauli.

Iraultza!
aus,
austu,
autsa,
autsi.

Iraultza!
iraulka,
iratzí,
iraurri.

Iraultza!
irautzi,
irazi,
iruntzi...».

Itz-mordoak, itz-mokordoak: Poeta madarikatuaren poema! Kendu egik kaikukeri ori begien bistatik. Neuk nok emen iraultza bakarra! Bakarra eta benetakoa! Eta ik, kokolo orrek, munduan ezelako iraultzik egin badok, ajaja!, neure erraietan egin dokana, ain zuzen be». Adela barre zoroaz erraiak aztatzen euazan, Xabier kiñatzen alde guztietatik, «ikusten dok onen gorakada? Ikusten dok zelako indarrez datorren gure Xabier-Txiki, amaren soin guztia irauli bearrez? Zer eta nor gura dok, neu baíño bat bitan banatze argiagorik» Adela, dantza alako jira-biraz paseak egitsozan inguruan Xabierri, mintzoari bake emon barik «itzul adi eure iraultzatik Adelaen iraultzara, itzul adi eure itxukeritik eure Adelaen begitartera; itzul adi liburu orretako itz politetatik «proletalgora, populua, klase-burruka» eta abarretik neure esanera eta erantzuidak: Eure semea ez ete dok prolea? Eure semearen ama ez ete dok proletarioa? Eta, izan be, eure esku fiñok ezertxogaitik proletarioak badozak, ez ete dozak gero neure erraietako eure semeagaitik? Uko egik ezpabe, eu proletalgora azela, ni erria naukala, au eure frutua dela. Uko egik, kapaz baaz, eure Adela Des-Adela dela, erria des-erria dela eta eure paradisia semerik gabekoa, angeru gabea eta neuk esango deuat orduan antipoema bat Poeta madarikatuaren bedeinkaziñoaz:

«Ez az beintzat eu mutil,
itzak dozak biribil,
burges-ekintzak aurki.

Ideak goitarrak,
neskak baldarrak.
Eure ideen Des-Adela
dok maite,
eta benetako Adela
ezesten.

Utsaren konpromisoak
aipatzen dozak,
aita-erantzupide
eurea ukaz...»

«Uu ortik!» Adelak agiñak estutu, begiak zorrostu eta zaplada batez liburua kendu eutson Xabierri eta leiotik jaurti. Xabier, arrizkoa bailitz, eskuak aidean gelditu zan, ustezko orrialdetan irakurten jarraitzen bailue; Adelak sapotzetik oratu eta astin batzuk egin eutsozan. Xabier, trapuzko mamua antzo, lurrera jausi zan. Adelak gizakilla eraso eta leiotik jaurti euan, «aa...» bular bete antzi egiñaz, aidean gelditu ziran Adelaren besoak. Goizaldean nasaitxoago aurkitzen zan, eta Xabierrekikorik geiago ez aipatzeko, eskatu eutson Idoia gaisozaiñari.

VIII

—Adelagaitik izan ete da...?

—Zer jaso yako Adelari?

—Nik ez dakit zer jaso yakon Adelari. Rekisitoria baten ez da esaten zergaitik, zer baiño. Ara: «Jabier Rekarte, Aboitiz de Uriguen, 21 años...» Ba ete dago abizen onetako besterik -Miren, Ikastolako zuzendari-ustekoak, begien aurrean ipinten dautso izparringia Lutxiri.

—Ene, ene! Esaten neban nik, zeozer pasako zala... -Begoña, leen maillako andereñoak burura daroaz eskuak.

—Ba zekian orduan, zakurrak inguruan zituela eta alde egin du -Pilik, Eskola-Aurreko andereñoak arnasa artu dau gero goiko solairura begira gelditu da une batez eta beingoan egikizunen batera alden du sukaldetik.

—Ea Adelarena txarto yoakola, ikusi dauenean, rekisitoria aitzaki ona billatu ba dau -Lutxi, laugarren maillako andereñoak, begi bat keiñutzen dautso Mireni eta susmoaren larregikeriaz lotsatu da.- Zergaitik ez euskun deitu berak, Adelari odola emoteko? Gaisozaiñak etorri bear orretarako?

—Deskuidoan gurera badatoz, au ez dute arrapatuko -Pilik eskutiz bat dakar eskuetan, Julenen firma ikustearren urreratu yakoz andereño lagunak, Pilik butanozko sua biztu eta suari emon dautso Julenen azken maite-agiria.

—Jesus! Zertarako erre?

—Guzti au eskuin muturrekoen saldukeria dala, egingo neunke -Sorne, irugarren maillako andereñoak berea emon dau, beste andereñoen eritsiak ustu direnean.- Eta ez da ez lenena ez azkena izango, gure izena desprestijiatzarren.

—Eta zer izango orain Adelaz -Begoña, bigarren maillako andereñoak, besterik eziñean okotzari eltzen dautso.

—Gutaz zer izango, ez hadi ardura. Gutariko bakoitzak buru bat eta oin bi zeuzkak. Jakin ezak, sakristiako estrategia ez dela izan gero ere, elizakin ez topatzeko, zakurrekin ez topatzearen baizik. Elizakin topatzea? Ba! Neskazaar batekin topatzea bezela duk orain, baiña beste kontua duk zakur amorratu hoiekin topatzea -Batxi, Baillarako Ikastolen Bateratzaille-Ordezkarriak, atera begiratze dau trabena zaarreko txokotik, bezeru barriren bat sartzen deneko, ditzira gorriak susmatzen dauz edanontziaren koskaduretan, unadaka itza samurtzen Zugatzuren belarrietarako.- Alde egin behar izan dik eta ondo egin dik alde egitean. Zuek ere, sakristiako bontzoen begiradatik nabarmentxo gelditu zeratela, uste baduzute, egin beste hainbeste. Alde bakoitzak bere bidetik. Berriz hasi behar bada, hasi. Ez uste izan iñolaz alperrikoa izan dela, egin dugun lana. Hortik utzi dugun sundatxoak luzaro hondatuko dik elizpea, baten baino gehiagoren iguinerako. Ez hadi ardura eskuin muturrekoen gurutzadaz, apaiz-kume hori. Apaizen liburuetan irakurria izango hendun lehendik ere «herriren baten sapuzten bazaituzte, astindu zuen oinetako autsak haien kontra, eta zoazte beste herri batera». Elizak honetara bere integrismoaren frogamango ziguk eta integristen bizia beti ere soinean daramatan burdinezko jantziak berak itotzen dik.

—«Gunetaraño sartzen yat arein eragona, egun guztian esan ta esan: «non dok Jauna» -Aita Luis, Ikastolako musika-arduradunak, tono txiki naigabetuan asi

dau naigabeetako salmua, koru bietako estarriak biotzeraño unkitu dira euskal arnaseko doiñu sarkorraz, Aita Jose Luisek salmuen azkenak, alako gozogalez luzaogotzen dauz.- «Ez naizu jaurti, zu zaitut nire abarroa, ez bertanbeera itzi ni, ene Jaungoikoa».

—Deubruak eroango nau, ama, neure maillako lagunekin aurtengo kursoan jaunartzen ez badot -Maitane, irugarren maillako neskattoak, otoitzean legez eskuak batu dautsoz amari, begi ederretatik malkoak dariorzala.- Bai, amatxu, soiñeko zuria estraiñatu gura dot...

—Andiago egin zaitezenean, laztana, eta ez esan tonteririk, deabruak eroango zaitula-eta. Gero be Jesusen lagun ona izan zaitezke, baiña beste modu batera. Beragaz be euki zeinkez sekretoak -Alazne, Ikastolako amaetarikoak, esku biekin laztanez artu dau Maitaneren arpegia eta mosuka edaten dautsoz malkoak.- Badakizu, laztana, aitatxok zer esan dauen... Biartik beste Ikastola batera joan bearko dozu.

—Ez, amatxo; beste Ikastola batera ez. Nik neure lagunekaz jaunartzea egin gura dot.

—Egingo dozu, laztana, baiña andiago egin zaitezenean.

—Orduan, amatxo, jantzi zuria txikiegi eukiko dot eta jantzi andia jaunartzerako barik, ezkontzeko izaten da.

—Orain, mugea bitarteko daukeela, ezkontzea nekezago egin yake... Baiña ori ez da untzea, Adelaren osasuna baiña -Lutxi, laugarren maillako andereñoak, Begoñaren ustekeriak zuzendu bearrez, denen arridurak geitu baiña ez dauz egiten, etxeko eta etxekoen ardura dana bere gain artu baileu.- Zuetariko iñork ba ete daki, Adela non bizi den? Xabierrek emon ete eutson iñori Adelaganako zuzenbidea.

—Eta Adelari berari zer egingo dautsoe?

—Xabierren konfidentea izatearren -edo?

—Ez; beste zeragaitik baiña...

—Zeragaitik!... Abortatzeagaitik ezer ez edozein nazio aurreratuan beinipein; legez egiten den operaziño bat dalako eta ez besterik -Debora, bigarren maillak andereñoak, ezpainera mengel eta esakera pustuz itsu-situ dau Begoñaren ardurea eta galdera, maistra zaarren ganora artzen dau erabat.- Edo emakumeok ez ete gauzan noizbait geure gorputzaren jabe izan bear? Edo burgesiaren esplotaziñorako bigantxak ete gauzan?

—Orixe be badon, Debora: burgeseri indartsu eta gaizto orrek ustez euri egiten deun kaltea eta andiagoa aulago bateri egitea, ondo emoten don.

—Aulago bateri?Ba! Ille bat edo besteko zera pertsona bailitz! Egingo neunken, jesuita orren klasean entzun endunala olakorik. Abortoa, Konstituziñoaren kontra, Alemaniako integristek esan dauenez. Orixe: erria ren eta biziaren kontra doala-ta. Andiagorik entzuteko!

—Frantziara joan bearrez, Inghaterrara joan balitz, orain osasuntsu eta burges santa bat izango litzake Adela. Baiña non eukan gure Adela Inghaterran abortatze-ko beste txintxin? Non egoen bere aita burgesa, Adela txori estalpea egiteko?

—Burgesen Ikastolari txakur txiki bat be ez! -Ibon Gorria, Ikastolako oiko gurasoetarikoak, izen barria agindu dau Aurrezki Kutxako zor-agirian.

—Eurak dira geure okerren zuzentzeko ordaindu bear dauskuenak -Mikel Goitia, Ikastolako Gurasoen Batzordeko oiak, firmak barrizten dauz eukien txartelatan, eta poz alako argiak brist egin dautso begietan, boligrafoa boltzikoan gorde dauenean.

—Eu, ba yakigu, intelektuala edo karrera bakoa, esku-leun edo latza, komunista ez baaz, ziur burgesa azela -Peli Tellaetxe, Ikastolako gurasoetarikoak, zilbortean ipiñi dautso atzamarra Joxe Guridiri, tabernan sartu daneko, «ni euskalduna» erantzun dautso Joxek, Peliren txantxetak itzuritearren, Pelik ardao bat agindu eta azterketa-jokuan ekin dautso.- Deigun euskalduna azela onenean, baiña euskera batuko ala euskera erriko?

—Ni euskera betiko!

—A kontxo! Ondo erantzun dok; ik beste klaserik artun be ez dok egin-eta. Zer besterik bear yoagu gizon bat euskeran doktoratzeko?

—Kontuz or! Emen euskal tituloa barik, klase-tituloa emoten da -Txomin Beitia, Gurasoen Batzordekoak, edanontzia jaso eta, alkarren osasunerako, besteenakin jotzen dau, begirada argitsuak trukutzen dauz.- Kontu egin ba, ardao au berau be Euzkadikoa izanarren geure diruaz erosi eta geuk edaten dogunez gero, burgesa dala. Eta zer gura dozue. Iturriko ura balitz be, bardin bateatuko ginduezan.

—Itsukeria da gutariko andereño bakoitza lapiko batean sartu eta ongarrri bardiñaz auzi-mairatzea: klase intelektuala, erri-kontzientzi ernea eta beste agiri-txartelak paparrean ezarriaz -Lutxi, laugarren maillako andereñoak, egurdiko garbantzoak iduli dauz bere platerera, aspilla luzatu dautso Sorneri, lauortzaz garbantzo bat jaso eta biguna aztatu dau, on eritsi.- Itsukeria geu besteen kontra alkartu-gura ori, beste guztiak geure kontra bailegoz.

—Beti esan deunat nik, baten erantzunak ale baten balio daukala eta talde osoarenak, mendi batena -Sorneri, irugarren maillako andereñoak, begiak Lutxigandik kendu barik, aidean eusten dautso platerari, larregi eritsi dautso. Mirenek serbidu dautsonari, zamaua egokitu, koillara erdi garbantzo plateretik jaso eta jastatu aurretik, oraindiño Lutxigana jaso dauz begiak.- Baiña moralismo defasatu orren izenean, bakoitza bere kontzientzi personalaren erantzule (nik morroi, esango neunke) egiten bada, eta ez erriko kontzientzi askatzaillaren erantzule, aizeak eroango dauz ziur gure indarrak. Eta emen, danon indarrak arazo batean inguratzeara balioko euan.

—Bakotxa bere bideen erantzule da.

—Agatik nireak zuenetik betiko aldenduko dira...

—Goizetik etorri zara, zeu Mari. Ikusi dozuz andereño barriak? -Errose Zarate Ikastolako amaetarikoa, Iaionetxuren billa etorri danean, Mari Zubeldiaren pazada bedekintuan idoro dau Ikastolako ateetan.

—Konfiantzakoak, Errose, esango nendukenan -Mari Zubeldia, Ikastolako amaetarikoaren bularrak pozez dardaratu dira, Erroseren agurrean. -Ara, bada-kin? Bi ikusi yonats eta biak irribartsu agur egin yaustean.

—O! Zorionerako izango don! Ba dakin zer dan konfiantzako andereñoak eukitea gaur egunean?

—Euk esateko be, Errose!

—«Biotzak diraust zure begia billatzeko, arpegi eder ori ikusten nator arrezkero» -Aita Markel, Ikastolako Leendakari bereziak, euli bat astindu dau salmutegiaren orrialdetatik, bera irakurten dagoen lerro ber-berean, tentaldi itsusia bailitz, Jainkozko lana oztopatzen bailiardu, eulia lerroetatik Markelen arpegira aldatu da, Aita Markelek batera eta bestera eskukadak boteaz, Jainko salmuen alkarrizketea galdu dau, barrutiko eulien eta pinpilipauxen zirrikaz, irribartxo z yoritu yakoz ezpañiak Aita Markeli, «egundo olakorik! «Gu ementxe, andereñoak, ea iñork artzen bagaitu edo beste frailleren bat noiz urtengo...» Detxepare zaarrak, «euskera, jalki hadi plazara» esan euala eta, beste barrik, euskal frailleok be sakristiatik kalera, neskekin dantzara, urten bear baigengu danok, Zugutzu, fraillimotx orrek legez bere abots larriaz: «andereñoak zuek zaree gaur euskara plazaratu bear dozuena», sermolarri bikain asi yaku pulpitorako eldu baiño leenago. Eta noren mixiño z ibilli ete zan arako batzarrean? Eta ezuste batez, bertan ez banago, ni barau. Ondo be ondo gogoratzen dot Zugatzuk bere papelak irakurri ostean, batzarreko batek karpetan txaloak jo euazanean, andereño guztien begi-belarriak arengana jo euela. Nondiko agintza ete ekarren, urrengo batzarraren une eta orduak ipinteko? Eta gure Ikastolako maisu-andereñoa guztiak (neu ez badeezpadan ez eta guretarikorik) ala-

ko txeraz inbitatzeko?... «Aita Markelen gogoak, salmu-deietatik at, korutik eleizpera, eleizpetik kalera eta kalean zear jarraitzen dautso arako bizardo aren ganoreari, baiña bizardo askotxorekin topatzen da kalean eta ezin berezi batabesteekandik.» Zure bidea nondik nora dan, esan, Jauna; etsaiengandik urrun, zein dodan zuzenena.

—Bat gitxiago gure komunidadean... -Miren, Ikastolako zuzendari-ustekoak, illeta-dunduna emon dautso aboskerari, esku biak monja-erara otoitzean legez, gurutaturik daukazala, edo aparia estarri-estarran garratzu bailitxako, Sorne andereño-lagun oikoak itzi dauen utsunera begira.- Gauzak onela badoaz, agur gure ostatuko ekonomia. Lauk ordaindu bear ko bostena.

—Ori emen gaudenok geure bokazioan firme irau-tekotan -Pili, Eskola-Aurreko andereñoak, Mirenen antzera batu dauz eskuak, apariari gatz apurra emotea-rran.

—Ez arduratu! Etorteko diren, edo etorri diren andereñoak, ezkongeiak direla, entzun dot eta, geu legez, baserrikoak, ez Oleagakoak beinipein. Bokaziño barriak izango doguzala ziur -Lutxi, laugarren maillako andereñoak, jastagarri emoten dau aparitako sopea.

—Baiña mutilik ez dela onartzen, jakitean, ez diñae klusurara etorri naiko...

—Ostatuan propogandarik onena, garbantzo onak dozan.

—Nor izango da abadesia? -Begoña, leen maillako andereñoak, karta-jokuetarako indiabak batu dauz, beingoan botoetarako jokatze-ko.

Oleagan, otzailak 14, 1973an.

Aita Markel Zumeltzuk Mikel Goitiari.

Agur adizkide: Begien aurrean daukat joan dan astean igorri zeunstan eskutitza eta ez nau gitxi arritzen, bertan eta zeure eritzietan, eleiza -eta beraz ni, eleiztarra- eskuin muturrekoekin bat egiñik ikusteak. Eta ez edonolako eskuin muturrekoekin gaiñera! Uste dot orrela, eta moldezko izkietan, iñor objetibatzea, «inri» eta guzti gurutzean jostea legez dala.

Asteko, esan bear dautzut, gauzak ez direla orren simpleki ikusi bear, dana ezker edo eskubi bailitz. Gauzak orren soillak balitzaz, ez legoke ez galderarik egiterik, ez argibiderik emoterik. Baiña zuk galde egiten dozu: «Zergaitik ni Ikastolatik aldendua eta besteak ez...?» Erantzun erreza orrentzat: Batzorde barria aukeratzeko, eta Batzordeko izateko, Ikastolako Araudi barria onartu bearra egon. Erabaki orixe artu zan arako Batzarre Orokor, trumoitsu, mistotsu eta adartsuaren ondoren. Iñori ez yakon ukatu botoa. Atarako eskubide osoa gendun, bada Araudi Zaarrak bide emoten euskuen «en caso de graves discrepancias» diñoenez. Nor aldendu zan eskubide orretatik, eta Ikastolako arduratik, iñortxok bialdu gabe? Barruan gelditu zirenetako batzuk barriro aukeratuak izan ziran.

Beste zure itaun batek onela diño: «Zergaitik irakurri gura izan zan Batzarre Orokorrean eskuin muturrekoen agiria...?» Akusatuei defensarako astirik eman gabe, kolpean auteskunde berriak egiteko?» Lenengo galderari esango dautsot, alako batzarretan alako agiriak irakurteko baimena emoten dala, eta guk emon egin gendun eta, zuek, zeuetara, eragotzi egin zenduen. Zure bigarren galdera oker egiña dago. Onela egin bear zendun: «Akusatuei defensarako astirik eman dabe, zigorra beingoan emateko?» eta ez nastau aburu ezbardinak. Iñor ez zan zigortu, ez orduan, ez gero. Baleike askorentzat zigorra, Araudi Barrirako, zeuk diñozun «auteskunde barriak» izatea.

Orixe da, ain zuzen be, demokraziaren zigorra. Zeuretzat oker etorri dala, edo zeuk Ikastolaz daukazun idearentzat? Baiña orregaitik ez ezan «indarkeria» eta alakorik.

Eskerrik asko, gaiñontzeko, eskuin muturrekonaz disñostazuzenekaitik. Neuk be zer edo zer orretaz entzuna daukat, ez dakit nongo poetak esana «eskuman dute biotza» edo olako. Tamala izkuntzan eta linguistikan larregi sartzen direla. Nik alakoetan erabilten dodan autoridadea «Itza aragi egin zan» Joaneren (1, 14) izaten da batez be, eta ez teologia linguistikaz nastearren, ikasbidea jarraitzearren baiño. «Itza» gure artean bizi izan bazan, bere barri guri emoteko, egoki zan Eleizak be euskaldunei, euren einetan, itz egitea, euren ulerbide eta eskolatzeko. Urrun gugandik erriaren itza des-aragitzea edo olakorik. Euskaltzaindia, bere gerizpeaz baliatzen diarduen askok baiño geiago, errespeta-tzen dogu gure Ikastolan. «Impulso» aldizkariak diño-zuna gauza bitxia da. Alako literatura Biblia zaarrenean irakurri dot (Asiera, 44, 2-5) Norbaitek errugabearen zakuan sartu euan erregearen kopea, gero errugabea errundu emoteko. Señale argiagorik, justizia egiteko!

Gero aipatzen dozuzan dokumentuak be ez daue jara andirik merezi. Emen daukodaz euren kopiak eta famili geienetara bialduak izan dira alderdi batakoen edo bestekoen arduraz. Zoritxarrez egirik andienak ez dagoz dokumentu orretan. Oraindiño bizi gareanon kontzientzietan egongo dira ziurrago.

Eta azkenik, agur luze baten ez katiatzeko, txarto esanak parkatu eta ondo esanak artu, euskaldunek esan oi dauenez. Agur zure serbitzari.

Aita Markel Zumeltzu

SALDAR-ERIA IKASTOLAN

(«Kontuz» aldizkaritik, martiak 18, 1973an. Zerb. 82).

Saldarrak ezin einkean bere tunturrean larregi iraun: Odol-kutsuaren seinale, minberagia zan ainbeste denporan soñean eroateko. Eta begirik erakusten ez euala, saldardar-berarra artu bear izan gendun azkenez, eria soldutasunera erakarteko. Orduan eritasun guztia puntopuntora etorri yakun -foku batera baizen eta barrutik sorne ustela eriola asi zan. Atsedenaldir galanta izan zan Ikastolaren soñerako.

Guda osteko aukera barri onetan, Ikastolak indartsu orritu dauz bipil barriak, eta guda aurretik kontzientziatu gengoanekin batera, guraso gazte asko aurreratu dira Ikastolaren alde. Gure Ikastolak artu-ala-ko umeak, parrastan etorri yakuz, gela barriak egin-ala betetzen zirela. Andereño eta irakasleak be, ortik-emen-dik, aukeratze bat egiteko asti andi barik, zuzendu genduzan, euskera bakarririk artzen genduela euren zintzotasunaren segurotzat. Baiña euretariko batzuk ez euren ez erri-kulturarik, ez erri-kontzientzirik eta, txarrena dana, batzuek, iñora begira jantzirik, azpi-soñekoak ekarrezan. Estaduaren titulodunak be aukera ona euki-euen gurean. Onela, euskal nortasunik ezean, asko laster jausi ziran maisu barrien izkiri-mirietan: ezkuntza barria (ezkuntza liberatua) aitzakitizat, euskera batua

(hatxeduna) ikurrintzat eta klase-burruka jomugatzat artzen euela, Marxen eta Leninen eskutik.

Sasi-maisu oneik ondo uztiatu dira gura kultura-auleriaz, irakaslerik ezaz, gure mutillak beste lanetan oarbageturik egozela. Eta euskera eta bere seaska, Ikastola, ideologi-aukeratzat (armatzat) soillik arturik, euskalduntza bearrez, iraultza erabagi euen, gurasoen bellarri sorgortuetan «alkarrizketa, pluralismoa, bakea, ebangelioa» txiliñak jotzen euezela. Eta kontuz, txo or, konturatu gintzazaneko, euren, euren dantza lotu barrik, nastea onezkoan erabagi bear zala, jardukitzen euen, ez ezelako auziaz edo botoen indarrez. Gurasoen Batzarra baiño beste auzirik ez egoela, esan geuntse-nean, lenengo Batzarra oztopatzen, gero klase intelektualaren goralpenak egiten asi yakuzan eta, Ikastola geure argintzaz eta geure izardiaz (ez diruaz bakarririk) jaso gendunoi «burgese»-txakurra axatzen eta faksismoaren azkonek eskuin muturrean josten asi yakuzan: euren direna (saldarraren azpi-sornea) geuri egotsi gurarik, ain zuzen.

Emoiztetik igarten da zugaitza eta, iraultzailleok, eurenaz urten ezin izan dauenean, geure Ikastolari arrika egiñaz, aldendu dira.

Saldarrak sorne guztia okatu dau, baretu da: odola garbitu danaren seinalea. Eta izurri ori soin batetik bestera doanez, asko etorri yakuz geroztik, saldardar-berarra non emoten dan itaunka. Gurasoen euskal-kontzientzian eta ernetasunean, erantzu dautsegu.

Laubegi

ADELAREN LAUGARREN IKUSKIZUNA

(1973an, urtarrillak 15 gauean).

Itzalak dira gauaren begiak eta azpi-sugeak atos-tean dagoen saltzaillearen begiak, etsipenaren lezeko irensugearen asmoak. Adela isilik eta geldi dago bere erruaren eta salatzailearen katibu, bere buruaren alde-zako itzak estarrarian itotzen yakozala eta, irensuge lupuaren lerdeak itzuriteko, arpegia besteratu ezin dagikela. Donge amorratua ondakiñen billa etorri dela, ba daki Adela: amaren frutua galduz gero, aren gogamena ere galdu gurean, ain zuzen. Irensugearen eskatak atetik banan-banan sartzen dakus Adela eta, igitai zorrotzak antzo, makurrak dira aren bizkar gaiñeko esproiak, itxaropen egoak mozteko gei eta aren arnasa egurtsa kirazteko eta lo-gela kartzela biurtzeko beste. Samea, eskuak, oiñak, soñia suge-mailetan arturik eta gogoa larri sentitzen dauz Adela, parkamenezko itzetaz ostaz gogoratzen dela: «neuk parkatzen dautzudaz zure pekatuak Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean». Gogamenezko gaztelu-barruan, antxe, andia-goa egiten yako orduan erasoaldia eta Adela otoitzari lotzen da «izadiaren Sortzaille zaren, Jainko Aita, gizona zeure irudiko egin zenduan eta zeuri Aita deitzea gura izan dozu; erruki zakioz Adela zure alabari, erraie-tako zeure arpegi-diztira galdu dauela eta, naigabeak jota baidago». Adela «amen» erantzutean, Xabi-ertxoren izena geitzen dautso eskakizunari: «salba egizu,

Jauna, eta guk gurasotasuna ukatu bageuntson be, zeure errukiz, zeure arpegia ikusteko gei izan daitela», Adela linboan dakus Xabiertxoren angerua ume-olgetetan eta ate-zirritutik zerura begira, barretxoak egiten, pozka eta saltari. Xabiertxok liburu txiki bat jaso dau jostailuen artetik eta Eskola-Aurreko muttikoa baizen zintzo, maai-txoan jesarri eta bertatik irakurten asi da, biolin batek ain ezteki «Belenen sortu zaigu» doñnutzen dautsola, an-geru musikariaren eragiñera. «Iraillak bost -ba dirakur Xabiertxok-. Gaurtik ba naz, nor naz eta amak ez daki oraindiño bizi nazenik. Ementxe kukurio nagoko biotz-ondoan. Ara, sagar-azitxo bañio txikerragoa naz, bai-ña mutiko ule-gorri eta begi-urdiña izango naz... «Xa-biertxo egunkariaren lerroetan bizi-kontzientzia artzen dago eta Adela, bere biotzaren dundunagaitik, nastu-txo dantzuz aren esaldiak; «altutxoago, laztana, zeu zara klasean lenena eta», Adela poz-bitsetan dago, ez euan itxaroten alako miraririk Eskola-Aurreko ikaste-letxoen artean. Aingeru-musikariak biolin sarradak da-giz artean «aurtxo maite, musu gorria» bañia Adela entzun dautsola, uste dau, Xabiertxok orria iduli eta zoliago irakurten asi da eta: «Iraillak amasei, Ezer gi-txi naz oraindiño, bañia egunero azten nago; laster na-barmenduko naiatzue eta orduan egoki yatan zoriona-ren partekide egingo zaituek. Jo! Amaren odola zurrup-apatuz-zurrupatzuz azten eta azten nago eta gure ama konturatu be ez» Adela belarria luzatu dau. Ez ete dau jadanik ama aipatu bere umeak? Angeru-musika-riari agirika egiteko dago, alako eder-lagungarriaz tes-toa illundu ez dagian. Bioliñak zinkurifnez eraso dautso «ainbat maite dut nik nere ama» doñnutzean ete Adela bera edergarriaren gozoak artu dau, Xabiertxok, beste orri bat iduli eta irakurten dagola: «Iraillak ogetamar. Nire aoa itxura apur bat artzen asi da. Emendik urte batera barretxoak egin aal izango dautsodaz amatxuri, «amatxo» daituko dautsot. Nor ausartuko da neuri «kuku»sagarra» deitzen ordaun? Ez eta sagar-potin be; amatxoren potiña naz eta», Adela erraiak berezko

eragiñez dardaratu dira eta zotin batek igon dautso aoraiño. Biolin-ari fiñaren ondoan auspo eragingarria sartu da lagungarri «poliki-poliki eragieiozu» ausart dantzagarri doñutzen. Zerutiko auspo? Musikari barria ez dau ikusten Adelak eta Xabiartxok, aspertzeke, lanean darrai ikas-maiaian jesarrira: «Urrillak iru. Nazen potintxo onen barruan, aranbeltza besteko, poxpola saltaria taup-taup asi yat jauzika. Ene biotza! Amaren zilbor-esteetatik gero eta antepara ugariagoa yatort, biotz onen barrutik neure soin guztira banatzen dela. Au amaren gozotasuna!» Adelak gazi-gezag dauko estarria, ikuskizunaren ederra beraren gozo edo zigorrerako asmatu izan danentz, ez dakiala. Bioliña eta aupoa ez datoz orren ondo «nok lurrera ekarri zaitu» doñuratzean eta Adelak parte txarrekoen bat susmo dau antzerkiaren aritiki eta Xabiartxoren formaltasuna bere apailariaren arpegi: «Urrillak amasei. Egunero eta aziago, egunero eta amaren antz andiago artzen nago. Begitu: besoak eta oiñak mugitzen asi naz. Atsegiña da mugitzea, mugitzea olgetea da. Ointxookin amaren bila joango naz, besookin ama besarkatuko dot. Pozez jauzika nago, ama neure bizi-pozaz konturatu daiten», bioliña eta auspo-soiñua poliki konpondu dira «arin arin guztiok goazen» ariñetan, baiña Adelaren gogoaz aztun sentitzen da aideari jarraitzeko, susmoa ziurtatzen yako. Nor dabilko adarra joten? Izan be, angerurik ez dakus musikagiñen eta, uste baiño linbo illunagoa, izan bear dau Xabiartxo dagoen ikas-gela. Nork idatzi dau gero arek eskuetan darabilen liburua? Egundo arkatzik artu euan ba eskuetan? Eta irakurri, nork erakutsi dautso irakurten?: «Urrillak ogetalau. Neure eskutxuen puntak zenbatzen dodaz: bat, bi, iru, lau, bost. Bost eta bost amar, ez ala? Eta eskuotako bostak zeu laztantzeko, ama, tatantxu! Atzamartxook zeure Eskola-Aurrekoen artean marrazkiak egiteko eta tilibiti-ti, txistua joteko...» soiñularietan txistua nabarmendu da «Ikastolatik» abiada markatzen, eta Xabiartxok berak, lana itzi gabe, oiñak mugitzen dauz aidera

maaiPETIK, «oi! Bera da! Benetakoa da» biotzak emon dautso Adelari, baiña Xabiartxoren ointzoak laster gelditu dira, beste orri bat iduli eta irakurten asi denean: «Azillak amabi. Amak, mendikuak esan eta, ba daki beragaz nagoela. Amaren betartea illundu egin da jakitean eta ez baitan nago. Zergaitik ez zara nigaz pozten, ama. Zeren damu dozu. Laster eukiko nauzu besoetan eta zeure mesedeen esker ona erakutsiko dautzut «Adelak lotsaarren, arpegia estaldu gurako leuke, fagot izekaria «Olentzero, buru andia» aldarikatzen asi denean, eta ezin dau. Lillura bat izan da dena. Oraindiño lokarri aztunak katiatzen dautsoz eskuak eta salatzaillaren irria gaiñetik dauko len baiño biurriago. Deabruzko irensugearen erastunetatik askatzen aalegiñak dagiz, «Jainko-Seme, gizakien Salbatzailea, Ama Birgiñaren errailetan sortu eta gizon egin zitazana, askatu egizu zeure mirabea pekatuaren zauritik eta sendotu bere geisaldian, zeure Gurutz eta Nekaldiaren izenean» Adelak abadearen otoitza gogoratzean, eta bein da barriz berea egiten, Xabiartxoren zori-kideko egiten da, «eta zeure odol bateoaz kristau-einera jaso egizu» luzatzen dau eskaria. «Azillak amabi. Amak ez daki oraindiño mutikoa nazenik, bestela poztu egingo litzake irakurlearen bekokian ixurdura bat agertzen da.- Ez zendun ba, mutiko bat ames, ene amatxo? Emen naukazu zeure gurarien beteko. Ara, zintzoa eta ikastuna izango naxatzu eta orain zure odolezko arremonetan legez, gogozkoetan gero aurreratuko naz», fagot izekaria urruntzean, kitararen kirrinka asi da «dringilin dron» ganora galdu, Adelaren aurrean ikuskizun-antzerkia irri egizatzen. Xabiartxok bakarrik darrai seriotasunez: «Azillak ogei. Nire arpegia biribiltzen doa, ama, zeure begien ezpillua noiz ikusiko. Zeuze antza daukat betartean eta gogoetan be bardin izan naikezu. Agaitik zeure bekaintxu orren naigabeak aldendu gura neunkez, amatxo» aserako bioliña negarrez asi da «aur ttipien ama onak guziz ziren arritu» oroitaraztean eta Adelak ere negar dagi damuaren eragiñez eta irakurle txikia

eten gabe: «Azillak ogetazortzi. Nork esango leuke illuntasun onetan argitasun gorritzka ikusten nagola! Ba dago, antza, ortik mundu ederren bat, amaren baratza daitekena edo Sortzaillearen paradisua. Oi mundu bariaren ditzira! Ikusteko guraz nago...» txistuak irriz, auspoak zirriz «Eguzki dibinala gabaren gaberdian» bikondu daue badaezpadako jokuan, olentzariak makillakin abesten bailetorz, diru-zaparrada boltzetan jaso-aala. Oi Gabonsari garratza Adelarentzat eta etsaiaren lupukeria! Noiz amaituko da auzia? «Abenduak amalau. Zure biotzaren taupadak dantzudaz orain, amatxo. Entzuten ete dozuz zeuk neurearenak? Ama, nireak taup-taup, isil-isil eta zureek dun-dun, ozen-ozen. Batzuetan zureak larritxo entzuten dodaz eta neu be larritu egi-ten naz, amatxo, orduan. Zer jasoten yatzu, ama?», musikari gaiztoek, alkarren besaka, «zapata txuriak pape- rez» maxiatzen darraie, baiña areago irakurle txikia, orri odoldura eldu danean. «Ai ene Jainko Espiritu San- tua, -otoitzean ezkutatu da Adela-Ama Birgiñaren erraiak erne eta gizakiei jainko-semetzakoa iragarri zeuntse- na: osatu egizu utsegitez zure mirabeagan lorrindu dan arpegi ederra eta erruetatik garbitu egizu, parkatzaille zara-ta», Adela amenka aurre dagitse salatzaile guztiei, musikaren ziriak «aita nuen saltzaile» solfan jartzen dauela eta irakurle txikia, sorgor, lerro odolduetan arri- turik dabillega. «Abenduak ogetazortzi. Ez! Ez! Ez egie- zu itzi, ama, arerio gaizto orrei gure etxea zulatzen. Gorde nagizu, ama, zeure barruan; zeu gabe ezin nai- teke bizi eta. Ai ene, ama!... «bioliña alauriz, txistua irrintziz, auspoa zotiñez, fagota illetaz, kitara negarrez «ama nuen diru-artzaille» antzerki lazgarria itxurazten, egiztatzen, salatzen alkartu dira, zeruan Ortziren oiñes- tuak eta lurrean sorgin-karraxiak dirudie, Xabiartxoren orri odoldua maai-gaiñean zabalik gelditu da eta Xa- biartxo bera zerutiko odeiak artu dau altzoan, baiña Adela ez dau ikusi, burua lurra jotzeraiño markurtu dauelako, etsipenaren irensugea aienatu eta bere soña askatu danean, Adela burua jaso dauanean, epai-maia

bakarrik ikusi dau eta egunkari odoldua bere gaiñean, epailaririk ez dager. Bakarrik zuriz jantziriko zeruko angeru edo lurreko jaupaleme batek drama negargarria- ren azkena papeletik dirakur:

«Emen ausi da
nere poema;
lagun nagizu,
Jauna.
Lurrean aozpez
jausirik natza,
t'ezin zu gabe
altxa.
Zergaitik uste
nendun, zerua
orren eziña
zala?».

BIZITZAKO POEMA BERRIAK

Poeta Apalak Adelari biotzez ezkañiak.

*(Adela gaisoaldian bizi izan zan
gelako paperontzian aurkitua)*

I

Zer da neska minduaren çauria?
Iraultzaren alde eman odola t'izerdia.

Udaberriko iraultza,
xirula-mirula leraz,
margo ta kolore:
eztigarrietan milla zapore,
samingarrietan zure dolore,
-maitemin zauria-
zauria osatuaz,
ta maitemin fagore
txeraz.

Udaberriko ametsa:
eguzkiaren iraultza,
bero-bero-bero,
iraultzaren eguzkia,
sendo-sendo-sendo;
indarrak nehurtu,
lehenak apurtu,
gogo ta soin,

-hau dun sasoin-
Adela,
golpeka-golpeka,
igaroko dun Aro Krudela,
krik-krak
etengo ditun kateak,
kate laidogarriak,
t'askaturen lur-semeak,
aize berrien boladaz,
kantu berrien baladaz,
t'atsegingo lur-alabak.
Marrubiak, lorak,
adelfak, Adela, erneko,
larrosa gorriak,
hire buru gaineko.

II

Zein ete da andereñoaren ganorea?
Iraultzaren alde ager adorea.

Beraz, ama zara,
ez zara alaba;
Iturri gorri meatza,
Ikastolan labea.
Hortxe dugu ametsa,
mende berien promesa;
erakus zuzen dena,
uka aldrebesa:
pentsa, gerta, pentsa
herriko defentsa.
Alda, Adela,
-ahal bada-
ahal dela,
ahal dena,
ahal da-eta.
Izioki emen kandela:

sua, burdina gorria
-larrosa gorria,
Adela-;
burdinola,
Ikastola:
galda, salda,
gure saldoa.

III

Zer ete da maiteminduaren loria?
Ilargi amandrearen ezti joria.

Aralar mendiko
ilargi betea.
norentzako dakarzu
urrezko dotea?
Euskadi askatzeko dugu
borondatea.
Amagoia amak
silatu fedea.
Ez aiz makala,
alaba,
ez aiz iñola epela,
Adela,
Amagoia lekuko
t'amabitxi dela,
dagin maiteminduen
gaubela:
beioaz besteak ilargira,
betor higana
ilargia bera.
Oi! Bai, Adela,
libertatea dator
Aralartik behera.

IV

Zer ete da andre herdiaren çauria?
Ostro ferdea ta larrosa gorria.

Odol-odola,
bakean dago zure arbola,
orbel-orbela,
-erori bazen, erori-
aize berritan, Adela,
mugitzen dun, mugi,
heure gerri joria,
larrosa gorria,
Adela geuria.
Ta ostro ferdeak
aizetan dabiz;
ez dute gauzek beti iraunen
keldoak, geldiak,
iraulka doaz irauliz,
iraulgarriak.

